

ttipi-ttapa



INAUTERIAK gehigarria / 29



JUBILATUEN GOZAMEN ITURRI

65 urtetik goitiko 139 erabiltzaile dituzte eskualdeko

14 herritan dauden jubilotekak. / 10

SINADURAK



FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI / 3



AITOR AROTZENA ALBIZU / 3



MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN / 4



JOSEBA URROTZ TELLETXEA / 4



Joane Sorando Odozola
72873152-A
2021/04
372

ZOKKETA / 72



«Behar bereziko ikasleekin segregaziorako joera dago»

Behar bereziko ikasleekin lan egiten du Kattalin Ezkerra hezitzaileak eta bere ustez, ez da hezkuntza inklusiborik existitzen. Administrazioek inklusioaren aldeko jarrerarik ez dutela dio. / 8

Azken hamar urteotan 16 udalerrik biztanleria galdu dute / 13

Liburutegi ibiltaria hilabetean behin Aranon, Areson eta Goizuetan / 51

IKASTOLA

BAZTAN · LESAKA · BERA

herritik
sortua, herriarentzat

AURREMATRIKULAK
OTSAILAREN 3TIK 7RA

hezkuntza eredu propioa
eraldatzailea
euskararen ardaztutako auzolan eta elkartasuna
euskal curriculumak
eleaniztasuna
ikasmaterialgintza propioa
kooperatibak
pedagogikoa



BILERA INFORMATIBOAK

BAZTAN IKASTOLA
Urtarrilak 29 / 17:00etan
Parkeko Ikastolan

TANTIRUMAIRU IKASTOLA
Urtarrilak 31 / 17:00etan
Tantirumairu Ikastolan

LABIAGA IKASTOLA
Urtarrilak 31 / 17:00etan
Labiaga Ikastolan



NIRE TXANDA

FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI

Euskara merezi dugu?

Euskalduna naiz eta harro nago. Denok entzun dugu esaldi hori eta ziur aunitzek erabili izan dugula noizbait. Baina, benetan hala al da? Benetan sentitzen al dugu euskalduntasun eta harrotasun hori? Geroagokoa da, beharbada, *euskalduna naiz eta arraro nago* esaldia. Beharbada errealagoa suerta daitekeena, norberaren interpretazioak interpretazio. *Aunitz maite duenak aunitz sufritzen du*, dio bertze esaldi gogoangarri batek, ziur aunitzek noizbait gure egin duguna, hau ere. Ni euskalduna naiz eta harro zein arraro nago, euskara maite dut eta maitasun horrek, aunitzetan sufritzera narama. Aunitzetan pentsatzen dut euskaldunok ez dugula euskara maite, ez dugula euskara merezi. Altxor gisa definitzen dugu, baina altxorra gure eskuetan, gure bihotzetan izan arren, gure mingainetara ez dugulako eramaten. Materialismo hutsagatik maite dugula pentsatzen dut maiz. Eta norbaitek gure materia hori kendu nahi digunean soilik erreakzionatzen dugula, gurea dena babestuz. Beharbada ez da horrela, ez ahal da horrela izanen!

«EUSKALDUNOK
EUSKARA EZ DUGULA
MAITE PENSATZEN
DUT AUNITZETAN»



EZPALA

AITOR AROTZEN A LBIZU

Bikote-mikote

«Biltzen garen joaldun kopurua bakoitia denean, ez dugu inoiz esaten bat soberan denik, bat falta dugula baizik. Eta handik edo hemendik, beti norbait agertzen da bikotea osatzeko». Zubietako inauterietan hartazain aritzen den Goikoetxe Tomas Ibarren solasak dira. Ba al da inauterietako giroa ez ezik, elkartasuna adierazteko laburpen hoberik?

NABARMENTZEKOAK



GARAZI CONDE
ORUBE
LESAKA



CANDIDA MITXELENA
JORAJURIA
SUNBILLA

Aurten lehenbiziko aldiz egin dute Lesakako inauteriak iragartzeko kartel lehiaketa eta Garazi Conde Orunbe lesakar gaztearen lana izan da herritarrek boto bidez aukeratu dutena.

Joan den ilbeltzaren 13an 100 urte bete zituen sortzez Izaldekobordan jaio baina 13 urte zituenetik Galtxenbordaran bizi den Candida Mitxelena Jorajuria sunbildarrak.

ATZERA BEGIRA



2010-02-04 · TTIPI-TTAPA · 511 zk.

Iker Mariezkurrena Sunbillako arraunlaria

2009an hasi zen arraunean Iker Mariezkurrena sunbildarra, Hondarribiko taldean, eta horren aitzakian elkarrizketatu zen TTIPI-TTAPAK duela hamar urte. Orioko lagun batek animatuta hasi omen zen eta «probatu eta gustatu» egin zitzaion, «engan-txatuta» gelditzeraino: «Uste baino kirol gogorragoa da baina polita da». Eguneroko entrenamenduez eta elikadura zaintzearen garrantziaz ere mintzatu zen elkarrizketan: «burdina igotzeko bitamina aunitz ematen dizkigute». Ez hori bakarrik. «Bestazalea» izanagatik besta alde batera utzi behar izan zuela kontatu zuen, baina «gustura» zegoela zioen. Horren seinale, hamar urte beranduago, Hondarribiko arraun talde nagusian sigitzen du eta emaitzak bikainak lortuz, gainera.

ttipi-ttapa

erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Pablo Irastortza, Mattin Larralde,
Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz,
Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Aranxa Iturralde,
Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier
Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione
Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdioko Akelarre elkarte

2020ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 39€
eta Malerreka 28€
Leitza 28€
Hego Euskal Herria 47€
Ipar Euskal Herria, Europa 86€
Amerika eta Australia 139€

Nafarroako
Gobernua Gobierno
de Navarra

mecna

BAZTANGO
EUSKARA
ZERBITZUA

BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNITATEA

Malerrekako
Mankomunitatea

CC BY SA



KOLABORAZIOAK

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

Bihurguneen izenak

Hamar bat urte nituela istripua izan genuen N121A errepidean. Kamioi bati olioia isuri zitzaioala eta kontrola galdu zuen familiako bortzok eramaten gintuen autoak, eta mendiaren aurka jo genuen, zuzen. Autoak, orduan, buelta osoa eman zuen, eta segurtasun uhaletatik zintzilik gelditu ginen buruz beheiti, panpinen gisara, errepidearen erdian. Zorionez —edo beharbada mirariz erran beharko nuke—, gutako inori ez zitzaion deus gertatu: gerrikoak askatu, gibelego leihoetatik atera eta susto ederra eta kristal puska batzuk baino ez zitzaizkigun gelditu azalean. Zoritzarrez, ordea, kilometro batzuk aitzinerago bertze istripu bat gertatu zen. Eta ez zuten denek zorte bera izan: hainbat lagun zauritu eta Lesakako gazte bat hil zen kolpearen ondorioz.

Ordutik haren izena paratua diot haien istripua gertatu zeneko bihurguneari, eta tentsioz kontzen dut bolantea hortik pasatzen naizen aldiro —hots, egunero—: seinaleek eskatzen dutena baino anitzez mantsoago noa, badaezpada; eta bihotza estu.

Ordutik hobetu eta zabaldu dute errepidea, baina egoera ez da horrenbertze aldatu: bertze bihurgune batzuek ere badituzte orain nigan izenak; Igantziko neska gazte batena, adibidez, batek, duela sei urtez geroztik. Eta, azken hilabe-

«**ARAZOARI IKUSPEGI ZABALAGO BATETIK BEGIRATU BEHARKO GENIOKE**»

teotan, Igantziko eta Arantzako gazteenak ere gutako anitzen gogoan iltzatuak egonen dira errepidera ateratzen garen aldiro. Halako tragediak gertatzen diren bakoitzean ateratzen da gure eskualdea prentsan —inauteri edo bertzerengatik ez bada, kasu guti egiten digutelakoan nago—, eta errepikatu egiten dira errepidearen egoerari eta kamioiei buruzko kexuak. Ados nago. Baina nago ez ote diogun ikuspegi mugatuegiz begiratzen beti gaiari. Bihurguneek hainbertze izen ez bailituzkete izanzen, bai, kamioi gutiago ibiliko balira, edo errepidea hobea balitz. Baina guk egunero segituko genuke bihurgune horietan barrena. Istripu horiek gertatzen baitira, bertzeak bertze —eta baita ere—, eskualde honetako gazte eta herritarrek ez baitugu autoa hartzea bertze erremediorik. Garraio publikoa hutsaren hurrengo delako gure herri ttiki zein handiangoetan: hagitx maiztasun eta lotura gutikoa, eta, beraz, batere ez praktikoa lanera edota ikastera joateko. Bertze erremediorik ez dugu, eskualdean lan egiten eta ikasten gelditzeko aukerak ere hagitx urriak ditugulako: zenbat gazte gaude eskualdetik kanpora lanean edo ikasten?

Nago, beraz —eta errepidearen egoerari eta trafikoari duten larritasunik kendu gabe—, ez ote geniokeen arazoari ikuspegi zabalago batetik begiratu beharko. Iruñean ez dezaten gure berri izan heriotza lazgarri bat gertatzen denean bakarrik; eta, are, bihurguneek ez dezaten gehiago gure herritarren izenik izan.



JOSEBA URROTZ TELLETXEA

Progresismoa badugu

Espainiako Gobernu berria progresista omen dugu. Nire inguruan hainbat lagun poztu ere egin direla ikusi dut, eta harritu egin naiz, niri ez baitzait deus ere axola. Hogei edo hogeita hamar urterekin politikarekin gizartea hobetu daitekeela sinestea normala deritzot, baina 50 urterekin, nik uste dut nahiko asti izan dugula gauzak nola diren ikusteko. Errate baterako, ez al zarete oroitzen PSOE izan zela GAL sortu zuena? Eta PSNk zenbateko kaka egin zuen Nafarroan?

Ez dakit begiak ireki zaizkidan edo nihilismoak irentsi nauen, baina politika antzerki bat bezala ikusten dut gaur egun. Zer dira ba Madrilgo kongresuan ikusten ditugun solas, oihi, irri eta lo kuluxka horiek, antzerkia ez bada? Oholtza gainean inoiz lanik egin ez duten, baina (nire gisa), solasean bai indarra duten gizaseme eta emakume talde bat iduritzen zait. Pedro fidatzeko modukoa iduritzen al zaizue? Eta Pablo? Nik itxurazaleak ikusten ditut hor, kea saltzen duten elezuak. Zaude... Pedro eta Pablo ziren ba Jesukristoren ikasle garrantzitsuak! Bo, baita Pikapedrak ere...

Nik lehen nire burua progresistatzat nuen, eta uste nuen hori zela bide ona, bertzea, kontserbadore izatea berriz, ezjakina eta okertua izatea. Ezkertiara izatea ona, eta

«**LEHEN ELIZAREN BELDUR ETA ORAIN POLITIKOKI EZEGOKIA IZATEAREN BELDUR**»

errate baterako gauzak ez direla hain garbi eta erraz banatzen ona eta txarraren artean.

Aritu naiz ikasi nahizik zergatik erraten den ezkerria eta eskuina, progresismoa eta liberalismoa zer ote diren, eta egia erran, ez da batere erraza ulertzea. Hemen hasiko banintz idazten, aldizkari guzia eskas nuke.

Frantziar iraultzaren ondotik hasi omen zen eskuin eta ezker horren banaketa. Erregearen ezkerrean jarri omen ziren bera gainetik egotea onartzen ez zutenak, eta eskuinean, berriz, onartzen zutenak. Ulerkorra da orduan, uste izatea ezkerrek norbanakoaren askatasuna aldarrikatuko duela gauza guzuen gainetik, baina hara non, ematen du ezkerria dela preseski dena kontrolatuko duen estatu indartsu baten beharra gehien aldarrikatzen duena.

Azken boladan saltsa poliki bada, gobernuak eskoletan zer erakutsi behar den erran duenarekin...

Baina isilduko naiz, gero eta maizago entzuten baitut, «kasu eman ezak zer erraten duken».

Lehen elizaren beldur ziren gure gurasoak; orain, berriz, hura baztertu dugunean, kasu «politikoki desegokia» izatearekin.

11 GALDERA LABUR

EIDER BIDEGAIN ZUBELDIA ARIZKUN

«Inauterietako bizitasuna egunerokoan izan beharko genuke»

Nor da Eider Bidegain?

21 urte dituen Arizkungo gazte marisaltsera.

Zer egiten duzu egunerokoan?

Astegunez goizetan haur bat zaintzen dut, arratsaldetan, berriz, soziologia ikasten ari naiz.

Eta denbora librean?

Lagunekin planak egitea gusatzaten zait, bereziki, kontzertuak ikustera joatea. Tarteka besta egitea ere gustuko dut, nahiko bestazalea naiz.

Laster inauteriak dituzu... Nola bizi dituzu egun horiek?

Ilusio handiz. Data ailegatzear delarik, urduritasunasumatzen dut... 18 urtetik goitiko guztiak baserriz baserri eta etxe etxe ibiltzen gara, taldeka eta denak berdin jantzita. Ilunabarrean

denak herrian elkartzen gara, elkartean afaldu eta besta egiteko.

Egunez edo gauez gozatzen duzu gehiago?

Inauterietan eguneko besta nahiago izaten dut, polita da lagunekin etxez etxe ibiltzea. Batetik bertzera oinez goazela kantari eta dantzan... giro ederra sortzen dugu.

Zein da inauterietako momentu bereziena?

Bi aukeratuko nituzke. Batetik, igandean eskean hasi aitzinekoa, dugun gogo eta urduritasunagatik eta, bertzetik, astearteko desfilean hartza ateratzen den momentua, denak esperoan egoten garelako.

Oroitzapen politena noizkoa duzu?



Eskean hasi nintzen urtekoa akaso. Igande hura berezia izan zen, kuadrilla osoa auzo batera joan ginen eta sortu genuen giroa arras polita izan zen...

Nolako giroa izaten da herrian?

Herritarrak karrikara atera eta herriari, plazari, bizitasuna ematen diogu... Lagun guztiak elkartu eta elkarrekin bestaz gozatzen dugu. Biltzeko aitzakia dira inauteriak eta hori arras polita da.

Zer du Arizkunek bertze herriek ez dutena?

Txoko polit anitz ditu... Bat aukeratu beharko banu Lamiarrita.

Eta falta?

Egunerokoan bizitasun gehiago izatea.

Amets bat?

Milaka ditut, bat erratekotan nire furgoneta izan eta munduan barrena bidaiatzea, bertze hizkuntza batzuk, kulturak, pertsonak... ezagutuz.

Merkealdia
Funda nordiko eta edredoietan espezialistak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Manttaleri eskertza

NAGORE ARRETXEKA OIARTZABAL

BORTZIRIETAKO GUZTIOK ELKARTEA

Aurtegoan ere Manttale Taldeak urtarri-laren 11n, Beran Mendi Eguna antolatu zuen. Ekintzaz beteriko egun polit bat izan zen, non herritarrez gain zonaldeko jendea ere hurbildu zen. Aitzineko urteetan bezala, Manttale taldeak Guztiok elkarteari pertsonalki gonbitea luzatu zigun eta guk, nola ez, gonbiteari baiezkoa erran genion.

Guztiok taldeko ume aunitzek behar bereziak edota desgaitasunak dituzte. Egunerokoan laguntza behar izaten dute eta horrelako ekintzetan... zer erran!!

Egia erran behar badugu, zorionekoak gara Beran Manttale taldea izateaz. Urtean behin, ekintza inklusiboak antolatzen baitituzte eta Guztiok elkarteko umeek, bertzeak bezala, gozatzeko aukera izaten dute. Zoritxarrez, urte guztian zehar ekintza gutti izaten dira, non ume hauek parte hartu dezaketen.

Poliki-poliki, inklusioa lortzen ari da eta gauzak hobetzen ari dira, nahiz eta oraindik lan haundia dagoen egiteko. Kirolak, ekintzak, gizarteak, munduak... denontzako izan beharko lukeelako.

Mila esker Manttale taldea.

BOTA BERTSOA

ANE INTXAUSTI LASARTE

LEITZAKO BERTSOLARIA

Azterketa garaia

Doinua: Motibo bat nigana



*Liburu, apunte ta
entziklopedia,
egunak daramatzat
gelan eseria.
Lau ordura jaitsi zait
loaren media,
kafeak mantentzen nau
esna, alegia.
Ikasle bizitzaren
tragikomeria!*

*Nor noren lehengusu zen,
nor noren oinorde?
Zein gerra ta zein data,
zein jator, zein borde?
Hitzak dira nahastuz
doazen akorde.
Ikasia izan dadin
landuaren orde
jakinduria ezin da
memorian gorde.*

HEMEROTEKA



«Zazpi lagunez osaturiko kooperatiba da Hiritik At. Tokiko garapen komunitarioaren inguruko egitasmoak garatzen ditugu: etxebizitza, espazio publikoa, lana, elikadura eta lurraldea dira jorratzen ditugun eremuak. Egiten dugun orok du eraldaketa helburu».

AINHOA RETEGI ERRANDONEA

BERA | ARGIA. 2020.01.26



«Atentzioa ematen dut zapataria naizela erraten dudana aldiro. Eskemak hausten ditut, zentzu guztietan, gazte bezala, neska bezala... Galtzen ari den zerbait da eta jendeak ez du ulertzen. Nik nahiago dut oinetako pareak erosi 170 eurokoa eta 10-15 urtez oinetako horiekin ikusiko nauzu».

HARRI ARRIURIA JAIMERENA

ELIZONDO | ARGIA. 2020.01.19

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...

Bitxikeriak

Ba al zenekien Zuberoko Doneztebeko eta Nafarroako Doneztebeko herritarrek ez direla berdin izendatzen? **Doneztebarrak gure eskualdekoak dira; doneztebearrak, berriz, Zuberoko Doneztebe herrikoak.**

Solas-zopa

Nola erraten duzue 'azkar' zuen herrietan?

Bilatu hemen hainbat adiera:

AZKAR	T E P B V I E K V P A R I N Z
FITE	J G L J F K O R V G G I U M J
AGUDO	N P A A P X I K Z P U C X J I
LASTER	W J S L U B I F A O D O B G V
ARIN	L P T W H O B I Z K O R V Q U
BIZKOR	H Z E I Z U T T K T M E F S E
	J V R Q A M E E A E H D N W W
	Q Q D A Z D U I R X V G D I H

Zein da zuzena



'Zigatar' ala 'zigar'?
'elgorriagar' ala 'elgorriagatar'?

Zein da zuzena? Honela dio Euskaltzaindiak:

LEKU-IZENA BOKALEZ AMAITUA BALDIN BADA:

Leku-izenaren amaiera	Atzikiaren aldaera	Adibideak
A (leku-izena silababakarra edo bi silabakoa bada)	-tar	Ziga>zigatar, Bera>beratar...
A (leku-izenak bi silaba baino gehiago baldin baditu)	-ar	Elgorriaga>elgorriagar, Irurita>iruritar, Zubieta>zubietar, Ezkurra>ezkurrar, Lesaka>lesakar...
I, O, U	-ar	Oronoz-Mugairi>oronoz-mugairiar, Oieregi>oieregiar, Arano>aranoar, Igantzi>igantziar, Elizondo>elizondoar, Erratza>erratziar...

LEKU-IZENA KONTSONANTEZ AMAITUA BALDIN BADA:

Leku-izenaren amaiera	Atzikiaren aldaera	Adibideak
L, M, N	-dar	Ituren>iturendar, Gartzain>gartzaindar, Eratsun>eratsundar, Arizkun>arizkundar, Beintza-Labaien>beintza-labaiendar...
F, G, J, P, Q, R, S, X, Z	-tar	Almandoz>almandoztar, Aniz>aniztar, Oiz>oiztar, Arraioz>arraioztar, Etxalar>etxalartar, Urroz>urroztar, Lekaroz>lekaroztar, Saldias>saldiaztar, ...

Hortaz, hasierako adibidera bueltatuz, **ZIGATAR** eta **ELGORRIAGAR** dira zuzenak.

Nola erran?

'Ilea hartu' esapidea zuzena al da?


Horixe galdetu digu irakurle batek. EZ, EZ DA EGOKIA.


Espainolezko esapide bat da eta ez du inolako tradizioz euskaraz.

Euskal kideak hauek dira:

adarra jo, harpa jo, txantxetan/brometan ari izan...

Zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...
Esku zabalik hartuko dugu zure ekarpena.

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

Kalko ustelak

***GAIZKI JOKATZEN DAGO.**



GAIZKI JOKATZEN ARI DA.



Gaztelaniaren eraginez, gero eta gehiago zabalitzen ari da 'egon' aditza. Baina erabat bereiztekoak dira 'egon' eta 'ari izan/ibili/jardun'. 'Egon' estatikoa-edo da; 'ari izan/ibili/jardun', berriz, zerbait dinamikoa. Hortaz, kontrastesankorra da mugimendua eskatzen duen ekintza 'egon' aditzarekin adieraztea. Kasu honetan, beraz, **>Gaizki jokutzen ari da** behar luke. Gisa berean, hala moduzkoa da 'lanean dago' esapidea ere; egokiagoak dira 'lanean da' edo 'lantokian dago'; 'lanean ari da' edo 'lanean dabil/dihardu'.

FALTAN BOTATZEN ZAITUT.



ZURE FALTA SUMATZEN DUT.



'Bota' aditzarekin kalko semantiko desegokiak egiten dira maiz, eta horietako bat da 'faltan bota' esapidea, gaztelaniazko 'echar en falta'-tik bere horretan itzulia. Hainbat aukera daude 'faltan bota' horrekin erran nahi dena euskaraz modu egokian adierazteko: **>zure falta sumatzen dut; zure hutsunea sumatzen dut.**



Sortez hondarriarra baina sentimenduz baztandarra da Kattalin Ezkerra Sobrino, eta lanbidez hezitzailea.

«Administrazioek ez dute inklusioaren aldeko jarrera argirik»

KATTALIN EZKERRA SOBRINO BEHAR BEREZIKO IKASLEEN HEZITZAILEA

Ikasketak akitu zituenetik behar bereziko hurrekin hezitzaile gisa lan egiten du Ezkerrak eskola publikoetan. Benetako inklusioa lortzeko hezkuntza sistema tradizionala aldatu behar dela dio

G. PIKABEA ELIZONDO

Ahoz aho dabil hezkuntza inklusiboaren gaia. Eztabaidarako iturri da anitzendako, kezka iturri berteendako eta gaia arrotza egiten zaionik ere bada. Administrazioak hezkuntzan inklusioa helburu duela dio, eta hezkuntza komunitateko kideek ere hala izan behar duela erraten dute. Kattalin Ezkerra Sobrino hezitzaileak, ordea, argi du ikasketxeetan ez dagoela inklusioa bermatua. Are gehiago, 12 urtez hezkuntza publikoan behar bereziko hurrekin hezitzaile gisa lan eginez, «irakasle anitzek inklusioan gehiago sinetsi beharko luketela» ondorioztatu du.

Nolakoa da hezitzaileen lana?

Behar bereziak dituzten ikasleek autonomia lortzeko lan egiten dugu. Normalean, ikasgela arruntetan aritzen gara, tutorearekin elkarlanean, eta bertze zenbaitetan behar bereziak dituzten ikasleentzat bakarrik diren gela egonkorretan. Batez ere, autonomia pertsonalean eta sozialean jartzen dugu arreta, ikasle horiei laguntza eskainiz: curriculumerako sarrera ahalbidetzen pasatzen dugu denbora gehien, baina horrez gain, komunera joateko edo jangelan bazkaltzeko laguntza eskaintzen diegu, lagunuen arteko hartu-emanak sustatzen dugu... Garun paralisia, Down

sindromea, autismoa, gaixotasun arraroak, ezintasan fisikoak, garapenean nahasteak... Beharra edozein dela ere, gela barrenean ikasle horien inklusioa bermatzea da gure helburua. EAEko kasuan, 80ko hamarkadan Eusko Jaurlaritzak, lege bidez, haur guztiei eskolaratze prozesu arrunta edukitzeko eskubidea onartu zientean sortu zen gerora gure figura izan dena, ordura arte

«BEHAR BEREZIKO IKASLEEKIN SEGREGAZIORAKO JOERA DAGO»

zentro berezietan zeuden ikasleak eskoletara joaten hasi zirenean. Hasmentan, batez ere arreta soziosanitarioa eskaintzearekin lotua zegoen gure lana; gaur egun, berriz, ikasleen autonomia lantzea da helburua. Behar berezia izateak ez du erran nahi ikasle horrek behar bereziak dituenik eskolako egoera guztietan. Batzuetan laguntza berezia beharko du eta berzteetan ez.

Aniztasun funtzionala duten ikasleek hezkuntza sistemarekin kritiko agertu izan zara...

Bai, segregaziorako joera sumatzen delako. Gero eta gela egonkor gehiago irekitzen ari dira eta irakasleen artean maiz aditzen dira 'ikasle honek hemen ez du deus ere egiten eta hobeki egonen litzateke bertze nonbait' bezalako solasak. Irakasleen artean nolabaiteko ezintasuna nabari da, ezjakintasunetik abiatzen dena, eta aniztasun funtzionala dutenek segregaziorako bidea hartzen dute. Egia da ikasle batzuk gela egonkorretan erosoago daudela, baina hezkuntza sistemak alderdi guztietatik inklusioa izan beharko luke. Jatorriaren arabera segregaziorik ez genuke beharko, ezta aniztasun funtzionalaren arabera ere. Horrek lanketa sakona eskatzen du.

Nolakoa behar luke hezkuntza sistemak?

Eskolek eskumen gehiago behar dituzte; administrazioak behar adina baliabide eman beharko lizkieke eskolei eta langileek formakuntza behar dutelakoan nago. Praktika berritzaileak behar dira, lanerako gogoa, eta egiten denean sinetsi. Gelak irekiagoak behar lukete, mugimendua eta elkarrekintza ahalbidetzen dutenak, bakoitzaren ahalmenetara egokitu-takoak eta bakoitzaren erritimoa errespetatzen dutenak. Ikasle guztiak irakasleari begira jarri eta irakaslearen azalpenak adituz eskolak emateko formatu hori ez da ikasle guztientzat egokia. Eta benetan inklu-

sioan sinesten badugu, dena aldatu behar da. Gaian interesa duten irakasleek pedagogia berritzaileekiko apustua egiten dutenean, behar bereziko ikasleak ere anitzez hobeki moldatzen dira. Hori, gaur egun, irakaslearen edo eskolaren borondatearen arabera koa da baino ez da, sistemak ez du hori bultzatzen.

Hortaz, ohiko ikasteko formatua ez zaizu egokia iruditzen...

Ez. Solas egiteko gaitasuna, geldirik eta isilik egotekoa eta paper gainean lan egitekoa. Horiek dira ikasleei eskatzen zaizkienak, eta horietakoren batean huts egiten badu, gela egonkorrera bideratuko dute. Lotsagarria iruditzen zait. Kontua ez da ikasleak ez duela gaitasunik zerbait barneratzeko, baizik eta bide arruntetik ez duela barneratzen.

Nola erabakitzen da ikasle batek laguntza behar duen ala ez eta zenbateko laguntza behar duen?

Azken hitza aplikazio informatibo baten esku dago. Ikasle batek gelako ohiko martxari segitzen ez diola eta arreta deitzen badu, lehenbizi eskolan behaketa bat egiten diote. Gero, EAEko kasuan bederen, Berritzeguneko aholkulariak jaso duen informazioaren arabera balorazio bat egiten du eta horren baitan informazio guztia aplikazio informatiko batean sartzen du. Aplikazio horrek erabakitzen du ikasle bakoitzari zenbateko laguntza esleituko zaion.

Eta gurasoen papera zein da?

Gurasoak ez daude behar bezala informatuak. Eskolak nahiko itxiak dira, hartu-eman guti dute gurasoekin eta hauek ez dute jakiten hezitzaileok seme-alabekin zenbat orduz aritzen garen lanean edo PTak zenbat orduz ikusten duen... Nolakoa laguntza edukiko duen erraten zaie baina denboraren berririk edo informazio zehatzik ez dute, eskolak berak tokatu zaizkion baliabideak bere beharren arabera banatu ditzakeelako, eta agian bati zegozkion orduetako batzuk

12 urte behar bereziko ikasleekin lanean

Hondarribian (Gipuzkoa) sortua da Kattalin Ezkerra Sobrino, 1985ean, baina erroak Baztanen finkatuak ditu, «Hondarribian sortutako baztandarra» sentitzeraino. Ttikitatik izan du lotura Baztanekin, «ama, amatxi...» elizondoarrak izaki, haurra zenetik ibili baita hor: «haurretatik Elizondon izan dut kuadrilla». Gaur egun Elizondo aukeratu du bizileku eta «Baztango saltsetan erabat sartua» dagoela dio.

Lanbidez hezitzailea da. Oinarrizko ikasketak eta Batxilergoa sorterrian egin ondotik, Zientzia Politikoak ikastea izan zen bere hasmentako erabakia eta helburu horrekin joan zen Bilbora. «Urtebete probatu» ondotik, ordea, utzi eta «eraldaketa sozialari lotuta» zerbait ikastearen aldeko apustua egin zuen: «Gizarte



Kattalin Ezkerrak Gizarte Inklusioa ikasi zuen.

Integrazioa ikastea erabaki nuen». Zer ikasi «batere argi ez» zuen arren, bi urteko Goi Mailako Zikloa egin zuen. Ikasketak akitu orduko Zallako (Bizkaia) eskola batean hezitzaile gisa aritzeko aukera sortu zitzaion, eta halaxe eman zuen pausoa, «lanpostua zer zen ongi ezagutu gabe». Kontatu digunez, ikasten ari zenean, «kolektiborik gustu-

koenak kartzela eta etorkinak» zituen, eta behar bereziak dituzten ikasleengana «bilatu gabe» ailegatu omen zen. Hasi bazen hasi, 12 urte pasatu dira hezkuntza publikoan hezitzaile gisa ari denetik eta ez da damutu: «behin bertan egonda, gustuko nuela konturatu nintzen, eta nire izaerarekin eta gaitasunekin bat zetorrela».

bertze ikasle bati ematea erabaki duelako. Gurasoekin harreman gehiago izanen bagenu, ikaslearen prozesuaren inguruko informazio anitz lortuko genuke. Nire kasuan, ikasle batekin lanean hasten naizenean, informazioa garatzeko beretzat baliagarri diren bideak zein diren konturatu arte hiruzpalau hilabete pasatu ditzaket eta oraindik ere ez dut ongi ezagutuko. Gurasoekin maizago solas egin eta eskolara gehiago sartzen utziko bagenie, segur aski emaitzak hobek izanen lirateke.

Zein baldintzatan ari zarete hezitzaileak?

Lanez gainezka, gero eta ikasle gehiagorekin, eta egonkortasunik gabe. 12 urte darama-

tzat lanean, eta iaz egonkortu nintzen eskola batean, baina oposizioak egin arte. Horrek erran nahi du 12 urteotan hainbat eskolatan ibili naizela, ikasle pila eduki ditudala, baina ez dudala ikasleak sakonki ezagutzeko aukerarik izan. Horrek ez du kalitateko hezkuntza bermatzen. Ikasle baten garapenean bera ezagutzea garrantzitsua da eta daukagun sistema honetan egonkortasuna ez da existitzen.

Bada Hezkuntza inklusiborik?

Ez, eta gainera, administrazioek ez dute inklusioaren aldeko jarrera argirik. Zaila ere bada, 20 ikasleko talde batean, zailtasunak dituzten ikasle batzuk baldin badira eta gainera behar bereziko ikasleren bat ere bal-

din badago, irakasleak ezin du behar bereziko ikasleaz behar bezala arduratu.

Behar bereziko ikasleak baztertuak direla erranen zenuke?

Bai, eta hori jendartean ere nabari da. Aniztasun funtzionala dutenek gizartean duten tokiaren isla da hezkuntza.

Zergatik ez da behar adina laguntza eskaintzen?

Garesti ateratzen delako. Kalitateko hezkuntza ez da merkea, eta administrazioak dirua aurrezteko laguntzak kentzen ditu. Kalitateko hezkuntza edozein ikasleren mesederako izanen litzateke, behar bereziak izan ala ez, jakintza norbere aurkikuntzetatik edo bizipenetatik sortzen delako. Ez hori bakarrik. Taldean behar bereziko ikasle bat izanda, ingurukoek anitzez gehiago ikasiko lukete zer den aniztasuna eta jendarte berdinzale batean murgilduko ginateteke. Oraingoz, berdintasun hori lortzetik urrutitu gaude, baina bidea egiten ari gara.

«OHIKO IKASTEKO FORMATUAK EZ DU BALIO IKASLE GUZTIENDAKO»

«ADMINISTRAZIOAK DIRUA MURRIZTEKO LAGUNTZAK KENTZEN DITU»

Gaztetzeko gakoa bizitzeko ilusioa

Norberaren beharrei erantzuteko, zaletasunei tarte egiteko eta gaitasunak garatzeko, gero eta gehiago dira jubilotekatarra joaten diren herritarrak. Gaur egun eskualdeko 139 erabiltzaileentzat «gozamen iturri eta ilusio eragile» da zerbitzua

N. BAZTERRIKA

2008an «ezintasunak zituztenei bitartekoak eskaintzeko eta haien familiakoek atsedean hartu ahal izateko» ireki zituzten lehendabiziko jubilotekak Beran eta Lesakan. Ramoni Ordokik, orduko arduradunak, kontatu digunez, «eskaintzen zituzten dirulaguntzak baliatuz» abiatu zuten egitasmoa. Hasiera hartan «urritik abendura» biltzen ziren. Iraupen aldetik murrizta eta erabiltzaile profilarri zegoakionez mugatua zen zerbitzua eta gisakoa izan zen erantzuna: «behar bereziko erabiltzaile gutxi bertaratu zen».

Ikusiak ikusi, «65 urtetik goitikoei ere» aukera eskaintzea erabaki zuten. Hasiera ez zen erraza izan Lesakan: «ez zuen funtzionatu». Bertzelakoa izan zen Beran: «berehala talde kohesionatua sortu zen». Hor-taz, «fokua» bertan paratzea erabaki zuten: «Lesakakoa utzi eta Berakoan zentratu ginen». Udalaren laguntza sustengu, eskaintza ikasturte osora zabaldu zuten, «udan bakarrik itxiz».

Azken hamarkadan hedatze handia

2014an, Urdazubin, Erratzun eta Arizkun «adineko herritarren eta, bereziki, baserri-tarren artean sumatzen zuten bakardadeari aitzin egiteko» modua ikusita, bide beretik jo zuten. 2015ean, berriz ere, Lesakan saiatzea erabaki eta martxan paratzea lortu zuten. 2017an, berriz, Malerrekan ireki zuten. Pixkan-pixkan zerbitzua eskualde osora hel-

datzea lortu dute. 2018an Elizondon ireki zuten eta urte berean hasi ziren Mendialdean, «adinekoak dezente izaki, eskaintzen zaien etxez etxeko laguntza zerbitzua murrizta zela eta beharra bazela» iriz-tita.

14 herritan 139 erabiltzaile

Gaur egun, 139 erabiltzaile dituzte Gizarte Zerbitzuek Malerrekan, Bortzirietan eta Mendialdean eta Harremana elkarteak Baztanen, Urdazubin eta Zugarramurdin eskaintzen dituzten tailerretan. 65 urtetik



Leitzako jubilotekako kideak margotzen. O. SALABERRIA

Jubilotekatako erabiltzaile kopurua

Herria	65 urtetik goitikoak	Jubilotekan
Arano	33	4
Areso	66	2
Arizkun	136	8
Bera	780	20
Doneztebe	302	4
Elizondo	782	12
Erratzu	123	6
Ezkurra	58	19
Leitza	742	11
Lesaka	640	13
Goizueta	202	8
Urdazubi	83	14
Sunbilla	179	11
Zubieta	63	7
Guztira	4.189	139

goitiko herritarrak dira gehienak, adin horretako biztanleriaren %3,3. Dena den, gutxi batzuk «gazteagoak edo behar bereziak dituztenak» dira.

Edurne Garro (Beran, Lesakan eta Elizondon), Amaia Iriondo (Arizkun, Erratzun eta Urdazubin), Olaia Salaberria (Areson, Aranon, Goizuetan eta Leitza) eta Ramoni Ordokiren (Donezteben, Sunbillan, Zubietan eta Ezkurran) gidaritzapean biltzen dira.

Astean egun bat, bi edo hiru

Batzuek astean behin izaten dute hitzordua: astelehenetan Leitza (10:00-13:00); asteartetan Goizuetan (10:00-13:00), Zubietan (16:00etatik 18:30era), eta Arizkun (16:00-19:00); asteazkenetan Areson (10:00-13:00) eta Elizondon (16:00-19:00); eta ortzegunetan Aranon (10:00-13:00) eta Erratzun (16:00-19:00).

Urdazubin, Lesakan, Donezteben, Ezkurra eta Sunbillan bi egunez elkartzen dira: Urdazubin astelehen eta asteazkenetan (16:00etatik 19:00etara); Lesakan astearte eta ortzegunetan (10:00etatik 13:00etara); Donezteben astelehen eta ortziraletan (10:00etatik 12:30era); Ezkurra asteazkenetan (10:00etatik 12:30era) eta ortzegunetan (16:00etatik 18:00etara); eta Sunbillan astearte eta ortzegun goizetan (10:00etatik 12:30era).

Beratarrak dira eskaintza zabalena dutenak: astelehen, asteazken eta ortziraletan, 10:00etatik 13:00etara.

«ASKO DUGU ADINEKOENGANDIK IKASTEKO»

OLAIA SALABERRIA

«GAZTAROKO LAGUNEN BILTOKIA DA JUBILOTEKA»


AMAIA IRIONDO

Jubilotekatako parte-hartzaileekin solasean




CRUCIS APEZTEGIA
ZUGARRAMURDI

«Badira 13 urte bakarrik bizi naizela. Inguruan jendea izan badudan arren, gazteak dira eta euren martxa dute... Adinean goiti noa, 81 urte ditut eta ongi egoteko mugitzaia komeni da. Talde polita gara eta gustura gabilta. Gainera, etxeraino etortzen zaizkigu bila...».




PILAR ANTONENA
ELIZONDO

«Jubiloteka familia ttipi bat da guretako. Aste osoan ttipiak zaintzen etxean egoten naiz. Aitzakia honekin, ateratzeko, lagunekin biltzeko eta ikasteko aukera izaten dut. Estimatzekoa da eskaintzen duten zerbitzua».



Mª CRUZ PLAZA
URDAZUBI

«Jubilotekako kideak lagunak gara. Astean bitan elkarrekin egon bitartean, tertulia, gimnasia, eskulanak eta bertzelako jolasak egiten ditugu. Horrez gain, paella jatea eta eskolako haurrekin topaketa ere egin izan dugu. Ez dugu asperetzeko tarterik izaten».



FRANTXIKKA IRIARTE
SUNBILLA

«Hagitx kontent joaten naiz jubilotekara, gure artean harreman ona dugu eta ongi pasatzen dugu. Ariketak egin ondotik, gustukoak ditugun gauzetan aritzeko aukera izaten dugu eta horri eustea inportantea dela uste dut».



JABIER BIURRARENA
BERA

«Baserritik herrira bizitzera etorri ginenean lagunak elkar animatu eta izena eman nuen, 2011n. Ez nekien zer zen jubiloteka, egundaino horrela ibili gabeak ginen... Probatu eta gustatu egin zitzaigun. Hasiera hartan 10 lagun ginen, orain 20 gara».




JOXE ZABALETA
EZKURRA

«Jubilotekan hasi artean herrian ez genuen elkartzeko ohiturarik. Orain 20 bat biltzen biltzen gara, herrikoek gain Eratsungoak ere etortzen dira eta... Asteazkena ailegatzeko esperoan egoten gara, parre batzuk egiteko».



MERTXE SAGARAZU
LESAKA

«Orain bi urte etorri ginen Lesakara. Senarra hil zitzaidan eta bakarrik gelditu nintzenez seme-alabek animatu ninduten izena ematera. Jubilotekak herrian lagunak egiten lagundu dit. Jubilotekatik kanpo ere asteartero taldetxo bat elkartzen gara».



TERESA TELLETXEA
ARESO

«Orain bi urte hasi nintzen jubilotekan eta oso gustura joaten naiz. Memoria landu eta eskolan ikasitakoa freskatu bitartean oso ongi pasatzen dugu. Bi bakarrik joaten gara... Jendeak lanak utzi eta probatzera etorri behar luke».

Ezagutarazi, egonkortu, zabaldu

Eskariak baldintzatua da eskaintza, eta horretarako zerbitzua ezagutarazi, egonkortu eta hedatzea ezinbertzekoa dela aipatu dute koordinatzaileek. Mendialdean, oraindik bigarren ikasturtea izaki, «ezagutarazte prozesuan» daudela adierazi du Salaberriak: «zer den jakitea eta pausoa ematea da zailena eta horretan ari

gara, bertaratzeko eta probatzeko aukera emanez eta horretara animatuz».

Bortzirietan, dagoeneko, zerbitzua ezaguna dela dio Garrok. Gehiago ere bada: «egiten ditugun ekintzen garrantziaz jabetu dira». Horri esker, zabaltea lortu dute: «2015ean berriz ere Lesakan hastea lortu genuen eta orain dela bi urte Arantzako biztanleei Berara bertaratzeko au-

kerak eskaintzen hasi ginen». Hedatze lan horretan «boluntarioek zererran handia» izan dutela adierazi du: «garraioaz arduratzen dira eta ezinbertzekoa dugu horien lana».

Ez dira Bortzirietakoak joan-etorria errazten duten bakarrik. Iriondok ere ongi ikasia du erabiltzaileen etxeetatik jubilotekarako bidea: «oren bat lehenago furgoneta hartu eta etxex etxe jendea biltzen

hasten naiz. Hala, erabiltzaileek ez dute familiakoren bat mugiarazteko beharrik».

Erabiltzaile kopuruak goiti

Erraztasunak eskaintzeaz gain, «medikuarekin eta Gizarte Zerbitzuarekin» elkarlanean aritzeak ere eragin handia izan du Harremana elkarteak kudeatzen dituen jubilotekatako parte-hartze kopuruan. Horri guztiari esker, Urdazubin ia

hirukoiztu egin da erabiltzaile kopurua: «hasmentan bortz ginen eta orain 14 gara».

Goranzko joera hori islatzen dute Malerrekako datuek: «Sunbillan zortzi ginen lehen, 11 orain; Zubietan bortzetik zazpira pasatu gara» dio Ordokik. Txanponaren bi aldeak adierazten dituzten herriak dira Doneztebe eta Ezkurra: «Donezteben, handiagoa izanik, erabiltzaile gehiago izatea espero genuen. Errealitatea, ordea, gutziz bertzelakoa da. Bortz lagunekin hasi ginen eta lau erabiltzaile daude egun. Are gehiago, lau horietatik hiru Narbartetik etortzen dira». Ezkurran zortzi ziren hasieran eta 19 dira orain. Zergatia jakitea zail gertatuagatik, «herri txikiagoetan indar handiagoa» duela adierazi digu arduradunak: «orain Doneztebeko kasua aztertzen ari gara, hobetzeko zerbait egin dezakegun edo herriz aldatu behar dugun jakiteko». Ateak ixten direnean zail da berriz irekitzea eta hori saihestu nahi dute.

Burua landu, gorputza astindu

Talde handiangoan batzuk, txikiangoan bertzeak, jomuga bakarra da guztientzat: «ongizate fisikoa eta emozionala bermatzea». Horretarako, burua eta gorputza lantzeko jarduerak egiten dituzte guztiak: solasaldiak, psikomotrizitate jarduerak edo kognitiboak, arreta eta memoria lantzekoak...». Abiapuntua bera da guztientzat, baina programazioa «malgua, zale-

tasunen arabera egokitzeko modukoa» delagaineratu dute.

Ekintza osagarriak

Egunerokotasunetik ateratzeko, ekintza osagarriak ere egiten dituzte. Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdikoeak «bertzeak bertze, antzerkiak, paela zein txokolate jateak» dituzte gozamen iturri, «eta horietan jubilotekakoak ez direnek ere parte hartu ohi dute».

Bortzirietan «gero eta ekintza gehiago» antolatzen ari dira: «sukaldaritza tailerrak, musikoterapia, belaunaldien arteko lanketak...». Malerrekako bertzelako lanketak egin dituzte: «Beraien kantak eta jolasak bilduz liburuxka bat egin dugu. Euren bizipenei presentzia ematea ere garrantzitsu delako». Horrez gain, Ezkurran eta Zubietan sorospen ikastaroak egin dituzte eta «lapurretak izan zirenean ebastea saihesteko gomendioak bilduz hitzaldiak egin genituen». Aitzinera begira ere hasiak dira: «oinaze kronikoa lantzea eta ludikoagoa den bertze jardueraren bat egitea darabilgu buruan».

Mendialdekoen «proposamenak aditzeko prest dagoela» dio Salaberriak. Iritsi zaio lehendabizikoa: «Aranoko haurrek, Goizuetan ikasten dutenez, herriko euskara galtzeko kezka adierazi didate. Jubilotekan hori lantzea eta haurrei helaraztea polita izan daitekeela uste dut. Asko dute kontatzeko eta asko dugu haiengandik ikasteko».

Kooperazioa oinarri

Elkarrengandik eta elkarrekin ikasteko tokiak baino gehiago dira jubilotekak. Iriondoren hitzetan «gaztaroko laguntasuna berrartzeko edo harremanak eraikitzeko aukera ematen die guztiei, adinekoei edota behar bereziak dituztenei». Guztiak «kooperazioan» lan egiten dute. Mendialdean, Malerrekako, Leitzaldean eta Bortzietan ere, «taldea» ari-



Urdazubiko jubilotekakoak eskolako haurrekin abenduan egindako topaketan.



Ezkurra eta Eratsungo 19 lagun asteazkenetan eta ostegunetan biltzen dira.



Berako jubilotekako kideak Edurne Garro gizarte-langilearekin. UTZITAKOIA

«ILUSIOZ BIZITZEA DA HELBURU NAGUSIA»

EDURNE GARRO

«BERAIEN BIZITZEI PRESENTZIA EMAN NAHI DIET»

RAMONI ORDOKI

tzen dira, «norberaren gaitasunetatik abiatu eta landuz».

Gustura daudela eta onura handia eragiten duela adierazteko Ordokik erizainek errandakoa ekarri du gogora: «jubilotekan hasi direnetik medikuarenera gero eta gutxiago joaten direla eta joaten direnean, lehen ez bezala,

elkarrekin solasean egoten direla erran izan didate». Are gehiago, «jubiloteka dagoen egunetan ez dute hitzordurik nahi izaten». Zahartzean etxetik atera, lagunekin bildu eta ikasten segitzeak ilusioa bizibizi eusten laguntzen duen seinale dira erabiltzaileen hitzak eta ekintzak.

16 herrik biztanleria galdu dute eta 10 herrik irabazi

Azken hamar urteotako (2009-2019) biztanleria datuak kontuan hartuz, Ttipi-Ttaparen eremuan dauden 27 udalerrietatik 16tan beheiti egin du herritarren kopuruak. Jautsierarik handiena izan dutenen artean daude Ezkurra (% 13,61), Arano (% 13,43), Oiz (% 13,42) eta Beintza-Labaien (% 13,04). Nabarmen goiti egin dutenak, berriz, Senpere (% 11,67) eta Sara (% 10,89)

TTIPI-TTAPA

2009tik 2019ra bitarteko datuei erreparatuz, TTIPI-TTAPAK haritzen duen eremuko 27 udalerrietatik 16tan urritu da bizilagunen kopurua eta batzuetan nabarmen gainera. Ezkurra, Arano, Oiz eta Beintza-Labaiengo kasuak dira aipagarrienak: %13,61, %13,43, %13,42 eta %13,04 egin dute beheiti, hurrenez hurren, duela hamar urtetik honat.

Neurri apalagoan baldin bada ere, bide bera hartua dute eskualdeko bertze herri batzuek: Goizuetan %9,74 jaitsi da biztanleria 2009az geroztik, Eratsunen %8,48 egin du beheiti, Arantzan %6,86, Urdazubin %5,16, Bertizaranan %5,12, Baztan osatzen dute hamabertz herrietako biztanleria %4,31 jaitsi da, Urrozen %4,19 murriztu da, Zubietan %3,81, Lesakan %2,39, Elgorriagan %1,79, Etxalarren %1,22, Areson %0,72 eta Leitzan %0,24.


Ez goiti eta beheiti, berdin mantendu dena Donamaria-ko kasua da: 2009an 433 herritar zituen errolatuak eta 2019 ere kopuru berbera du.

Hamar herritan goiti

Bizilagun kopuruan goiti egin dute gainerako hamar herrien artean Senpere eta Sara dira gehien nabarmentzen direnak, %11,67 eta %10,89 emendatu baitute populazioa, hurrenez hurren. Ondotik daude Doneztebe (%4,80), Ituren (%2,82), Saldias (%2,52), Igantzi (%1,59), Sunbilla (%1,35), Bera (%1,22) eta Zugarramurdi (%0,46). Horietan guztietan egin du goiti biztanleriak.


POPULAZIOAREN BILAKAERA 2009-2019

- ↓ %10 - %15
- ↓ %5 - %10
- ↓ %0 - %5
- ↑ %0 - %5
- ↑ %10 - %15




	2009	2019	
1 Arano	134	116	↓
2 Arantza	641	597	↓
3 Areso	277	279	↑
4 Baztan	8.127	7.777	↓
5 Beintza-Labaien	253	220	↓
6 Bera	3.691	3.736	↑
7 Bertizarana	645	612	↓
8 Donamaria	433	433	=
9 Doneztebe	1.647	1.726	↑
10 Elgorriaga	224	220	↓
11 Eratsun	165	151	↓
12 Etxalar	823	813	↓
13 Ezkurra	169	146	↓
14 Goizuetan	780	704	↓
15 Igantzi	629	639	↑
16 Ituren	497	511	↑
17 Leitzan	2.920	2.913	↓
18 Lesaka	2.808	2.741	↓
19 Oiz	149	129	↓
20 Saldias	119	122	↑
21 Sara	2.286	2.535	↑
22 Senpere	5.251	5.864	↑
23 Sunbilla	666	675	↑
24 Urdazubi	368	349	↓
25 Urroz	191	183	↓
26 Zubietan	315	303	↓
27 Zugarramurdi	218	219	↑
DENETARA	34.426	34.713	↑


DENETARA




BAZTAN




BORTZIRIAK




LEITZALDEA-URUMEALDEA



BERTIZARANA-MALERREKA



XARETA



ITURRIA: www.ine.es | www.gaindegia.eus

SINADURA: Ttipi-Ttapa

27 udalerrietako datuak kontuan hartuz, duela hamar urte baino 287 lagun gehiago bizi dira eskualdean.



Bizipozaren dokumentala aurkezteko erabilitako irudia. Hainbat elkartetako ordezkariak ageri dira bertan. BIZIPOZA

Bizipoza egitasmoa ezagutzera emanen dute Kultur Etxean

Ortziralean 18:00etan kultur etxean 'Gure bizipoza, guztiona' dokumentala eta dokuweba aurkeztuko dute

TTIPI-TTAPA

Gure bizipoza, guztiona dokumentalaren eta dokuwebaren aurkezpen ekitaldia egingen dute otsailaren 7an, ortziralean,

18:00etan kultur etxean. Guztioak eta Bizipoza elkarteek antolatu dute ekitaldia, Udalaren babesarekin. Bizipoza zer den azaltzen duen ema-

naldia izanen da eta egitasmoa osatzen duten bi talderen (Bortzirietako Guztioak eta Biak Bat) dokumental txikiak eskainiko dituzte, baita Bizipoza-rena ere. Estitxu Fernandez eta Anabel Arrazak aurkeztuko dute saioa eta gonbidatu bereziak izanen dira, beraien elkartasun keinua eginez egitasmoari: Gure Txokoa dantza taldea, Julen Zelaieta, Joseba Irazoki eta Petti.

Bizipoza egitasmoa

Irabazi asmorik gabeko egitasmoa da Bizipoza. Izaera

bereziko gaiak lantzen dituzten haur eta familien ongizatea helburu duten elkarteei laguntza afektiboa eta materiala eskaintzea du helburu. Eta, aldi berean, elkarre hauek transmititzen dituzten baloreak jaso, hauekin aberastu eta hezi, eta hauek gizarteratuz herri inklusiboago bat eraikitzen saiatu nahi du.

Momentu honetan Euskal Herrian aritzen diren 35 elkartek osatzen dute Bizipoza (www.bizipoza.eus)

Hainbat ekimen burutzen dituzte urtean zehar baina azkeneko bi urte hauetan proiektu berri bat garatu dute: Dokuweb bat, non edukia elkarten inguruko mikro-dokumental txikiak diren, haur eta familia hauen istorio errealak. Honekin batera, Bizipoza zer den azaltzen duen dokumentala ere zabaltzen ari dira.

Euskal Herri osoan zehar zabalpen lanak egingen dabilta, elkartasuna, auzolana eta bizipoza bezalako baloreak gizarterean euskaraz zabaltzeko. Lehenengo aurkezpenak hiriburuetan egin dituzte eta orain, eskualdeka egingen dituzte ahalik eta hedapen handiena hartu ahal izateko. Horietako bat da Berakoa.

BRANDONEA, s.l.
PRESTAZIEN ERREA BARBASKEAK

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOAK: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

Alberto RETEGI
abokatuak

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA

T. 637 40 86 40 · 31780 BERA
andonimatxak@gmail.com

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

logurak
www.logurak.com

gauko konfort-kuxina

Centro Prim regina tolosaechebare

MARITX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOAK
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK
· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450

Legia, 23 - BERA



Fernando Mikelarena abenduan Iruñean liburua aurkeztu zuenean. DIARIO NOTICIAS

Fernando Mikelarenak bere azken liburua aurkeztuko du

'La (des)memoria de los vencedores' liburuaren berri emanen du otsailaren 6an 19:00etan Beralandetan

TTIPI-TTAPA

Fernando Mikelarena herriko historialari eta idazlearen azken liburua, *La (des)memoria de los vencedores*. Jaime del Burgo, Rafael García Serrano y la Hermandad de Caballeros Voluntarios de la Cruz aurkeztuko du otsailaren 6an, ortzegunean, 19:00etan, Beralandetan. 1936-1937an gerrako irabazleek Nafarroan egin zuten garbiketa politikoari buruz idatzi duen trilogiaren azken alea da, *Sin piedad* eta *Muertes oscuras* liburuen ondorengoa. Pamiela argitaletxeak argitaratu du.

Fernando Mikelarena Peña (Bera, 1962) historian dokto-

rea eta Zaragozako Unibertsitateko irakaslea da.

Bertze kultur hitzorduak

Otsailaren 16an, igandean 18:00etan Kultur Etxean *En tránsito, perdonen las molestias* antzezlan eskainiko du Uhartean antzerki taldeak gaztelaniaz. Publiko guztiarentzat eta doan izanen da emanaldia.

Otsailaren 29an eta martxoaren 28an, larunbatetan 11:00etan, helduentzako dantza garaikide tailerra eskainiko du doan Ana Irazustak kultur etxean. Inprobisazioa eta koreografia landuko ditu. Argibide gehiago: adurlarantja@hotmail.com

'Izenik gabe' arte erakusketa Labiagako aretoan

Lurraren Egunaren bezperan inauguratu ondotik, Labiaga ikastolako areto nagusia bigarren erakusketa zabalik da ilbeltzaren 25etik martxoaren 29ra, hamar asteburuz. Barrokoko (Zuberoa) Gonzalo Etxebarria margolariaren eta Donibane Lohizuneko (Lapurdi) Patxi Laskarai argazkilaria elkarlanean prestatu duten *Izenik gabe* arte lanak ikusgai daude. Hamar asteburuz zabalduko ditu atek aretoak, martxoaren 29ra bitarte, larunbat eta igandetan, 16:00etatik 20:00etara.

Guztiok taldeko haurrei emandako aukeragatik eskerrak

Urtarrilaren 11n Mendi Eguna antolatu zuen Manttale Mendi Taldeak eta horren bueltan, egun osoan hainbat ekitaldi prestatu zituzten. Manttale taldeak Guztiok elkarteari «personalki» egin zien ekitaldi horietan parte hartzeko gonbitea eta hori gorai patzeaz gain, Manttale taldea izatearekin «zorianekoak» sentitzen direla adierazi dute Guztiok elkartetik. «Urtean behin ekin-tza inklusioak antolatzen dituzte eta Guztiok elkarteko umeei bertze bezala gozatzeko aukera izaten dute».



UTZITAKO ARGAZKIA

Bertako ekoizleen azoka larunbatean

Bi urteotan Ricardo Barojako arkupeetan egin izan dute Baztan-Bidasoko ekoizleen azoka, baina abendutik aitzinera, lekuz aldatu eta Beralandeta da ekoizleen bilgune. Eguraldi ona eginez gero, kanpoko aldean eta txarra baldin bada, areto barrenean elkartuko dira otsailaren 8an, 10:30etik 13:30era.

Astelehenerdik ortziralerara: 07:15etik aitzinera

LABE ZAR

Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera

948 631 076 • BERA

ANTZUZELAI
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



Jauzena

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jauernabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA

102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • T.943 623 130

Pentsionistek hilero elkarretaratzeak egingen dituzte

Aldiro Donezteben bildu ordez, Elizondon, Lesakan eta Beran ere egingen dituzte ekitaldiak

TTIPI-TTAPA

Pentsio duinak eskatuz, bi urte pasatu dira Hego Euskal Herriaren pentsiodunak mobilizazioak egingen hasi zirenetik, eta eskualdean, Baztan-Bidasaldeko Pentsionistak Martxan mugimenduak deituta, 2018ko urriari hasi ziren elkarretaratzeak egingen, Donezteben. Abenduko batzarrean, ordea, elkarretaratzeak hainbat herritan egitea erabaki zuten eta halaxe hasi dute urtea. Hilabeteko hirugarren asteleheneretan bilduko dira, orain arte bezala eguerdian. Urtarrilaren

20an Beran egin zuten urteko lehenbizikoa, baina ekainera bitarteko hitzorduak non izanen diren zehaztua dute.

Elkarretaratzeak Baztan-Bidasaldean

Urtarrilaren 20an, Beran egin zuten.

Otsailaren 17an, Elizondoko herriko plazan, 12:00etan.

Martxoaren 16an Doneztebeko eskola parean, 12:00etan.

Apirilaren 20an Lesakako Plaza Zaharrean, 12:00etan.

Maiatzaren 18an, Berako Mukixu zubian, 12:00etan.



Urteko lehen elkarretaratzea Berako Mukixu zubian egin zuten. UTZITAKOA

Ekainaren 15ean, Elizondoko herriko plazan, 12:00etan.

Eskualdeko Pentsionistak Martxan mugimendutik «orain arte egindako mobilizazioekin deus guti lortu» dela adierazi dute, baina gaia «politikarien agendan sartzen» ari dela nabarmendu dute, eta «gehiago sartu beharko dute». Aldarrikapenak «orain erretiratuak edo jubilatatuak direnak baino hagitzez ere haratago doazela» gaineratu dute: «erreti-

ratuak, lanean daudenak, lan egiteko bidean daudenak... denek zahar parte duin bat izatea da helburua, kalkuluak hala ematen badu edo ez badu».

Bidea «luzea» izanen dela onartu arren, «aitzinerari segitzeko» prest agertu dira pentsiodunak eta «aldarrikapenekin bat eginez gero, parte hartzeko gonbidapena» luzatu diete eskualdeko herritar guztiei.

BERA

LESAKA

Agenda
2020


OTSAILA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus



BERAKO UDALA
berako kultur batzordea

LESAKAKO UDALA

<div style="font-size: 2em; font-weight: bold; color: #0056b3;">6</div> <div style="font-size: 0.8em; font-weight: bold; color: #0056b3;">ORTZEGUNA</div>	<div style="font-weight: bold; font-size: 0.9em;">LIBURU AURKEZPENA</div> <div style="font-size: 0.9em;">La (des)memoria de los vencedores (Fernando Mikelarena)</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">19:00 Beralandetan.</div> <div style="text-align: center; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; font-weight: bold; font-size: 0.8em;">BERA</div>
<div style="font-size: 2em; font-weight: bold; color: #0056b3;">7</div> <div style="font-size: 0.8em; font-weight: bold; color: #0056b3;">ORTZIRALEA</div>	<div style="font-weight: bold; font-size: 0.9em;">EKITALDIA BIZIPOZA</div> <div style="font-size: 0.9em;">dokumentalaren eta dokuwearen aurkezpen ekitaldia</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">Ekitaldia Bizipozaren azalpena. Aurkezleak Estitxu Fernandez eta Anabel Arraiza Parte hartzaileak Gure Txokoa dantza taldea, Julen Zelaieta, Joseba Irazoki, Petti...</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">18:00 Kultur etxean.</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">Antolatzaileak Guztioik eta Bizipoza elkarteak.</div> <div style="text-align: center; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; font-weight: bold; font-size: 0.8em;">BERA</div>
<div style="font-size: 2em; font-weight: bold; color: #0056b3;">8</div> <div style="font-size: 0.8em; font-weight: bold; color: #0056b3;">LARUNBATA</div>	<div style="font-weight: bold; font-size: 0.9em;">MERKATUA</div> <div style="font-size: 0.9em;">Bertako ekoizleen merkaturia</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">10:00-13:30 Beralandetan.</div> <div style="text-align: center; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; font-weight: bold; font-size: 0.8em;">BERA</div>
<div style="font-size: 2em; font-weight: bold; color: #0056b3;">14</div> <div style="font-size: 0.8em; font-weight: bold; color: #0056b3;">ORTZIRALEA</div>	<div style="font-weight: bold; font-size: 0.9em;">EKITALDIA</div> <div style="font-size: 0.9em;">Bardoak 2020</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">19:00 Arranon.</div> <div style="text-align: center; background-color: #c00000; color: white; padding: 2px; font-weight: bold; font-size: 0.8em;">LESAKA</div>
<div style="font-size: 2em; font-weight: bold; color: #0056b3;">15</div> <div style="font-size: 0.8em; font-weight: bold; color: #0056b3;">LARUNBATA</div>	<div style="font-weight: bold; font-size: 0.9em;">SOLASALDIA</div> <div style="font-size: 0.9em;">Bidasoa; torturaren arrastoak</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">16:00 Txokobikon.</div> <div style="text-align: center; background-color: #c00000; color: white; padding: 2px; font-weight: bold; font-size: 0.8em;">LESAKA</div>
<div style="font-size: 2em; font-weight: bold; color: #0056b3;">15</div> <div style="font-size: 0.8em; font-weight: bold; color: #0056b3;">LARUNBATA</div>	<div style="font-weight: bold; font-size: 0.9em;">EKITALDIA</div> <div style="font-size: 0.9em;">KALDEREROAK</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">19:00 Illekuetatik Herriko etxeko plazara. Oharra Eguraldi txarra eginez gero, Altzateko pilotalekuan.</div> <div style="text-align: center; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; font-weight: bold; font-size: 0.8em;">BERA</div>
<div style="font-size: 2em; font-weight: bold; color: #0056b3;">16</div> <div style="font-size: 0.8em; font-weight: bold; color: #0056b3;">IGANDEA</div>	<div style="font-weight: bold; font-size: 0.9em;">ZINEMA</div> <div style="font-size: 0.9em;">OZZY</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">18:00 Harriondoan.</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">Hizkuntza Euskaraz.</div> <div style="text-align: center; background-color: #c00000; color: white; padding: 2px; font-weight: bold; font-size: 0.8em;">LESAKA</div>
<div style="font-size: 2em; font-weight: bold; color: #0056b3;">16</div> <div style="font-size: 0.8em; font-weight: bold; color: #0056b3;">IGANDEA</div>	<div style="font-weight: bold; font-size: 0.9em;">ANTZERKIA</div> <div style="font-size: 0.9em;">En tránsito, perdonen las molestas (Uhartean)</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">18:00 Kultur etxean. Sarrera Doan.</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">Hizkuntza Gaztelaniaz (publiko guztientzat).</div> <div style="text-align: center; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; font-weight: bold; font-size: 0.8em;">BERA</div>
<div style="font-size: 2em; font-weight: bold; color: #0056b3;">19</div> <div style="font-size: 0.8em; font-weight: bold; color: #0056b3;">ASTEAZKENA</div>	<div style="font-weight: bold; font-size: 0.9em;">EKITALDIA</div> <div style="font-size: 0.9em;">INAUTERIETAKO KONTZERTUA</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">18:00 Kultur etxean.</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">Antolatzailea Isidoro Pagoaga Udala musika eskola.</div> <div style="text-align: center; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; font-weight: bold; font-size: 0.8em;">BERA</div>
<div style="font-size: 2em; font-weight: bold; color: #0056b3;">29</div> <div style="font-size: 0.8em; font-weight: bold; color: #0056b3;">LARUNBATA</div>	<div style="font-weight: bold; font-size: 0.9em;">DANTZA GARAIKIDEA</div> <div style="font-size: 0.9em;">Inprobisazioa eta koreografia (Ana Irazusta)</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">Sarrera Doan.</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">Argibide gehiago adurlaranja@hotmail.com</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">Adina Helduentzat.</div> <div style="text-align: center; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; font-weight: bold; font-size: 0.8em;">BERA</div>
<div style="font-size: 2em; font-weight: bold; color: #0056b3;">28</div> <div style="font-size: 0.8em; font-weight: bold; color: #0056b3;">LARUNBATA</div>	<div style="font-weight: bold; font-size: 0.9em;">MARTXOA</div> <div style="font-size: 0.9em;">28</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">18:00 Harriondoan.</div> <div style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">Hizkuntza Euskaraz.</div> <div style="text-align: center; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; font-weight: bold; font-size: 0.8em;">BERA</div>



cristalería BIDASOA



Bidasoa kristaldegian esperientzia eta produktuetan eskaintza zabala dugu. **1958tik ari gara lanean**, eta orduz geroztik, **era guztietako beirak jartzen ditugu: obretakoak, lokal komertziale-takoak, etxeetakoak...** Dekorazio lanak ere egiten ditugu eta horrez gain, **koadroei markoak jartzen dizkiegu.**

**«Urte horietan guztietan,
Bidasoko eskualde
osoan egin dugu lan»**

Irun eta Hondarribiatik hasi, eta Elizondoraino bitarte, Bera, Lesaka, Etxalar, Doneztebe... eta beste hainbat herritan ibili gara.

Gaur egun, batez ere dekorazio eta zaharberritze-lanak egiten ditugu, bai etxeetan, baita lokal publiko eta komertzialetan ere:

Dutxetako manparak

Kristalezko barandak

Ate korrederak

Sukaldeko aurrealdeak

Koadroentzako markoak

Ispiluak

Beira dekoratiboak

ESKAINZA ZABALA DUGU!

Zure etxean edo lokalean gure beharra baduzu, ez izan zalantzarik, eta zatoz gu ezagutzera.
Behar duzun horixe eskainiko dizugu!

Eroritako zuhaitzak kentzeko bandoa atera du udalak

Berrotarango errekan eta Bereautik Zubiberrira doan pistan haizeteak botatakoak kendu beharko dituzte jabeek

AITOR AROTZENA

Berrotarango erreka arbolak kentzeko eta Bereautik Zubiberrira doan pistako arbolak kentzeko bando bana atera du udalak. Azkeneko haizete gogorrean eroritako zuhaitzak daude bi erreka bazter horietan eta bakoitzak bereak dituen arbolak kentzeko deia egin du. Laguntza behar izanez gero, udaletxera ere jo daitekeela gogorarazi dute.

Mendiko gaiak

Bertze aldetik, mendiko zenbait gai aztertze bilerara egitekoa zuten ilbeltzaren 31n Herriko Etxean. Bertze gaien artean, PAC-aren dirulaguntza eskuratu ahal izateko herriurrak erabiltzeko eskubidea emateko udalak izanen dituen irizpideen berri eman zuten. Laburbilduz, herritarrek ba-

karririk izanen dute lur horien erabilpena eskatzeko eskubidea; erabilpen eskubideak era proportzionalan banatuko dira, esplotazioak dituen abeltzuren arabera eta abeltzain profesionalak lehenetsi edo sarituko dituzte banaketan. Kuota sinboliko bat ezartzea planteatzekoa zuen Herriko Etxeak, eta jasotzen den dirua zuzenean mendian inbertituko dute. Bertzetik, auzolanen inguruan ere aritzeak ziren. Arantzako mugatik Elutsaraino Artikutzako zerrakura kendu zen bere garaian, eta orain, Elutsatik Oiartzungo mugaraino, Burnaiztegitik barna Bianditzerraino kentzeko asmoa du Herriko Etxeak. Erreketak antolatze ere aprobetxatzekoa zuten bilkura eta mendietan egin daitezkeen inbertsioen inguruan ere aritzeak ziren.

Zakuzaharren bilera eta jostunen tailerra eginen dute Arranon

Zakuzaharren bilera otsailaren 8an, larunbatean 16:00etan eginen dute Arranon. Iaz bezala, jostunentzako tailerra ere eginen dute hilaren 15ean, 11:00etan, Arranon. Izan ere, jostunak eta belarra betetzeko laguntzaileak behar beharrezkoak izanen dira aurten ere.

Suhiltzaile boluntario izateko deialdia egin dute

Suhiltzaile boluntario izateko kurtsoa eginen dute apirila eta ekaina bitartean. Interesadunak udaletxera dei dezake. Gainera, hilabetero, hirugarren larunbatean, goizez, herrian praktika egiten dute suhiltzaile boluntarioek eta bertara edozein herritar ager daiteke.



IBON ERRAZU URIA

Nafarroako VI. trikitixa jaialdi bikaina

Nafarroako seigarren trikitixa jaialdia ospatu zuten ilbeltzaren 18an Harriondoa. Ibon Gaztañazpik aurkeztutako saioan hainbat musikarik parte hartu zuten, tartean Ioar Oteiza eta Ladis Satrustegi herritarrek eta Garazi Erbiti leitzarrak. ETBK saioa grabatu eta astebete beranduago eskaini zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Pedro Garmendiak elkartasun saskia

Urtarrilaren 19an, San Antoneko igandean egin zuten elkartasun saskiaren zozketa eta 6.235 izan zen zenbaki saritua. Pedro Garmendia izan da euskal preso eta iheslariekin elkartasunean merkatarien eta ostalarien laguntzarekin osatutako saski ederraren irabazlea.

Garazi Conderen kartelak iragarriko ditu inauteriak

Garazi Conde Oruberen kartelak iragarriko ditu aurtengo inauteriak. Aurkeztutako hamaiak lanekin erakusketa eta herri-bozketa egin zen ilbeltzaren 20tik 24ra eta bere lana izan zen bozkatuena. 250 euroko saria jasoko du.





Murdeneko errota kanpoko aldetik, Urritzokieta auzoan. IRUNE ELIZAGOIEN

Murdeneko errota berriz ere martxan da Urritzokietan

Lau urteko lanaren ondotik, uraren indarrarekin garia eta artoa nola xehatzen diren ikus daitezke

IRUNE ELIZAGOIEN

Sanzberro-Arburua familiak 1940an beraien amatxi Javier Goienetxea de Martikorenak eraikitako Murdeneko errota berriz ere martxan jarri du Urritzokietan.

1960 arte lanean aritu zen errota gaur egun berriz ere martxan ikustea, ondorengo belaunaldientzako onuragarria dela diote Sanzberro-Arburua familiakoek. Beraien antzina-koek erabilitako egurrekin berritu dute errota, lau urte luzez lanean aritu ondotik.



Errota, barreneko aldetik. I. ELIZAGOIEN

Errotariaren lana gogorra zela azpimarratu dute. Irina fina ateratzea lortu behar zen, hezetasunik gabeko aleak erabiliz.

Kantu-saioak hamabortzero egiten hasiak dira Kultur Etxean

TTIPI-TTAPA

Urtarril bukaeran hasita, kantu-saioak izanen dira Kultur Etxeko goitiko gelan. Alberto Lasa zuzendariaren eskutik kanta ikasteko aukera izanen da, eta nahi duen guztiak parte hartzen ahal izanen du.

Hamabortzero elkartuko dira, aste berean bi egun eginez: ortzegunetan 20:15ean eta larunbatetan, berriz, 18:00etan. Herritarrak saio horietara animatu dituzte, eta parte-hartzaileen arabera, ordutegia moldatzeko aukera irekia utzi dute.



BALEN ETA PAOLA

Gitarra eta biolontzeko kontzertua

Otsailaren 9an, igandean 18:00etan kontzertua eskainiko dute Balen Lopez de Munainek gitarrarekin eta Paola Zannonik biolontxeloarekin elizan. 25 *pieza* gitarrarako liburuan oinarritutako kontzertua izanen da, musika klasikoa, euskal folka eta jazz estiloa uztartzuz emanen dutena.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



1995eko inauterietan, orduko umeak eskean. OSKAR TXOPERENA

Haurrek ere izanen dituzte ekitaldiak inauterietan

Larunbatean bezala, ortziraleko meriendara ere mozorroturik joatea eskatu dute Guraso Elkarteok

TTIPI-TTAPA

Lehenago mozorroen egitasmoen berri eman genizuen baina haurrek izanen dute zer egin datorren astean.

Aurten aldaketa bat izanen da urteroko ekitaldien zerrendan. Otsailaren 14an, ortziralez, merienda izanen dute pilotalekuan, eta, larunbatean bezalaxe, mozorroturik joateko eskatu dute Guraso Elkarteok. Larunbat arratsaldean, berriz, meriendaz gain, musika izanen dute lagungarri. Hurrengo astean, otsailaren 20an, Ortzegun Gizen eguna izanen denez, eskean ibiliko

dira herrian barna eta baserrietan. Eta ortziralean, herriko inauteriei akabila emateko, bazkaria izanen dute Biltokin eta bazkalondoan urteroko antzerkialdi arrakastatsua eskainiko dute Baratzondon, zikloka banatuta.

Mozorroetan ibiltzeko izenematea, berriz, ortzirale honetan, 7an itxiko dute.

Inauterietako egitarauaren berri, aldizkari honetako erdiko gehigarrian topatuko duzue, baina ohi bezala, ortziralean Berrizaunen eta herrian egingen dute eskea gazteek eta larunbatean baserrietan.

Adinekoen ekitaldiak hurrengo asteetan Baratzondo eta Arkupeak elkarten esku

TTIPI-TTAPA

Hilabete honetarako zenbait ekitaldi antolatu dituzte Baratzondo eta Arkupeak elkarteek. Otsailaren 15erako, inauterietako larunbaterako, bazkaria prestatua daukate Baratzondo Elkarteko bazkideentzat. Arratsaldeko ordubietan izanen da eta joan nahi dutenek otsailaren 4rako eman beharko dute izena.

Arkupeak Elkarteak, berriz, mus txapelketa antolatu du herriko bazkideentzat hilaren 8an, 17:00etan, Baratzondon. Lesakako bazkideekin batera



Bazkaria Baratzondon. O. TXOPERENA

egiten duten urte hasierako besta martxoaren 7an izanen dute. 13:00etan meza entzun ondotik, bazkaria izanen dute. Herri bakoitzeko ordezkariari eman beharko diote izena, otsailaren 3, 4 eta 5ean.



OSKAR TXOPERENA

Mendi bideen moldaketak Frain aldean

Harrobiarekin sinatutako hitzarmenaren bitartez bi mendi bide moldatu dituzte Allineko borda inguruan. Altsolatzten bordatik goiti moldatu zuten iaz eta orain Buztindegiko bidegurutzetik Goietxebordako atarirainoko bidea eta handik Kopa aldeko errepidera bitartekoa ere zolaberrituko dute.

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Eskualdean egindako sagardoa
Txotx denboraldiaren irekiera

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAR0Z | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046



Baskula ttiki gelditu zen liburutegiaren inaugurazio egunean. G. PIKABEA

Astean bi aldiz irekiko dute udal liburutegia

Herritar saila bildu zen ilbeltzaren 25ean egin zuten liburutegiaren inaugurazioan

NEREA ALZURI

Hainbat hilabete eta astetako auzolanaren ondotik, martxan da Baskulan egokitu duten udal liburutegia. Joan den astean ireki zituzten lehenbiziko atea eta gerotik, astelehen eta asteazkenetan zabaltzen dute, 16:30etik 18:30era.

Inaugurazio ekitaldia ilbeltzaren 25ean egin zuten. Ekitaldia hasteko, Joseba Pikabea zinegotziak hartu zuen hitza, «hutsetik hasitako proiektua» izan dela adieraztearekin batera, «herritar aunitzen aspaldiko ametsa zen liburutegia egia bilakatu» dela eta «herritar eta bisitari guztientzat atea irekiak» egonen direla erran zuten. Egitasmoa aitzinera atera dutenei eskerrak eman nahi izan zizkien, bereziki, gutzia abian paratu duen Xabi Etxague herritarrari.

Ondotik, Xabi Etxaguek solas egin zuen eta liburutegia «irakurketaren inguruan dinamizatzaile aktiboa izateko helburuarekin sortua» dela kontatu zuen, «liburuei bizitza emanaz modu guztietan». Liburutegiko liburu guztiak

utziak izan direla ere azaldu zuen, «herritik, etxe partikularretatik eta hainbat lagunen-gandik jasoak». Baina bereziki Arrasateko liburutegiak, Migel Angel Asiain *Osio* Galzagorri elkartekoak eta Lesakako liburutegiak egindako ekarpena nabarmendu zuen.

Mentxu Peña herritarrak bi ipuin kontatu zituen ekitaldian eta Dabid Iturria alkateak ere ekimen honen bulkatzaileak eskertu zituen, «liburutegiaren formatua autogestionatua, auzolanean egina eta herrigintza sustatuz» izan dela gaineratuz. «Indibidualismoaren aurre egiteko erreminta gisa» aurkeztu zuen, «auzolana harremanak sortzen ditu jendartearen ongizate eta zorionerako ongari izanik».

Bildutakoen gozameneko, Maddi Larralde eta Jon eta Jaione Mazizior bertako musikari gazteek lau kanta ederrekin josi zuten ekitaldia; eta bertso eskolan dabilzten herriko gaztetxoek bertso umoretsuak kantatu zizkioten liburutegiari. Ondotik luntxa eskaini zien udalak hurbildutako guztiei.



I. UGALDE

20 haur baino gehiago futbol eskolan

4 eta 12 urte bitarteko 20 neska-mutiko baino gehiago ibiltzen dira Osasuna Fundazioak herrian ireki duen futbol eskolan. Ortzirale arratsaldetan izaten dute hitzordua frontoian, Jaime eta Julen entrenatzaileekin. Berriki, gainera, Osasunako jantziak banatu dizkiete eta aski kontent gelditu dira.



A. MAEZTU

11 bikote Euskal Herriko Mus Txapelketan

11 bikotek parte hartu zuten ilbeltzaren 24an Ekaitza Elkartean jokatu zen Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketan. Horietatik bi bikote sailkatu dira otsailaren 29an Iruñean jokatu den Nafarroa mailako finalera: Ibai Etxeberria eta Alberto Fagoaga eta Luis Andueza eta Patxi Iturria.

2019ko hotel boutique onenaren saria jaso du Arantza Hotetak

TTIPI-TTAPA

Sei urteko ibilbidean hainbat sari eskuratuak ditu Arantza Hotetak. Aurtengo Fitur Ferrian, Europa eta Hegoamerikako hotelak biltzen dituen Rusticae klubak hotel boutique onenaren saria eman zion Arantzako hotelari.

Aste berean, New Yorken, Luxury Lifestyle Awards 2020 sariketan, hotel onenaren saria jaso zuen bartz izarreko hotelak. Alberto Madina-beitia arduradunak aipatu digunez, «uztailean eta abuztuan, hotelaren erabiltzaileen %70a atzerritarra da»



Lehen aldiz emakumeak atera dira baserriz baserriko eskean. MARI KORO PASKUAL



Ttikienek ere ederki pasatu zuten eskolako jaialdian. MAIDER PETRIRENA

Giro paregabea izan da aurtengoan ere inauterietan

Baserriz baserriko eskean lehen aldiz emakumeak atera dira eta igandeko karroza desfile ederrak jendetza erakarri zuen

MAIDER PETRIRENA

Kolore eta giroz beteta joan dira inauteriak. Igandeko karrozen desfilearengatik dira ezagun, baina asteburu osoan giro bikaina izan zen.

Ortziralean gazteek eman zioten hasiera gosari eder batekin Ariztigain Kanpinean. Gero, bi taldetan banatu eta baserriz baserri ibili ziren, Modesto eta Joxe Angel akordeoilariak lagun zituztela. Lehen aldiz emakumeak ateraziren eskean. Arratsalde partean haurren txanda izan zen. Gauean berriz, emakumeen txanda izan zen, 80 bat emakume Ulibeltzak elkartearen elkartu baitziren. Larunbatean, berriz, gazteek herrian eskean ibili ziren eta Fondan bazkaldu zuten. Arratsaldean haurren txanda izan zen Ulibeltzak elkartearen.

Igandea, egun ederra izan zen. Eguraldi bikaina lagun, jendetza bildu zen karriketan. Ibilaldia hasi baino lehen eta ondotik, inauterietako animatzaile eta esatari izaten den Aitor Ibarra *Jalisko* gogoan izan zuten, osasun arazoengatik ez baitzuen parte hartzerik izan.

Betiko lauek eman zioten irekiera desfileari eta segidan, bertze zenbait karroza atera ziren: *Zonbiak*, *Ongi etorri Maroko*; *Usuk parez pare*, Etxalarko sare bidezko ehiza irudikatuz; *Abordatzera* karrozako neska piratak, koreografia eta guzti; *Steam Punk* karroza, garai bateko hegazkin, bizikleta eta helikopteroekin; *petankako master-80 txapelketa olimpikoa*; *Arrai-Iñak Sunbillako akuariuma*; Hiru Txerri txoak; kuadrilla betaranoenak Donostiako eta Bilboko *Txikiteroak* irudikatu zituen, batzuk Guggenheim atarian eta bertzeak, Kontxako hondartzako baranda eta sonbrilla artean, Igeldoko funikularra ondoan zutela. Ibilaldia ixteko *Euskimalak* atera ziren.

Desfilearen ondotik, zozketa egin zuten. Bildotsa Sunbillako Paco Alzugarairi egokitu zitzaion (5.855 zenbakia) eta magrak Urtaşungo Angel Martinezi (7.571) eta Sunbillako Mañoli Agirreri (3.054). Bazkariaren 80 bat lagun bildu ziren eta bazkalondoan Hauspolariek taldearekin dantzatu zuten sunbildarrek.



80 emakume bildu ziren afarian. Ez zituzten saguak bakarrik jan. LOURDES ALTZURI



Bilboko txikiteroak, Guggenheimen aitzinean. AITOR AROTZENA



'Ongi etorri Maroko' eta zozketako saridunak. A. AROTZENA / M. PETRIRENA

5.000 erabiltzaile izan ditu herri liburutegiak 2019an

Datuei erreparatuz, urte emankorra izan da mailegu eta erabiltzaile kopuruan

MARGA ERDOZAIN

Urtebete pasatu da herri liburutegiak digitalizazioaren aro berriari ekin zionetik eta urte emankorra izan dela erran daiteke. Datuak dira horren seinale. 2019an erabiltzaileek 2.100 ale atera zituzten liburutegitik ikusi edo irakurtzeko, zehazki, 1.700 liburu eta 400 ikus-entzunezko. Erabiltzaile kopurua ere aipatzeko modukoa izan zen, 5.000 lagun hurbildu baitziren liburutegira iaz. Ez hori bakarrik: urte osoan 280 bazkide txartel gehiago egin zituzten. Bide beretik, zerbitzuaren beharrei egokitzeko, ordutegia 16:00etatik 20:00etara luzatua dute.

Gainerakoan, gaur egun, liburutegiko 8.300 ale digitalizatu dituzte eta bertze 5.000 daude digitalizatzeko espe-roan. Bertzetik, dirulaguntzak



Liburutegia.

ere jaso ditu liburutegiak materiala erosteko: Nafarroako Gobernutik 2.200 euro eta udaletik 2.500 euro.

Liburutegiko martxak ere aipamena merezi du, emankorra izan baita, elkarlanean antolatutako hainbat jardueren ondorioz: ipuin txokoa, ipuin lehiaketa, irakurle taldea, sormen tailerra...

Horrek guztiak herri liburutegia bizirik dagoela erakusten du.

Ipuin txokorako datak zehaztu dituzte

Ipuin txokoaren otsaileko hitzorduak zehaztu eta bi saio izanen dira: 11n eta 18an. Otsailaren 25ean inauteriak direla eta, ez dute emanaldirik izanen. Haizea Loirak bideratzen duen ekimen honetako alfonbra koloredunean parte hartzeko gonbita asteartero zabalik izaten da. 11:00etatik 12:00etara elkarten dira eta tarte horretan, ipuinaz, musikaz eta dantzaz gozatzeko aukera ezin hobea izaten dute 0-3 urte bitarteko txikiek, baita haiekin batera doazen zain-tzaileek ere.

Martxoaren 1ean sagardotegira joateko autobusa

Aitzineko urteetan bezala, aurten ere Arozena ostatuak sagardotegira joateko ateraldia antolatu du. Hitzordua martxoaren 1ean izanen da eta Urnietako Oianume sagardotegira joanen dira. Autobusa 11:30ean aterako da herritik eta lehenbizi Hondarribira joanen dira; 14:00etan handik Urnietara abiatuko da. Autobusean egin beharreko bidaia eta sagardotegiko otordua kontuan hartuta, 50 eurokoa izanen da prezioa. Interesadutenak Arozena ostatuan apuntatzen ahal dira.



ARTXIBOA

Inauterietarako prestaketak

Ate joka dira inauteriak eta gaurgero mozerro eta karrozak prestatzen hasiak izanen dira herritarrak. Aurten otsailaren 20tik 22ra izanen dira eta hondarreko egunean, larunbatarekin, duela hamar urteko irudian ageri den bezala, karrozen desfilea egingen dute. Xehetasunak 34. orrialdean.

Hurrengo zinema emanaldiak igande honetan izanen dira

M. ERDOZAIN

Erreka Guraso Elkarteak eta Udalak antolatuta, otsailean bi zinema emanaldi eskainiko dituzte: igande honetan, otsailak 9, eta hilabeteko azken igandean, 23an.

Igande honetan, Erreka guraso elkartearen eskutik, 16:30ean hasita, *Dumbo* filma pantailaratuko dute. *Dumbo* klasikoaren bertze bertsio bat da, pertsonaia errealak sartuta. Sarrera euro bat ordaindu beharko da.

Udalak antolatutako bigarren emanaldian, berriz, Oscar sa-



'Joker' filmeko irudi bat.

rietarako hamaika izendapen lortu dituen *Joker* filma ikusteko aukera izanen da, kasu honetan, sarrera bi euro ordainduta. Bigarren emanaldi hori 18:30ean hasiko da.

Ortzirale honetan akituko da eskolan aurretiko matrikulazioa egiteko epea

Ikasturte berriari begira lanean hasiak dira San Miguel ikastetxean. Hain zuzen, aste osoan zabalik egon ondotik, ortzira-le honetan, otsailak 7, akituko da aurretiko matrikulazioa egiteko epea. Aurten hiru urte beteko dituzten txikien familiak epe horiei begira egoten

dira, zenbait kasutan ikas-prozesuaren lehenbiziko matrikulazioa izaten baita. Behin aurrematrikula eginda, familiek matrikula egiteko aukera izanen dute martxoaren 25etik 27ra. Aitzineko ikasturtean hiru urteko 24 haur hasi ziren San Miguel eskolan.

Ikusmira handia eragin dute inauteriek

93 joaldun bildu ziren Iturengo plazan inauterietako astelehenean eta 63 Zubietan

TTIPI-TTAPA

Mozorroak eta joareak sabaian gorde dituzte dagoeneko. Egunek utzitako bizipenak, ordea, ahoz aho dabilta oraindik.

Eskeak, joaldunak, mozorroak, otorduak...

Urtarrilaren 23an, ortzegunean, hasi zituzten inauteriak Ituren eta Aurtitzen; Zubietan, berriz, larunbat ilunabarrean iragarri zuten hasiera eta igandean, bertzeak bertze, haurren dako mozorro lehiaketa izan zuten. Orduz geroztik, han eta hemen, joaldunek eta trikitilariak girotutako eskeak, mozorroak, joare hotsak, musika eta otorduak izan dituzte. Haurrek, gazteek eta helduek, bakoitzak bere moduan, gozatzeko aukera izan dute.

Egun handiak

Urtarrilaren 27an, astelehenean, ohi bezala, zubietar eta aurtiztarrak Iturengo plazan elkartu ziren. 93 joaldun bildu ziren: 78 heldu eta 15 haur. Joareen soinu goxoak eta motorren orroak girotu zuten plaza ingurua. Zirikan ibili

ziren batzuk; egunetako nekea pilatua zela islatzeko, ohatze bila bertzeak. Orain hilabete batzuk izandako lapurreta saiakera salatzen, 'Lapurrak Aurtizan jai, Zubietan ere bai' kartela plazaratu zuenik izan zen. Trasteek eta arropa zaharrek ez zuten hutsik egin. Ikusmira berezia eragin zuen "ahari apustuak".

Bisitari bisita zor, iturendar eta aurtiztarrak Zubietan izan ziren asteartean, hilaren 28an. Guztira 63 joaldun bildu ziren: 33 zubietar, 18 iturendar eta 12 aurtiztar. Horien bueltan bildutako mozorroak ez ziren gutxiagorako izan. Hankak lurrian eta hankak airean, herria hankaz goiti utzi zuten guztien artean.

Zorrak kitatzeko egunak

Zubietarrek asteazkenean egin zituzten hondarreko otorduak. Iturendarrek, berriz, larunbatean borobildu zituzten inauteriak. Bukaera emateko, bertso-bazkaria eta musika izan zituzten. Aurtitzek, berriz, igandeko xaharren afariarekin bukatu zituzten ospakizunak.



Eguraldi bikaina lagun, jende dezente bildu zen Zubietan asteartean. A. MINDEGIA, A. SMITH, A. JUANOTENA ETA I. ZUBIALDE



93 joaldunen bueltan, mozorroak harat-honatean ibili ziren inauterietako astelehenean. AINARA MINDEGIA ETA MAIDER PETIRENA



PROMOCIONES
MALERREKA

Informazioa: 629 951 170 (Aitziber)



**AUKERA
BIKAINA
Sunbillan!**

9 ETXEBIZITZA:

115m² arteko etxeak

3 atiko

**3 edo 2 logelakoak,
sukaldea, egongela,
2 bainu, trastelekuak
eta lurpeko garajeak**

Lokal komertzialak



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



✓ Zure beharren araberako finantziarioa,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin

Dozenaka sinadura pediatria zerbitzua eskatuz

2019ko azaroaz geroztik pediatriarik gabe daudela salatzen sinadurak bildu dituzte gurasoek

TTIPI-TTAPA

Kexu dira Malerrekako Mankomunitatea osatzen duten 15 herrietako gurasoak, 2019ko azaroaz geroztik pediatriarik gabe daudelako. Salatu dutenez, pediatriaren faltan, helduen medikuak dira Malerrekako eta Bertizaranako haurrak ardatzen dituztenak. Egoeraren «larritasuna» ikusita, eta «gure seme-alaben osasuna jokoan dagoenez, konponbide bat bila dezaten eskatzeko» sinadurak biltzen aritu dira eta emaitza ona lortu dute; urtarril erdialdetik hilabete bukaera bitarte 400 sinaduraren bueltan bildu dituzte.

Herriz herri ordezkari bat izendatuta, Doneztebeko osasun zentrorra joatea egokitzen zaien haurren gurasoen sinadurak bildu dituzte. Sinadura bilketa akitzeko egun batzuen

faltan, lerro hauek idazterakoan, Legasan 55 sinadura bilduak zituzten, Sunbillan 70, Beintza-Labaienen 20, Saldiasen 17, Eratsunen 13, Narbarten 35, Donezteben liburategian eta kiroldegian bildutakoak kontuan hartu gabe 97, Oizen zortzi, Urroren 20, Ezkurran sei, Donamaria-Gaztelun 45 eta Elgorriagan 25. Idatzi batekin, sinadura horiek Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentura bidaltzeko asmoa dute orain gurasoek.

Pediatriarik gabe egotea ez dute kontu berria Malerrekako eta Bertizaranan. Gurasoek oroitarazi dutenez, «2018an ere bortz hilabetez pediatriarik gabe egon ginen. Konponbide gisara, Lesakako pediatra, bere ordutegitik kanpo, astean bi arratsaldez etorri zen gure seme-alabak ikustera».



OLAIA OLAZAR ETA MAIALEN ARRIETA.

Kolorez eta umorez blai Elgorriagan

Elgorriagako haur, gazte eta helduek kolorez eta umorez bete zuten herria inauterietan. Urtarrilaren 17an, ortziralean, herrian barna ibili eta afaria egin zuten. Larunbatean, berriz, zirkua izan zuten gai eta horri loturiko mozorroz bete ziren karrikak.



Joan den urteko inauterietan kolorez jantzi zuten herria. IZASKUN BERTIZ

Otsailaren 14an eginen duten afariarekin hasiko dira inauteriak Beintza-Labaienen

TTIPI-TTAPA

Bi egunez inauteri giroa nagusituko da Beintza-Labaienen. Otsailaren 14an eta 15ean ospatuko dituzte eta haur, gazte eta helduek izanen dute gozatzeko aukera.

Otsailaren 14an, ostiralean, Itur Ondo Elkartearen eginen duten afariarekin hasiko da mozorro besta. Egun handiena, hala ere, larunbata izanen da. Gazteak mahaiaren bueltan gosaltzeko elkartuko dira Itur Ondo elkartearen eta ondorengo trikitixa doinuek lagunduta Labaienen ibiliko dira puskek biltzen. Elkartearen bazkaldu

ondotik, arratsaldean, Beintzan puska biltzen segituko dute. Arratsaldea etxe etxe eta baserri ibili ondorengo afaltzeko Itur Ondora joanen dira. Afari horretara joateko txartelak otsailaren 8a arte erosten ahaliko dira. Afalondan Modestok alaituko du giroa.

Haur eta gurasoak, berriz, eguerdi aldera Beintzako frontoian elkartuko dira musika doinuek lagunduta eta ondorengo Beintzako ostaturaren bazkalduko dute. Arratsaldean txokolatada eginen dute eta nahi duenak etxe etxe gazteekin ibiltzeko aukera izanen du.



JAIONE ZABALO

Ezkurrako ordezkariak musean

Euskal Herriko XII. Mus Txapelketaren kanporaketa jokatu zen urtarrilaren 18an, Ezkurrako Barranka jatetxean. Guztira sei bikote bertaratu ziren eta Migel Elizalde eta Cipriano Telletxea izan ziren nagusi. Irabazleek Nafarroako kanporaketa jokatzeko txartela eskuratu dute.

2




1



0



-1



KTK LIFT SL IGOGAILUAK



KTK Lift SL igogailu-enpresako kideok urtarril erdialdean ireki genuen delegaritzia Nafarroa iparraldean. Igogailuak jarri eta mantentze-lanak egiteko berme guztiak dituen enpresa gara, Nafarroako Gobernuako Industria Departamentuaren ziurtagiria duena. Donezteben dugu egoitza eta Baztan, Malerreka, Bortzirriak, Leitza, Lekunberri eta Ultzaman eskaintzen dugu zerbitzua.



KTK Lift SL

Amezitia zeharbi. 5. behea D,
31740 Doneztebe

LANTALDE PROFESIONALA

Alfonso Betancourt Ruseok gidatuta, goi mailako profesionalek osatzen dugu lantaldea. Zuen beharretara egokitzen gara: oztopo arkitektonikoak kendu, eraberritze-lanak eta obrak egin eta igogailuak martxan jartzen ditugu. Bitartekaritza lana ere egiten dugu: erakunde ofizialen dirulaguntzak edo baimenak lortzeko eman beharreko pauso guztiak gure gain hartzen ditugu.

HITZA BETEZ

Denborak urrea balio du eta are gehiago esperoan dagoenarentzat. Horregatik, xuxen betetzen ditugu idatziz zehazten ditugun epeak. Hasieratik jakinen duzue lanak noiz hasi eta noiz bukatuko diren eta epeak betetzen ez baditugu kalte-ordainak izanen dituzue.

FINANTZATZEKO AUKERAK

Hainbat finantzaketa-eredu eskaintzen ditugu. Horrela, bezero bakoitzak bere beharretara egokitzen dena aukeratzeko modua izanen du. Zuzeneko finantzaketa-formulak (interesik gabe) edo kanpoko finantzaketa (kreditu-erakunde laguntzaileak) dituzue aukeran.

**IGOGAILUAK
JASOTZAILEAK**
proiektu,
erreformak,
instalazio eta
mantentze lanak

T. 679 996 055



**INFORMAZIO
GEHIAGO**

znorte@ktklift.com
www.ktklift.com
Edo 679-996055
telefonora deituta.

MALERREKA

Donamariako inauteriak larunbat honetan izanen dira

Egunez gazteak etxez etxe eskean ibiliko dira Agerralde musikariarekin eta gauzez afaria egingen dute

TTIPI-TTAPA DONAMARIA

Inguruko bertze herrietan bezala, donamariarrak ere prest dira mozerro bestarako. Larunbat honetan, otsailak 8, ospatuko dituzte inauteriak, joan den urtean bezala, besta egun bakarrera mugatuz.

Larunbat goizean, gazteak Herriko Ostatuko terrazan bilduko dira gosaltzeko eta behin indarrak hartuta, mozerroak soinean, eta Agerralde herriko musikariaren laguntzarekin, etxez etxe eskeari ekinen diote. Gauzez mahaiaren bueltan elkartuko dira berriz, Herriko Ostatuko terrazan afaltzeko. Besta luzatu nahi duenak Lander DJarekin horretarako aukera izanen du.

'Herri txiki infernu handi'

Inauterien atarian, ortzegun honetan, otsailak 6, bertzela-



Inauteriak duela urte batzuk.

ko hitzordua izanen da herrian. ETB1eko *Herri txiki infernu handi* saiorako grabaketak egingen dituzte. 20:00etan elizan zehaztu dute hitzordua eta joan den asteartean, urtarrilak 28, herritarrekin eginiko elkarriketen bideoak eskainiko dituzte. Gisa berean, Zuhaitz Gurrutxagaren eta Mikel Pagadiren monologoekin gozatzeko aukera izanen da eta Sebastian Lizasoren bertsoek osatuko dute ekitaldia.



DONAMARIA-GAZTELUKO UDALA

Gazteluko karrketan brea bota dute

Donamaria-Gazteluko Udalak 80.000 euroko inbertsioa egin du Gazteluko karrketan brea botatzeko. Horretarako, orde, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza izan du, zehazki, aurrekontu osoaren %85 lagundu du diruz. Txukun gelditu dira orain karrrikak.



PATXI MARIEZKURRENA

Eguraldi txarrari aurpegi ona Eratsunen

Eguraldiak askorik lagundu ez bazuen ere, giro ederrean ospatu zituzten urtarrilaren 18an inauteriak eratsundarrek. Egun osoan besta giroan ibili ziren eta gisa askotako mozerroak ikusteko aukera izan zen: errugbi jokalaria, eulia eta euliak hiltzeko pala, krispetak, sorginak...



DONAMARIA-GAZTELUKO UDALA

Giro ederra Gazteluko inauterietan

Inauterien aitxakian, haur eta gazte talde ederra bildu zen joan den urtarrilaren 25ean Gaztelun. Bakoitzak bere mozerroa jantzita eta trikitixa doinuak lagun, etxez etxe ibili ziren haurrak eta gazteak herri inguruan alaituz, umore eta giro onean.

inauterialak

2020

igantzi



egitaraua

Otsailak 14,
ortziralea

10:00 aldera Berrizaun auzotik hasita, etxez etxe eta baserriz baserri **eskean** ibiliko dira gazteak musikariek. Herrira bueltan, bidegurutze aldeko etxeetara bisita egin eta gero, Frain auzora joanen dira. **Bazkalondoan** herrian eta Sarrola eta Latsaga auzoetan **eskean** ibiliko dira gazteak. **Gauean afaria** egingen dute.

Otsailak 15,
larunbata

08:00etan Mozorroak elkartu eta Irisarri auzora joanen dira. **Gero**, Estongonaga, Elutseta, Unanu eta Piedadeko auzoetara egingen dute bisita. **17:00etan** haurrendako merienda. antolatu dute **18:00etan** musika izanen dute. **Ondotik** diskofesta. **Ilunabarrean** boletoen zozketa egingen dute gazteak. **Gauean** afaria.

OKILA
zurgingindia

- tarimak, leihoak, atek, eskailerak...
- obretako lanak orokorrean

Lander Sein

Mikel Arburua

Ongi pasa inauteriak!

607 88 39 68 · lander@okila.eu
Piedadeko auzoa, 32 · IGANTZI

erran.
eus



IGANTZIKO UDALAK
inauteri zoriotsuak
opa dizkizue igantziar
eta bisitari guztiei

ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11

Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@zumarbeld@hotmail.com
www.zumarbeld.es

bera

INAUTERIAK 2020

egitaraua

Otsailak 15, larunbata

19:00etan Kaldereroak Illekuetik Herriko Etxeko plazara. (Eguraldi txarra eginez gero, Altzateko pilotalekuan). *Entseguak: otsailaren 13an, 19:00etan Musika Eskolan.



Otsailak 23, igandea

10:00etatik aitzinera, goiz osoan, inude eta artzainak herrian barna Eztegara pilotalekutik hasita. **18:00etan** inude eta artzainak ibiliko dira Eztegara pilotalekutik Altzate karrikara.

*Entseguak: otsailaren 19an 19:30ean eta otsailaren 21ean 19:30ean.

Otsailak 19, asteazkena

18:00etan inauterietako kontzertua eskainiko dute Berako Kultur Etxean. Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolak antolatuta.

Otsailak 20, ortzeguna

Goizean Zingar arrautzea, **15:45ean** haurren inudeak eta artzainak inude eta artzainak ibiliko dira Eztegara pilotalekutik Alzate karrikara.

Otsailak 24, astelehena

Goizean Zingar arrautzea eta karrozak herrian barna ibiliko dira.



EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com



Ongi pasa inauteriak!

OSTATU - JATETXEA
Itzea, 2 - 31780 BERA - 948 631 271

ERREKALDE
o s t a t u a

Ongi pasa
inauteriak!

PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
BOKATAK

T. 948 630 259
BERA



Ongi pasa
inauteriak!

3. Estankoa

Urruña Plaza 1, behea
BERA - T. 948 63 16 37

AUZOD GO!



Etxez etxeko
zerbitzua BERAn

Egin erreserba
inauterietarako!

OGITARTEKOAK
PLATERAK
HAMAIKETAKOAK
BAZKARIAK, etab.

www.auzoago.com - T. 948 63 15 09



Bizikleten
salmenta eta
konponketa.

Kanthonberri, 1 | BERA

T. 948 631 218

joxemi@kateabike.com

www.kateabike.com

SCOTT GIANT MERIDA BIKES
ORBEA BH CONDA



BERAKO UDALA

BERAKO UDALAK
INAUTERI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE!

«Ttikitatik nabil musika munduan eta etorkizunean ere hala segi nahi nuke»

Eneritz ZAPIAIN ABUIN Berako musikari gaztea

Saxofoi bati lotuta, «lasaitasuna, dibertsioa, lagunak...» topatu ditu Eneritz Zapianek. Hala dio: «musikak bizitza ematen dit». Hamazazpi urte ditu eta ttikitatik dabil musika munduan: «zazpi edo zortzi urte nituenean hasi nintzen saxofoia ikasten». Ez da jotzen duen musika-tresna bakarra: «pianoa urte betez eta perkusioa lau urtez ikasi dut eta etxean ditugun bertze instrumentuekin ere saltsan ibiltzen naiz».



Berako Musika Bandako kidea

Etiket karrikarako saltoa egin eta duela bortz bat urte sartu zen Berako Musika Bandan, «orduan hasi nintzen musikari bezala herriko ospakizunetan parte hartzen». Bandarekin ari denean, «kontent» aritzen da: «gustuko dudak zerbait bertze herri-tarrekin, egun berezi horietan, konpartitzen dudalako». Ekitaldi saila girotzen dute: «Berako danborradan, bestetako kontzertuan, Santa Zuzilia Egunean eta Kaldereroetan jotzen dugu baita Lesakako Bandarekin ere. Horietaz gain, Donostiako danborradan ere parte hartzen dut Elutxa Txaragarekin».

Jotzen duen bakoitzean «aunitz disfrutatzen» duela aipatu digu. Dena den, bestak bizitzeko moduan eragina baduela ere aitortu du: «inude eta artzainetan, adibidez, aukeratu beharra izan dut. Azken bi urteetan dantzariak musikaz laguntzen aritu naiz, baina gogoa dut urteren batean dantzari bezala ateratzeko ere».

Mozorrotzea gustuko

Musika bakarrik ez, mozorroak ere badira inauterien parte eta aipatu digu mozorrotzeko afizioa ere ttikitatik heldu zaiola: «lagunak etxera etortzen ziren guztietan mozorro besta izaten genuen». Umetan ongi ikasia mantentzen dute lagunartean eta «inauteriak baino hilabete lehenago» hasten dira

mozorroa pentsatzen, «bi aste falta direnean erabakitzeke». Gero, eskulanean hasten dira: «beti mozorroa etxean egiten saiatzen gara, eta hori osatzeko gauza batzuk erosten ditugu». Orain artekoetatik, «santeraz» atera zirenekoaz oroitzen da bereziki: «aunitz disfrutatu nuen, aurpegi guztia beltzez margotu genuen eta egunez inork ez zekien nortzuk ginen eta arratsez guttiago».

Larunbatean Lesakara bisita eginez hasiko ditu inauteriak eta igandeko inude eta artzainekin eta asteleheneko eske eta mozorroekin borobildu. Ongi ikasitako melodiak, inprobisatutako kantuak eta lagunartean bizitako momentuekin osatuko ditu Eneritzek inauteriak. Eta musika eta mozorroak hagituz gustuko dituela jakinki, ez da harrizkoa inauteriak beretzat zer diren galdetuta «urteko ospakizunik hoberenak» direla erantzun izana.

ZELAIETA
tabakodenda
egunkariak, aldizkariak...
Iturlandeta • BERA • 948 631 246
ONGI PASA INAUTERIAK

bortzirudi
inprenta
maja ibilti eta
gozatu besta!

E D A R I A K
ongi pasa inauteriak
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

PAGOLA
Harategia - Hestebeteak
ONDO PASA INAUTERIAK!
Altzate Plaza, 2 - Bera • T. 948 63 00 54
www.embutidospagola.es

Ongi pasa inauteriak!
Oiartzabal
arkitektoa
Ipar karrika, 15
31780 BERA
T. 948 630 304 • 627 955 349

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
INAUTERIAN LASAI IBILTZEKO
GARRAIO ZERBITZUA ESKAINTZEN DUGU
ASTELEHEN EGUERDIAN
Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
T. 948 631 106 W. www.zalain.com

Lesaka

INAUTERIAK 2020

OTXANGO

BAHIA

948 638 126 | 627 877 281

Otsango ind. - LESAKA



IRU-BIDE

OSTATU • JATETXEA

Ongi pasa Inauteriak!

Arratzubi Kalea 3 LESAKA
T. 948 63 71 27



TRANSPORTES IRIGOYEN

Ongi pasa inauteriak

629 592 215 - Biurrana auzoa, 1 - LESAKA

asesoria
Emaitza

AHOLKULARITZA

Kontable • Fiskala • Laborala

ongi
pasa
bestak

Eitzeta, 20 beheka LESAKA | 948 638 077 | amaia@emaitza.eu



**IZARRA
OKINDEGIA**

ongi pasa inauteriak!

PLAZA ZAHARRA 12-13 31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855



egitaraua

Otsailak 20, ortzeguna

Goizean haurrak Arraultze arraultze ibiliko dira eta **arratsaldean** gurasoen eskutik ikastolan merienda izanen dute.

Otsailak 23, igandea

Goizean Goitarrak baserriz baserri ibiliko dira; arratsaldean, berriz, herrian. **17:00etan** pilotalekutik abiatuta, zakuzahar tikiak karriz karriz ibiliko dira Lesakako Trikitixa Taldearekin. **19:00etan**, berriz, zakuzahar handiak aterako dira. **18:00etan**, dantzaldia izanen dute Plaza Zaharrean.

Otsailak 24, astelehena

Goizean Fraindarrak baserriz baserri eta herrian ibiliko dira. **Eguerdia** aldera orgen eta mozorroen desfilea egingen dute eta **18:00etan** dantzaldia izanen dute Plaza Zaharrean.

Otsailak 25, asteartea

Egun guztian Fraindarrak baserriz baserri eta herrian ibiliko dira.

KASINO

OSTATUA - RESTAURANTE



ongi pasa
inauteriak

Plaza Zaharra - 948 63 72 87
LESAKA



Lesakako Udala

Inauterietako kartel irabazlea:
Garazi Conde Orube
"Eskoba Gotti"



«Hainbat belaunaldi elkartuko gara Fraindarren 50. urteurrena ospatzeko»

Xalbador MADARIAGA ALMANDOZ Lesakako musikaria



Arantzan sortu bazen ere, zazpi urterekin etorri zen Lesakara bizitzera Xalbador Madariaga. Geroztik, Frain auzoko Itturriko Borda izan du bizileku.

Bertan entzun zituen lehenbiziko musika akordeak: «musikarako afizioa, batez ere, nire aita eta aitaxirengandik heldu zait. Aitak solfeoa mediku zaharrek ikasi eta akordeoia jotzen zuen, klaseak gauzez hartuta». Ohikoa omen zen garai hartan Arantzan akordeoia jotzea, «plazan igandero dantzaldia izaten zen. Partiturak elkarri pasa edo elkarri adituz ikasten zituzten piezak».

Ikasle eta irakasle

Xalbadorrek akordeoia bakarrik ez, trikitixa eta pianoa ere jotzen ditu: «duela hogeit bat urte ikasi nuen trikitixa jotzen eta pianoa 24 bat urte nituenean. Gero, Ekaitz taldean teklatura jotzen aritu nintzen sei urtez».

Hainbat musikari famatu izan ditu irakasle: «solfeoa Santiago Irigoienekin ikasi nuen, akordeoia Pepito Yancirekin eta Mikel Bikondoarekin eta ikasketak Donostiako konterbatorioan osatu nituen». Nazioarteko akordeoilariengandik ikasteko aukera ere izan du eta orain bera da bertzei irakasten dabilena: «40 urte daramazkit musika irakasten eta betidanik eduki nahi izan dudana lanbidea da».

Musika alea bezain inauterizalea da eta biak uztartzeko aukera izaten du Lesakako inauterietan: «hamabortz urte nituenean atera nintzen lehenbizikoz Fraindarrekin akordeoia jotzen». Sei bat urtez atera gabe egon eta soldaduska egin ondok hartu zuen mar-txa, «gaur arte».

Fraindarren 50. urteurrena

Aurten, gainera, bereziak izanen dira inauteriak Fraindarrendako: «50 urte beteko ditugu eta oraingo gazteak eta lehen atera izan direnak elkartuko gara. Goizean baserri baserri ibili eta ondoren elkarrekin bazkalduko dugu». Astelehenean goizeko 8etan egin dute hitzordua eta goiz eta arratsaldez ibiliko dira baserrietan, «Frainen baserri aunitz baitira». Biharamunean, berriz, Izotzalde auzoko bizilagunei eginen diete bisita: «bezpera baino lasaia gozaten da, baina hagitz polita. Anekdotak anitz izaten dira eta kuadrillan kontatzeko eta irriz urratuak eta umore ederrean ibiltzen gara».

Igandeko zakuzaharrak eta asteleheneko karrozak ere inauterien parte dira, «bi egun horiek dira indartsuenak. Juerga gustatzen zaionak, aukera ederra du Lesakan». Aitortu digu, gaur egun, Xalbador ez dela mozorrotzen, «mozorrotzeko ilusio edo irrika hori galtzen da eta festa bertze modu batera egiten da». Hori bai, txapela berdea, koloretako zapia eta blusa beltza jantzi gabe ez da geldituko. Fraindarren bueltan akordeoi doinurik ez da faltako.



Tel.: 639 626 812 | Bittiria 3 | 31770 LESAKA

IÑAKI JANARIDENDA
ONGI PASA INAUTERIAK
Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287

ARRANO ostialua
Albistur 13, Lesaka, 948 627 597
KRUKETAK, PINTXOAK, BOKATAK, ENTSALADAK, PLATER KONBINATUAK eta giro bikaina PRESO TA IHESLARIAK ETXERA!

ZOANSA ONGI PASA INAUTERIAK
MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • TXAPA • PINTURA
Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05
e-mail: zoansa@zoansa.com
Banarta, 2 • Alkaiaga Ind. • 31789 LESAKA (Nafarroa)

PITTIN!
haurrentzako arropa denda
ONGI PASA INAUTERIAK!
T. 948 627 583 | Arretxea 20, Behea | LESAKA

KAGU LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7 (osasun-zentroaren parean) 31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBURU EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

Belarra jatetxea **ONGI PASA INAUTERIAKI**



Amezitia zeharkarrika, 3 · 31740 DONEZTEBE
T. 948 450 306 · www.restaurantebelarra.com

MALE REKA KUSTOM

ARROPA ETA OSAGARRI PERTSONALIZATUAK
Nagusia, 1 · Doneztebe
T. 948 451 571
T. 636 885 190
male-reka@male-reka.com
f Male-Reka

ongi pasa inauteriak!

TITI BAR DONEZTEBE



ongi pasa inauteriak

Amezitia, 7 - Doneztebe - Tel. 948 450 271

IBARBURU GASOLIOA ETXERA

KALEFAKZIOA · NEKAZARITZA · AUTOMOBILGINTZA

T. 610 258 595 Vicente Arocena Andueza
Iruña-Irun Errep. 48,5 km. 31740 DONEZTEBE

Arozena ostatu · jatetxea

Gosariak bazkariak eta afariak

ongi pasa inauteriak!

T. 948 450 443
Leitzako errep., 84 · Doneztebe

erran. eus

EDERKI tailerra

CITRÖEN ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

ongi pasa inauteriak!

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

doneztebe

INAUTERIAK 2020



egitaraua

Otsailak 20, ortzeguna

20:00etan triki-poteoa herrian barna, Titi ostatutik abiatuta.
21:30ean afaria Herriko Ostatuan.
Afalondoan dantzaldia.

Otsailak 21, ortziralea

09:00etan Titi ostatuan elkartuko dira baserri baserri ibiltzera joateko.
Goizean eskolako gaztetxoak herrian barna ibiliko dira eta Bear Zana pilotalekuan bukatuko dute ibilbidea. **15:00etan** bazkaria egingen dute Herriko Ostatuan. **Ondotik** dantzaldia izanen dute.

Otsailak 22, larunbata

16:30 karrozen desfilea egingen dute. Aparandik abiatuta, herrian barna ibiliko dira.



EROSI ONLINE 

www.lamascara.es

LA MASCARA

Inauterietako mozorroetan den-dena daukagu
Era guztietako osagarrien salmenta
Makillaje profesionala

www.lamascara.es
mascara@lamascara.es
Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04

«Bilobak eta lagunak eskean etortzen direnean guztien amatxi sentitzen naiz»

Dolores ALBERRO BURGUETE

Petrisantzenea etxeko Dolores ongi ezagutzen dute Doneztebeko gazteek. Urtero eskaintzen die inauterietako ortziralean gosaria. Bisitarietara eman eta trukean, «haien poztasunak negua pasatzeko indarra» ematen diola dio.

Arizkunen jaio zen duela 81 urte eta zortzi urte zituenetik Doneztebera ekarri zuen, «hamar senideko familia ginen eta gure etxean ez zuten denak hazteko aukerarik». Petrisantzenea izan du geroztik bizileku, «hamabi urte beranduago, 1958an, etxe horretako seme batekin ezkondu nintzen, Patxikurekin, eta gaur egun etxe horretan jarraitzen dut bizitzen familia ederra osatuta».

Inauterizalea beti

Beti gustatu izan zaizkio inauteriak, «lehen eta orain. Adin desberdinetako pertsonak eta kuadrillak elkartu eta herria musika eta algaraz betetzen delako». Dena den, azpimarratu du gaur egungoak «anitz gustatzen» zaizkiola, «orain neska eta mutil kuadrilla ederra ibiltzen delako eskean, garai batean bakarrik mutilen kontua zen».

Orduan, «baserrira eskean mozo-roturik etortzen zirenean bizitzen» zituena inauteriak: «akordeoiarekin etortzen ziren eta gosari eder batekin ongiatorria ematen genien, denak elkarrekin tarte ederrak pasatzen genituen».

Urteak pasa dira, garaiak aldatu eta bere ondorengoek besta bizitzeko aukera dutela ikusita pozik dago Dolores, «biloben jantzietan konponketak egiten aritzen naiz eta baserrietan eskean joateko nire mandarrak uzten dizkiet».

Gosari ederra

Eskean dabiltzan gazteak etxean hartzeko ohiturari eutsi dio Dolores: «hasiera batean nire etxean ematen nien gosaria, baina orduan lau baserri ginen Oteiza auzoan eta etxe guztietan sartzen ziren gosaltzera. Gaur egun, gero eta helduagoak gara auzoak eta momentu honetan bakarrik



nire etxean sartzen dira. Etortzen den kuadrilla handia da eta etxe azpian dugun txokoan ematen diegu gosaria».

«Gaur egungo inauteriak anitz gustatzen zaizkit. Orain neska eta mutil kuadrilla ederra ibiltzen delako eskean»

Senideek laguntzen omen diote gosaria prestatzen, «txistorra, xingarra eta gazta ematen diegu eta azken aldiak kafea ere bai». Gazteek, egin berri duten kafearekin, ajeari buelta eman eta egonaldia luzatzen omen dute, «horrela, bakoitza ze etxetako den jakiteko denbora ematen dit». Momentu berezia da beretzat, «nire bilobak, haien lagunekin etortzen dira eta egun horretan guztien amatxi sentitzen naiz».

Sortzen den giroa ere paregabea dela azaldu digu: «trikitixak, panderoak...ekartzen dituzte eta denetarik jotzen dute, mahai inguruan kantatzen dugu eta haiekin jota eta zortziko bat dantzatzera animatzen naiz». Badituzte tradizio bihurtu diren ohiturak ere, «urtero, joan aurretik *Eskerrik asko Jauna* abestiarekin agurra ematen digute eta ondorengoak, etxeko atarian, argazki bat ateratzen dugu oroitzapen moduan». Pasa den urteko argazkia ikusita, bistakoa da denei on egiten diela gosariak.

Taupada
Zentroa

Itxaso Mendizabal: 667308826

Dietista, biomagnetisista, erresonantzia makina, balorazioa eta tratamenduak

Melissa Ribas 690911498 Osteopata

Juan Balletero 633830086 Homeopata

Iratxe Fernandez 616203516 Konstelazio familiarak

Santaluzia plaza 2. Ezkerra behea Doneztebe

Bidasoa

Ongi pasa inauteriak!

Gurpil salmenta · Tailerra · Gasolio banaketa · Gasolindegia

Tel.: 948 625 663 · 609 446 693

e-mail: nbidasoa@gmail.com

Alkaiaga Industrialdea
Ziobi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)

Noain-Eskiroz Industrialdea
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)



**INAUTERIAK, IÑAUTERIAK,
ARATUSTEAK, INOTEAK...**

**TXUKUNTASUNEZ ETA ERRESPECTUZ
ELEGANTE PASATZEA OPA DIZUE
DONEZTEBEKO UDALAK
HERRITAR ETA BISITARI GUZTIEI**



etxalar

INAUTERIAK 2020



egitaraua

Otsailak 20, ortzeguna

Goizean haurrak eskean ibiliko dira, etxez etxe. **14:30ean** Landagain eskolako ikasleak plazatik abiatu eta herrian barna antzerki eta dantza saioak eskainiko dituzte. **Ondotik** berendua izanen da herritar guztientzat eta musikariek alaituta.

Otsailak 23, igandea

Zaldun inaute egunean kinto bestak ospatuko dituzte.

Otsailak 24, astelehena

08:00etan herriko gazteak La Basque ostatuan bilduko dira gosaltzeko eta ondotik, egun osoan, eskean ibiliko dira goiko eta beheko auzoetan.

Otsailak 25, asteartea

12:00etan herriari itzulia emanen diete mozzorro eta karrozekin. **Eguerdian**, bazkaria izanen dute Herriko Ostatuan. Bazkalondoa girotzeko ekitaldiren bat ere izanen dute (zehaztu gabe oraindik) eta **iluntzean** musika. Jubilatuen elkartekook bazkaria izanen dute Larraburuan.



ETXALARKO
UDALAK

*inauteri onak opa dizkizue
etxalartar eta bisitari guztiei*

ETXALARKO EKITATIBA eta HARITZPE OKINDEGIAREN partetik
GORA INAUTERIAK!

 haritzpe
Etxalarko okindegia

T. 618 778 328 | www.haritzpeokindegia.com



ETXALARKO EKITATIBA

T. 948 635 026

«Tikiak ginenean karroza gehiago izaten ziren eta horren falta sumatzen dut»

Leire IRIBARREN INDABURU
Etxalarko musikari gaztea

Trikitixa eta panderoa bide-lagun ditu Leirek bizitzan. Lauzpabost urterekin hasi zen panderoa ikasten eta zazpirekin trikitixa, «nahiz eta instrumentua ni baino handiago izan». Gurasoei ikusi eta ahizparen pausoei segika hasi zuen bidea. Orain musikak, «lagunarteko giroan gozatzeko aukera» ematen dio.

Erlaitz musika taldeko kidea da, «Olaia eta Uxue Iturria eta Martxel Larrazarekin batera». Sona izan du pasa den urteko udan kaleratu zuten *Mundua aldatu* abestiak. Urtebete lehenago sortu zuten pieza, «2018an Euskal Herriko trikitixa elkarteak antolatzen duen maketa leihaketaketan parte hartzeko» eta 2019ko udan argitaratu zuten. Nabari zaio gustura ibili zela saltsan eta emaitza elkarlaren fruitua izan zela azpimarratu nahi izan du: «lehenengo erritmo bat aukeratu genuen. Gero, bakoitzak zati batzuk asmatu genituen eta bukatzeko, gure irakaslea den Itsaso Elizagoienekin zatiak elkartu genituen».

Anitzetan izan ez bada ere, zuzenean eskaini dute abestia: «talde bezala herrian soilik jo dugu, bestetako trikitilarien emanaldian, inauterietan...» baina badute etorkizunean, pixkanaka, agenda betetzen joateko asmoa.

Astelehenean baserriz baserri

Momentuz, astelehenean inauterietan astinduko du berriz ere infernuko hauspoa: «Inaute inaute egunean, gazteak baserriz baserri ibiltzen gara eskean trikitixarekin giroa animatuz». Bidean bromak, dantzak, barreak... eta «rantxera edo kalejirarik ez da faltako».

Astelehenekoa Etxalarko inauterietan «bereizgarria» dela erran digun arren, bertze egunetan ere badute disfrutatzeke aukera: «ortzegunean hasten dira inauteriak, goizean haurrak eskean ibiltzen dira eta arratsaldean antzerkiak egiten dituzte». Igandean kinto bazkarien txanda izaten da eta aurtengoa berezia izanen da Leirerentzat: «hemezortzi urte

betetzen ditugun urtean hasten gara bazkariak egiten, beraz, aurten nire lehenbiziko aldia izanen da». Gogotsu dago, baina gordeko ditu indarrak biharamunerako: «astelehenean inaute inaute ibiltzeko».

Inauteriak borobiltzeko

Baserritar jantzia soinetik kendu eta mozorroa jantzita borobilduko ditu Leirek inauteriak: «asteartea karrozen eguna izaten da. Goizean desfilea egiten da, gero bakoitzak bere kuadrilarekin bazkaria egiten du eta arratsaldean besta pixka bat». Proposamena ere luzatu du: «polita litzateke karroza gehiago ateratzea. Gogoan dut tikiak ginenean karroza gehiago izaten zirela eta horren falta sumatzen dut. Ikusgarria izaten zen».

«Inaute inaute egunean trikitixarekin giroa animatuz ibiltzen gara eta rantxera edo kalejirarik ez da faltako»

Milaka ideia buruan baina mozorroa oraindik falta dutela ere aitortu digu: «nahiz eta ideak pentsatzen goiz xamar hasi, azkenean azkeneko momentuan aukeratzen dugu gaia». Etxeko arrokekin egiten saiatzen omen dira, «baina beti zerbait erosi behar izaten da». Orain arte jantzi izan dituen mozorroen artean ere badu kuttunena: «Sevillarrez jantzi ginenekoa dut bereziki gogoan. Zortzi urte izanen nituen. Flamenkoa dantzatzen ere saiatu ginen». Jantzi nahiko lukeen mozorroaz galdetuta, berriz, Mamma Mia musikala aipatu digu. Dantzari sena ateratzen zaiola dirudi, mozorroa janzen duenean.

Tritikitixa eta panderoarekin hasi eta kriskitinak eta 70eko hamarkadako musika aipatuz bukatu dugu elkarriketa. Ez dakigu musika izanen den mundua aldatzeko giltza; argi dago Leirek ez duela ulertzen musikarik gabe bizitza.



bai zehatzia musikarria

HERRIKO OKINDEGIA

ONCI PASA INAUTERIRIAK!

Ogi naturalak, ama oreaz eginak:
Espelta | Garia | Zekalea

Egunero irekia: 06:00 > 13:00 • T. 627 033 975 • ETXALAR

Herriko Ostatua-Jatetxea

Asteburuko eta eguneroko menuak, Plater konbinatuak, Errazioloak, Bokatak, Pintxoak, Hanburgesak, Pizzak...
Eta eramateko janariak ere

Andutzeta, 15 | ETXALAR | T. 948 635 465
www.etxalarherriko.eus



elizondo

INAUTERIAK 2020

egitaraua

Otsailak 21, ortziralea

Otsailak 22, larunbata

09:00etan Gaztetxetik abiatuko dira eta puskak bilduz hasiko dituzte inauteriak. **16:00etan** haurren desfilea izanen dute Ikastolako parketik hasita. (Eguraldi txarrarekin Baztan pilotalekuan). **Ondotik** txokolatada izanen dute Foru Plazan. (Eguraldi txarrarekin Iriarte pilotalekuan) **20:00etan** danborrada izanen dute, Herriko Etxetik abiatuta herri osoan barna ibiliko dira musikariek lagunduta. *Danborradarako izena Casino, Intza, Hiru edo Saioa Ostatueta eman beharko da (20 euro ordainduko dira danborrak eta pintxoak, pintxoak bakarrik 5 euro. Danborra ongi bueltatuz gero 10 euro itzuliko dituzte.

11:30etatik aurrera Elizondoko karrikak kolorez beteko dira. Ikastolako parketik abiatuta organ eta mozorroen desfilean egingen dute.



Suteia-Zaldain
instalazioak
IGOGAILUAK

PROFESIONALAK
 KALITATE-BERMEA
 IRISGARRITASUNA
 MANTENTZE
 LANAK



Santiago, 71 | ELIZONDO
 T. 948 580 166 | M 619 424 999
 suteia@suteiazaldain.com

1 KANPOKO IGOGAILUAK

Kanpoko fatxadan gutziz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak.



Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2 BARRUKO IGOGAILUAK

Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe.



Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako egokitua.

3 IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu.



Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.

EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

hiru ostalua

BERTAN JAN edo ERAMATEKO
 Deskargatu gure APPa eta egin zure eskaera

... betikoa baina ezberdina

ONGI PASA INAUTERIAK!

Kaxulak, plater konbinatuak, bokatak, pizzak, hanburgesak, ensaladak, fritoak...

Etorri eta dastatu gure berezitasunak!

Baztan Berri 7 B | ELIZONDO | T 948 581 219



INTZA TABERNA

Ongi pasa inauteriak!



BOKATAK
 PINTXOAK

...

T. 948 580 417

Mendi ostalua eta jatetxea



Eguneko menua · Plater konbinatuak
 Bokatak · Pintxoak · Razioak
 Hamarretakoak · Bazkariak · Afariak
Deitu eta egin erreserba!

Goizeko 8etatik gauerdirarte · T. 948 580 313

«Lotsak alde batera utzi eta ahalik eta hobekien pasatzen saiatzen gara»

Ioritz MITXELTORENA SANSIÑENA
Elizondoko gaztea

Karrikak alaitzeko asmoz, pasa den urtean txaranga sortzea erabaki zuten Elizondoko Musika Bandako hainbat kidek. Tartean da Ioritz Mitxeltoarena gaztea, «gaur gaurkoz hamasei lagunek osatzen dugu Tuku Tuku Txaranga». Saxofoia jotzen du bertan, «zazpi urte nituenetik jotzen dut. Ttikitatik izan dut musika ikasteko aukera eta orain arte ez naiz inoiz gelditu».

Abesti bakoitza behar den bezala jotzeko, «astero ez bada, bi astez behin» egiten omen dituzte entseguak eta orain arte, Elizondon eta inguruko herrietan aritu izan dira, «deitzen gaituzten guztietan».

Inauterietan ere musikari

Inauteriak ailegatzean ere, ez du saxofoia aparte utziko, «ostiral arratsaldean danborradan ateratzen gara musika bandako guztiak». Berreskuratu duten ekitaldia da danborrada: «aspaldi egiten zen, baina galdu egin zen ohitura. Duela hiruzpalau urte hasi ginen berriz egiten. Musika Bandako kideok haize-instrumentuak jotzen ditugu eta herriko jendeak danborra».

Danborradarekin besta giroa lehertzen bada ere, aitzinetik herrian mugimendua izaten dela azaldu digu: «nik ez dut inoiz parte hartu, baina badira urte batzuk moxorroak ateratzen direla puskak biltzera eta sekulako giroa izaten da. Gosariarekin hasten dira eta eguerdi arte ibiltzen dira eskean, musika joaz, dantzan eta kantuan». Arratsaldean, berriz, bi eskoletako haur, guraso eta irakasleak izaten dira protagonista: «desfilea egiten dute eta ni urtero ateratzen naiz ikustera».

Bestaren parte

Larunbatean, ikusle izatetik aktore izatera pasatzen da: «lagunartean karroza osatzen dugu eta goizean desfilea



egiten da Santiago karrikan barna». Kuadrillako lagunek gogotsu hartzen omen dute eguna, «lotsak alde batera utzi eta ahalik eta hobekien pasatzen saiatzen gara». Joan den urtean, erraterako, ederki pasatzeko aukera izan omen zuten: «Grand Prix irudikatu genuen eta mozorroa beragatik baino, egin genuen jokoagatik izan zen bikaina».

Zer hobetu

Inauteriek ez omen dute deus ere soberan, «hiru ekitaldi nagusi izaten dira eta hiruretan parte hartzeko aukera eman eta gonbidapena luzatzen dute». Gehitzekotan, berriz, «larunbat arratsaldean ekitaldiaren bat» jarriko luke: «karrozen desfilea egiten hasi zenean, goiz eta arratsaldez izaten zen desfilea. Badira urte dexente arratsaldeko desfilea egiten ez dela». Behin paperean sartuta, ez baita hainbeste kostatzen berriro ere fokupean jartzea. Eta aprobetxatu beharra dago, litekeena baita biharamunean lotsa bueltan etortzea.



ELBETEKO POSADA

Ongi pasa inauteriak!

- Eguneko menua aste tartzet
- Karta zabala eta sasoiko plater bereziak
- Asteburuetan karta
- Slow Food eta KM 0

ELBETE • Karrikaundi • T. 948 581 519
info@posadaelbete.com • www.posadaelbete.com



mañonea

ASEGURUAK AGENTZIA

*Konfiantzazko pertsonak
Hemengoak gara*

Generali Aseguruen Agente Esklusiboa
Erregistro zkia.: C0072B71193304
Braulio Iriarte, 9 31700 ELIZONDO (Na)
606 89 68 43 - 626 49 42 43
www.mañonea.com

ostatua

GOIZALDE

MENUAK • KAXULAK • BOKATAK • PINTXOAK



948 581 334 | Jaime Urrutia, 8 | ELIZONDO

ONGI PASA INAUTERIAK!!!

TXOKOTO

MENUAK • KAXULAK • BOKATAK • PINTXOAK



948 58 05 51 | Braulio Iriarte 25 | ELIZONDO



ANZABAL

inmobiliaria



Ongi pasa inauteriak!

- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripueta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserrí, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



Pinturas
Iñaki Alzuyet
margoak

Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)

- ⇒ Fatxaden zaharbertitza
- ⇒ Barne-dekorazioa
- ⇒ Isolamenduak pladurrean
- ⇒ Pintura industrial
- ⇒ Egurra eta altzarien lakatze eta bernizatzea kabinan

pinturasalzuyet@yahoo.es

urdazubi

INAUTERIAK 2020

egitaraua

Otsailak 23, igandea

09:30etan gazteen gosaria izanen dute Gaiñara elkarteak. Segidan mozorroak jantziko dituzte (mozorrotzeko gaia: P letraz hasten den edozein mozorro) eta Dantxarinetik barna, bentza benta ibiliko dira eskean ilundu arte. **21:30ean** pintxoak eta musika denendako Indianobaitan.



Otsailak 24, astelehena, eta otsailak 25, asteartea

09:30ean herriko haurrak elkartu eta etxez etxe eskean ibiliko dira eta bukatzean herrira jaitsiko dira. **10:00etan** gazteak Indianobaitan elkartu eta kafea ttantarekin hartu ondotik, baserri baserri ibiliko dira musikak alaiturik. 21:30ean pintxoak eta musika izanen dituzte denentzat.



Urdazubiko Udalak
inauteri zorionsuak
opa dizkizue
urdazubiar eta
bisitari guztiei !



JOSENEA
ZONE AUTO

ONGI PASA
INAUTERIAK

MUGAIRE
ZONE AUTO



N-121-B errep. • Dantxarinea • 31712 URDAX • T.(0034) 948 59 92 36 • centreauto@josenea.es
Iruña-Frantzia errep. N-121-A 48,5.km • 31720 ORONOZ-MUGAIRE • T. 948 599090 • administracion@josenea.es

«Badakit zer nolako bromak egiten ahal diren eta horiek saihesten saiatzen naiz»

Antonio ELORGA GALAINENA
50 urteko urdazubiarra

Barne barnetik bizi zituen inauteriak kanpotik ikusteko tenorea ailegatu zaio Antoniori eta aitortu du, «inbidia handia» sentitzen duela. Horren erakusle da, inauterietatik erretiroa hartzeko urtea ohikoa baino gehiago gibeleratu izana, «urte batzuz luzatu nuen bai, baina gehiago ere luzatu izanen nukeen! Inauterietan ibiltzeko gogoia ez baitzait inoiz falta izan!». Gazteek ere gustuko izanen zuten bere konpainia; gogoan du azkeneko urtean «despedida eta guzti» egin ziotela.

Azken aldia bezain ongi oroitzen da aurrenekoaz, «lehenengo urtea izanik ilusio ikaragarriarekin hartu nituen inauteriak. Nahiz eta pixka bat urduri egon, arras ongi pasatu genuen». Irriz azaldu digu maisu onak izan zituela: «gu baino zaharragoak zirenei ikusiz ikasi genituen bromak eta ohiturak. Gero, guk praktikan jartzen genituen».

Zirikatzailea

Berezkoa du zirikatze gria Antonio eta inauterietan aski ezagunak ziren bere bromak: «belar bola bota, bide bazterretako harriak eta adarrak hartu eta bide erdian jarri, etxeetako uraren mangera hartu eta jendea busti... seguru badirela bertze zenbait jada ahanzi ditudanak». Orain bera da gazteen bromen hartzaile, baina ez dute ustekabe harrapatzen: «saiatu izan dira behin baino gehiagotan, bai-

na lehenagotik etxea ongi prestatzen dut inork ezer ez egiteko». Badaki zer nolako bromak egin ahal izaten diren «eta hortaz, horiek saihesten saiatzen naiz». Erroka bikoitza, beraz, ziria sartu nahi diotenentzat.

«Gu baino zaharragoak zirenei ikusiz ikasi genituen bromak eta ohiturak. Gero, guk praktikan jartzen genituen»

Inauteriak orain

Orain, «bertzeak ikusiz disfrutatzen» duela dio. Eta ikusi bakarrik ez, inauteriak ez baitira gazteen eskera mugatzen: «herri guziarentzat antolatzen dira gauzak, janari eta musika giroan ongi pasatzeko aukera izaten dugu herritar guztiok». Igandean familiako bazkari batekin hasten ditu inauteriak, «bazkal ondoan herriko ostatura hurbiltzen gara inauterietan ibilki direnak zer nolako sasoi eta egoeratan ailegatzeko». Astelehenarekin gazteak hartzen ditu etxean «eta haien besta giroan» ibiltzen da, «batekin eta bertzearekin solasean». Gauean, berriz «herriko ostatura joaten naiz familiarekin pintxoak jatera eta trago batzuk hartzera». Azken egunean, asteartean, «pintxoak jatera eta musika aditzera joaten naiz, inauteriak hurrengo urterarte gurtuz».



VENTA
ZUBIONDOA
Ostatua, supermerkatua, denda

Landibar, 7 Urdazubi | Tel. 948 599 041
www.zubiondoa.com | info@zubiondoa.com

SANTIAGO VILLARES S.L.
Ongi pasa inauteriak!

LUZERNA-PENTSU ETA FORRAJEAREN
SALMENTA ETA ESPORTAZIOA
LASTOA
LUZERNA

Móvil (Santiago Villares): 609 415 777
T. (0034) 948 59 91 34
Fax. 948 59 91 56

info@santiagovillares.com
www.santiagovillares.com

ARRETXEIA ESTANKOIA

ZIGARRO PURUEN CAVA

DANTXARINEA (Urdazubi) | T. 948 599 018 | F. 948 599 015 | estancoarrechea@yahoo.es

Oxeguarda
ostatua

Ongi pasa inauteriak!



T. 948 514 019 • Nagusia, 34 • GOIZUETA

ZUBIONDO
TABERNA

ZUBIONDO DENA ONDO

grill, pizzak, eta abar



ongi pasa
inauteriak!

Espiritu Santo · GOIZUETA · 690 831 851



Pintxoak,
bazkariak eta
afariak



Etorri GOIZUETAko fauna ezagutzera!!

Tel. 948 514 102 · GOIZUETA

anaiak
apezetxea



- LAN ZIBILAK
- ERAIKUNTZA
- TOPOGRAFIA



Calle Berrioazar 19.
Planta 2. Oficina N° 41
31013 Ansoain (Nafarroa)

Info@apezetxeanaiak.com
T. 948 315 200
www.apezetxeanaiak.com

goizuetza

INAUTERIAK 2020



egitaraua



Otsailak 23, igandea

17:00etan gaztetxoan zahagi dantzarekin hasiko dituzte inauteriak. **18:00etatik 21:00etara** dantzaldia izanen dute Leire eta Maria trikitilariekin eta **21:30ean** mozorroen afarian biharamunerako indarrak hartuko dituzte.

Otsailak 24, astelehena

08:00etan mozorroak baserrietara abiatuko dira. **10:00etan** konpartsakoek plaza apainduko dute. **11:30ean** gosaria. **Gero**, Zirkua gaitzat hartuta, herrian konpartsa izanen da. **Eguerdian** ume eta helduen bazkaria. **14:00etatik 16:30era** umeek tailerrak eta zinema emanaldia izanen dituzte Goxalin. **18:00etan** txokolate jatea eta dantzaldia izanen dute Gorka eta Garazirekin. **Ilunabarrean** mozorroen etorrera. **22:00etan** mozorroen afaria.

Otsailak 25, asteartea

09:00etan mozorroen gosariak alaituko du herria eta **10:00etan** mozorroak dantzan ibiliko dira herriko kaleetan barna. **14:30ean** bazkaltzera joanen dira eta **17:30ean** zahagi dantza izanen da Motzanetik hasita. **18:30etik 21:30era** Txoko DJa **22:00etan** mozorroen afaria.

Otsailak 29, larunbata

13:00etan poteo musikatuarekin hasiko dute eguna, Igandea txarangako kideak gonbidatu dituzte. **14:30ean** mozorroen bazkaria izanen da eta **17:30etik aurrera**, txarangaren erritmorak bukaera emanen diete inauteriei.



«Giroa, denon artean, mozorro, ume eta helduok elkarrekin sortu behar dugu»

Izaskun BAKERO ESKUDERO Goizuetako inauterizalea

Hamasei bat urte bete arte ez zuen Goizuetako inauteriak bizitzeko modurik izan Izaskunek, «Goizuetan jaio, baina gure aitaren lanaren ondorioz Goizuetatik Añorgara bizitzera joan ginen». Amak transmisio lana egin eta gorde zuten herriarekiko lotura: «Añorgan ez ziren inauteriak ospatzen, baina garaia ailegatzen zenean, gure amak beti oroitazten zigun Goizuetako zahagi-dantza baita zahagi-dantzako kanta kantatu ere: *Zatoz zatoz nire ondora, ez dezazula ihes egin. Ni ez naiz mozorroa, izanagatik lau begi Zatoz zatoz nire ondora, ez dezazula ihes egin*».

Gogoan du zahagi-dantza lehenbiziko aldiz ikusi zueneko, «bihotza danpadaka hasi eta zahagitik ihesi, tximista baino azkarrago hasi nintzen lasterka egiten». Aurpegia pixka bat zikindu baino ez du egiten, «baina hor dago jokua, zahagiak zu ez harra-patzea!». Pasa den urtean, ordea, ez zen zahagitik aparte ibili: «nire seme zaharrena, Eneko, izan zen zahagia eta ezin dut azaldu nola sentitu nintzen. Oso pozik eta harro!».

Mozorroak

Ez da inoiz mozorro atera, «herritik bizitzea gustatu izan zait beti. Korneta soinuak aditu eta pentsatzea, halako baserritan egonen dira». Korneta hurbil aditzean, berriz, «plazatik mendi aldera begiratu eta arrasto txuri-gorrik ikusten ote diren» begira aritzen da.

Mozorroei lotuta egon diren al-daketak ere aipatu ditu. Bere ustez, batzuk, hoberako izan dira: «aldaketa handia izan zen emakumeen parte-hartzea. Eta esango nuke gaur egun gehiengoa emakumeak direla. Lehen-go urtean, lehenbiziko aldiz, zahagia emakumea izan zen». Besteak, ez: «lana, ikasketak.. parte-hartzea zaildu egiten dute eta gaur egun mozorroak garrantzia ematen diete astelehenari, batez ere, baserriz baserri ibiltzeari. Nire ustez, garai batean bezala, mozorroa hiru egunetan izan behar da; goiz, eguerdi eta gau».

Konpartsaren gidari

Igandean ikusle izan eta astelehenan, konpartsarekin, bete-betean sartzen da inauteri giroan. Uste du: «astelehenen Guraso Elkarteak egin duen ekarpena bikaina» izan dela. Hilabete lehenago hasten dira antolaketan lanetan, «bilera egiten dugu gai bat aukeratzeko». Horrekin lotura izan dezakeen koreografia bat asmatzea izaten da Izaskunen egitekoa: «Aerobikeko monitorea izandua naiz eta horrela hasi nintzen konpartsarekin. Ikasleek egin zidaten proposamena, animatu eta 15 urte daramatzat prestatzen!». Aurtengo gaia, «zirkoa» izanen dela aurreratu digu eta gonbidapena luzatu: «parte-hartze handia izaten da, baina jendeak jakin dezala nahi duenak parte hartu dezakeela. Denentzat irekia dela!».

«Konpartsan parte-hartzea handia izaten da, baina jendeak jakin dezala nahi duenak parte hartu dezakeela, denentzat irekia dela»

Goizetik hasten dira herria girotzen: «ume eta gurasook, koreografia dantzatzuz, herriari buelta ematen diogu. Ondoren, Umore Ona Elkarten bazkari bat antolatzen da eta arratsaldean txokolatea bizkotxoarekin banatzen dugu plazan. Mozorroen etorreraren zain gauden bitartean».

Asteleheneko mozorroa erantzi eta asteartekoa janzen du Izaskunek: «duela 10 bat urte herriko emakume batekin elkartu nintzen». Dantzak ez ditu aparte uzten: «talde honi egiten diodan ekarpena koreografia bat izaten da».

Inauteriak borobilak izateko, denon parte-hartzea ezinbestekoa dela uste du: «giroa denon artean, mozorro, ume eta helduok elkarrekin, sortu behar dugu. Bisitarietara ere egin die gonbidapena, «jendea animatu nahi dut gure herriko inauteriak aurrez aurre ezagutzera. Seguru nago elkarrekin ederki pasako dugula!».



Pintxok
Razik
Bokatak
Platerak
Terraza
Fiesta
948 514 327
Goizuetako

Zubimuxu
ATERPEA
WWW.ZUBIMUXU.COM
663 85 85 02

AMAI
OKINDEGIA
GOZOTEGIA
ONGI PASA INAUTERIAKI
bai
euskarari
zerbitzua
euskaraz
K. Nagusia • GOIZUETA • 948 514 242


Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan
CIEsek **Nafarroa Garaiko
mendialdean** hartu duen
11 udalerrien eremuan ere.



ttipi-ttapa

32.000 irakurle



SEXUAREN ARABERA




%54,6
EMAKUMEA




%45,4
GIZONAK

ADINAREN ARABERA



IKASKETA MAILAREN ARABERA



Baztango Udalarri arrazoï eman diote zahar etxeko aferan

Zahar etxea kudeatzen duen IDEA enpresaren errekurtsioa ez du onartu Nafarroako Auzitegi Nagusiak

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalaren eta Francisco Joaquín de Iriarte zahar etxea kudeatzen duen Innovación y Desarrollo Asistencial SL (IDEA) enpresaren artean urteko kontuei buruzko auzi-bidea irekita dago.

2019ko apirilean Nafarroako Auzitegi Nagusiak udalaren aldeko epaia eman zuen, ondotik IDEAk errekurritu zuena.

Ilbeltzaren 28an argitaratutako epaiak IDEAren helegitea ez du onartu eta, beraz, Baztango Udalaren aldeko epaia behin betikoa da.

Horren ondorioz, 2013, 2014 eta 2015 urteko kontuengatik Balleko Etxeari 62.000 euro inguru itzuli beharko dizkio enpresak. Zehazki 2013ko 14.734,16 euro, 2014ko 19.434,90 euro eta 2015eko 27.966,44 euro zor dizkio IDEAk Baztango Udalarri.

2016an eta 2017an ere zor

Aldi berean 2016 eta 2017ko kontuak erreklamatu dizkio Baztango Udalak, 34.012,69 eta 16.453,63 euro, hurrenez hurren. Erreklamazioa 2019ko maiatzean egin zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Elgorriagako bainuetxeak Q ziurtagiria

Elgorriagako bainuetxeak Kalitatearen Q ziurtagiria lortu du. Espainiako Turismo Kalitatearen Institutuaren eskutik, Elgorriagako bainuetxeako ordezkari Cristina Gelbenzuk (erdian) ilbeltzaren 23an hartu zuen ziurtagiria, Madrilgo Zibelesko Kristalezko Jauregiko Galerian.

balneario
elgorriaga
hotela-bainuetxea

sanvirila
hoteles de ensueño



Zure jaunartzean besta egun zoragarria!

Menu aukera zabala • Jangela pribatua • Bazkal ondorengo festa (aukeran)



Errotalde z/g 31744 **ELGORRIAGA** (Nafarroa) | T. 948.45.60.45 | www.balnearioelgorriaga.com

Kamioiak N-121-A errepidetik ateratzea eskatu dute alkateek

Nazioarteko zama garraioan dabiltzanak A15 autobidera bideratzea eskatu dute Nafarroako Parlamentuan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesiorako Batzordean N-121-A errepidearen inguruko alkateen ordezkariekin lan-saioa egin zuten ilbeltzaren 28an. Eremu osoko herrien izenean lau alkate joan ziren batzordera eta eskaera bakarra jarri dute mahai gainean: «premiazkoa da nazioarteko zama garraioan dabiltzan kamioiak N-121-A errepidetik ateratzea». Alkateek nazioarteko trafikoa desbideratzeko eskatu zuten Nafarroako Parlamentuan. «Berehalako konponbidea

behar dugu eta nazioarteko trafikoa ateratzea bertze irtenbiderik ez dugu ikusten». Hala, Juankar Unanua Igantziko alkateak «N-121-A errepideak jasaten duen kamioi kopurua arrisku faktore bat» dela adierazi zuen, eta, horregatik, «arriskua minimizatzearen» alde egin zuen. Hori erdiesteko, «trafiko hori bertze bide batzuetatik desbideratzea beharrezkoa dela» azpimarratu zuen.

Joseba Otondo Baztango alkateak hainbat datu jarri zituen mahai gainean. «N-121-A errepidetik egunean 10.000 ibilgai-

lu pasatzen dira eta horietatik 3.900 kamioiak dira egun batzuetan. Eta pasatzen diren kamioietatik %60 nazioarteko zama garraioan ari diren kamioiak» direla erran zuen, eta, funtsean, «eskualdea helburu ez duten kamioiak». Kamioi kopuru hori N-121-A errepidetik ateratzea posible dela ikusten du. «Errioxako errepide batekin antzeko neurri bat hartua du jada Espainiako Gobernuak Errege Dekretu baten bitartez». Eta gogora ekarri zuen «azkeneko 25 urteotan 195 pertsona hil» direla N-121-A errepideko trafiko istripuetan.

Pedro Lezaun Ezkabarteko alkateak eta Martin Pikabea Ultzamako alkateak ere bat egin zuten eskaerarekin: «Hau sokorru dei bat da, egoera hau estres handiz bizi duen inguru batean bizi garelako. Babesik gabe gaude, eta hainbertze kamioirako prest ez dagoen bide bat izatearen eragozpenak sufrizten ditugu egunero».

Aurreratzea mugatu oraingoz

Ez du ematen Nafarroako Gobernuak oraingoz bidea emanen dionik alkateek egindako eskaerari. Horren ordez, bertze neurri batzuk hartuko dituztela jakinarazi diete. Neurri horien artean daude, N-121-A errepidea 2+1 bihurtu bitartean, hiru erreiko zatietan aurreratzeak noranzko bakarrera mugatzea, abiadura kontrolatzeko radar finkoak jartzea, poliziaren presentzia indartzea, arriskuaren kontzientzia hartzeko bide-segurtasuneko kanpainak egitea, errepidea kameran eta adimen artifizialaren bidez aztertzeko proiektu pilotua abian jartzea, seinaleztapen horizontala eta bide-zorua berritzea edota tuneletan argiak hobetzea.



ZURE ENTZUMENA AZTERTZEKO TESTA

Galderak erantzun, eta ekarri testa kontsultara.

ENTZUMEN GALERAREN AURKAKO 2020ko PREBENTZIO KANPAINA



	BAI	EZ
1. Telebista edo irratia ongi entzuteko, bolumena dezente igo behar izaten dut.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. Jatetxeetan edota familia elkartzean, besteei ulertzea kosta egiten zait.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Esandakoa errepikatzea eskatu behar izaten dut maiz.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4. Baxu hitz egiten dutenean edo zurrumurrak entzutea kostatzen zait.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5. Jendeak xuxurlan hitz egiten duela iruditzen zait maiz.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6. Entzuten badut ere, hitzak ez ditut ulertzen batzuetan.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7. Zenbaitetan burrunba izaten dut belarrietan.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

BAIEZKOA erantzun baduzu **3 galdera edo gehiagotan** entzumenaren azterketa egitea gomendagarria da. **Erreserbatu zita** gure Irungo entzumen-zentroan: **943 633 305** · Colon Pasealekua 27, etxabea (turismo bulegoaren ondoan).

Expopiribus aurkezteko bilerak otsailaren 6an

Erakusketa martxoaren 30etik apirilaren 12ra ikusgai izanen da Bertizko Natur Parkean

TTIPI-TTAPA

Pirinioak lurralde geografiko bakarrak dira, balio natural eta kultural handikoak, edertasun handiko mendikate bakarra egiten dutenak. Hezkuntza eta Pirinioetako ondarearen balorizazioa helburu duen ADN PYR erakusketa ibiltariak Ipar eta Hego Pirinioak zeharkatuko ditu eta martxoaren 30etik apirilaren 12ra izanen da ikusgai Bertizen.

Mendikatearen bi aldetako 60 erakunde baino gehiagok osatzen duten Pirinioak Bizirik Hezkuntza Sareak (www.repu.org) bultzatu du proiektu hau. Erakusketa eta proiektu hau aurkezteko bilerak deitu dituzte otsailaren 6an, ortzegun honetan 19:00etan Donezteben (Santa Luzia 5, behea) eta 19:30ean Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Proiektu eta erakusketaren aurkezpenaz gain, jarduera osagarriak ere aurkeztuko dituzte eta erakusketa bisitatzeko eta parte hartzeko gonbidapena luzatuko dute eta antolakuntzarako eta koordinaziorako kontaktuak bilatuko dituzte gure inguruan ere.

Erakusketa eta proiektu hau aurkezteko bilerak deitu dituzte otsailaren 6an, ortzegun honetan 19:00etan Donezteben (Santa Luzia 5, behea) eta 19:30ean Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Proiektu eta erakusketaren aurkezpenaz gain, jarduera osagarriak ere aurkeztuko dituzte eta erakusketa bisitatzeko eta parte hartzeko gonbidapena luzatuko dute eta antolakuntzarako eta koordinaziorako kontaktuak bilatuko dituzte gure inguruan ere.



Expopiribus erakusketa aurkeztuko dute otsailaren 6an. UTZITAKO ARGAZKIA

Izen-ematea hilaren 25a arte

Erakusketa ibiltariak biztanleria eta era guztietako jenderegana heldu nahi du, elkarre eta gizataldeei garrantzi berezia emanez, animazioko eta ingurumen-hezkuntza espezifikoaren duen programa batekin, inguruko erakunde hauetara irekita dagoena, baita erakusketa pasatzen den lurraldera ere.


Erakusketan parte hartu edo antolaketan lagundu nahi du-

ten erakunde, elkarte edo taldeek otsailaren 25a baino lehen bete behar dute izen-emate orria eta piribusbertiz@gmail.com helbide elektronikora bidali behar dute. Fitxan, proposatzen diren aktibitatearen ezaugarriak zehaztu daitezke: data, iraupena, toki... Eskaerak jaso ondoren, antolakuntza taldeak denak balioetsiko ditu eta bere helburuekin harreman gehien dutenak aukeratzeko dituzte.

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO AURREMATRIKULA 2020-2021 IKASTURTEA

Jaso dezala
eskua
Publikoan
ikasi nahi
duenak!

Eskola Publikoa,
zure lehen aukera



Eskaerak otsailaren 3tik 7ra bitartean, lehen tokian eskatutako ikastetxean
Argibideak: 948 012 012 eta 012 | aurrematrikula.nafarroa.eus

Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra



Oianume sagardotegian bazkalduko dute. ARTXIBOKOA

Otsailaren 20an Donostiara joanen dira egun-pasa

Oianume sagardotegian bazkalduko dute eta arratsaldean musika doinuek girotuko dituzte bazterrak

FERNANDO ETXEBERRIA

Abian dira urteko bidaiak eta irteerak. Urtarrilaren 7an izen-emate epea ireki zuten eta otsailaren 6an izanen dute lehendabiziko hitzordua. Guztira 255 lagun joatekoak dira Joxe Angel musikariak, Angel Mari Peñagarikariak eta Julio Soto bertsolariak girotuko

duten sagardotegi-bazkarira. Hurrengo hitzordua otsailaren 20an, hirugarren ortzegunean, izanen dute. 142 kide, hiru autobusetan, egun-pasa Donostiara joanen dira. Bazkaltzeko Oianume sagardotegian elkartuko dira. Arratsaldean, Joxe Angelen musika izanen dute lagun.



PABLO IRASTORTZA

71 lagun Zalain-Biriatu mendi-bueltan

Mendizaleak urtea gogotsu hasi dute. 71 lagun bildu ziren lau ordu eta erdiko Zalain-Biriatu mendi-bueltan. Nahiz eta termometroak zero graduen bueltan ibili hotza akuilu suertatu zitzairen. Ondotik, bazkaltzeko bildu ziren.

Arantzako delegatua izateko deialdia zabalik

749. zenbakian azaldu bezala, orain arte Arkupeakeko Arantzako ordezkaria izan denak bere egitekoak utzi ditu. Herriko ordezkari izan nahi dutenek martxoaren 12a arteko epea izanen dute. Doneztebeko bulegoan eman behar da izena.

Martxoaren 14tik 21era Andaluzia ezagutzeko bidaia

Elkarteko 70 bidaiarik martxoaren 14tik 21era, astebetez, Andaluzia ezagutzeko aukera izanen dute. Bertzeak bertze, Sevillan, Kordoban eta Granadan barrena ibiliko dira. Hiri bakoitzean, bertako gidari bat lagun dutela, txokoen, eraikinen eta parajeen berri izanen dute. Bidaiak interes berezia eragin du eta toki eskasiagatik elkarteko hamar lagun lekuri gabe gelditu dira. Bakarren batek uko eginen balio, itxaron zerrandan daudenek parte hartzeko aukera izanen lukete.

Urteroko irteera Xabierrera martxoaren 10ean

Urtero bezala, elkartekoek Xabierrera irteera antolatuko dute. Martxoaren 10ean, asteartean, eginen dute eta joan nahi zutenek aste honetan ematekoa zuten izena. Herri bakoitzeko ordezkariari jakinarazteko deia eginga zuten elkartetik.

Mus txapelketa martxan da dagoeneko

Lanean hasiak dira elkarteko ordezkariak herri bakoitzean mus partidak noiz jokatu diren zehazten. Herriz herri kanporaketak jokatu ondotik, txapelaren txapelaren nor diren jakin nahian, Donezteben jokatu dute final handia, martxoaren 26an, hondarreko ortzegunean.



Final handia martxoaren 26an.

Legasako mendietan barna otsailaren 18an

Kirolariak hilabeteko erronka otsailaren 18rako antolatuko dute. Aldi horretan, Legasan izanen dute hitzordua. Herrian elkartuko ondotik, Narbarten barrena, 685 metro altuera duen Oteixon mendira joatekoak dira. Ondotik, mahaiaren bueltan bilduko dira.

Elgorriaga, Lesaka eta Leitzara datoz Bardoak egunotan

Finalurrekoetako bi saio otsailaren 29an Anizko elkartean eta martxoaren 14an Goizuetako ganbaran egingen dituzte

TTIPI-TTAPA

Bardoak Nafarroako taldeko berto ekimeneko lehen asteburuan eskualdea bisitatzekoa zuten bertsolariak, Beran izan baitzuten saioa. Asteburu honetan, otsailaren 7an, Elgorriagan ariko dira Bertsonautak (Alazne Untxalo, Amaia Elizagoien, Egoitz Gorosterrazu, Maialen Belarra, Irati Agesta, Lierni Oteiza, Maialen Kamino, Iker Gorosterrazu eta Xabi Garraus) eta Larraun; eta otsailaren 14an Lesakan, Lesakako Arranopola (Ane Telletxea, Eneko Fer-

nandez, Erika Lagoma, Estitxu Arozena, Etxahun Azkarraga, Iban Garro, Iratxe Muxika, Jon Silveira, Josu Sanjurjo, Lide Igoa, Ninbe Urtxegi eta Uxue Mesa) eta Barañaingo Bertso-piztiak artean eta Leitza, Leitza Ateberts komeni (Aitzol Eizmendi, Ander Fuentes *Itturri*, Ane Intxausti, Iñigo Gorostarzu, Joanes Illarregi, Migel Mari Elozegi *Luze*, Mikel Azpiroz *Txotxa* eta Xabat Illarregi) eta Barañaingo Hego Haizea taldearen artean izanen dira eskualdeko lehen faseko bertze saioak. Aitzinetik, otsai-



Bardoak ekimenaren aurkezpena, ibeltzaren 25ean Iruñean. UTZITAKO ARGAZKIA

laren 7an Lizarran ariko dira Ateberts komeniokoak Lizarra Bardeak taldekoekin, otsailaren 8an Iruñeko Zaldiko Maldikon Berako Lamixinekoak Dimtin taldearekin eta otsailaren 9an Barañainen, Ipar Haizea taldekoak Bertsonautak taldearekin.

Otsailaren 29an Anizko elkartean 19:00etan eta martxoaren 14an Goizuetako udaletxeko ganbaran 18:00etan egingen dituzte finalurreko-

tako bi saio, martxoaren 28an Lizarran jokatu den finale-rako bidean. Lizarra Ikastola-ko areto nagusian izanen da ekitaldia. Finalurrekoetatik sailkatutako hiru taldeak ariko dira kantuan, guztira berderatzi bertsolari gutxienez.

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus eta Lizarra Ikastolan zein Lizarrako Katxetas tabernan izanen dira salgai, baita leihtilan ere, finalaren egunean 15:30etik aitzinera.



bardoak 2020

Nafarroako Taldeko Bertsolari Txapelketa
Urtarrilaren 31tik Martxoaren 28ra

1. fasea

ELGORRIAGA. Otsailak 7 ostirala. Elgorriagako ostatuan, 19:00etan.
Bertsonautak (Malerreka-Baztan) – Larraun da Araitx. Bi dozena (Larraun-Araitx)

LESACA. Otsailak 14 ostirala. Arrano elkartean, 19:00etan.
Arranopola (Lesaka)– Bertso-piztiak (Barañain)

LEITZA. Otsailak 14 ostirala. Ateberts gaztetxean, 20:30ean.
Ateberts komeni (Leitza) – Hego haizea (Barañain)

Antolatzailea


www.bertsozale.eus

Laguntzailea


Musika, garagardoak eta antzerkia otsail erdialdean Torrean

Erresistentzia feminista erakusketa ikusgai egonen da otsailaren 15etik martxoaren 15era

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 8an Los Zopilotes Txirriustaldearen kontzertuak goxatuko du inauteri ondorena. Hilaren 15ean, berriz, garagardoa egin eta edateko aukera izanen dute; tailerra eta dastaketa antolatu dituzte-eta. Otsailaren 16an, an-

tzerkiari eginen diote tarte. *Manifestu bat* lana taularatu du Miren Tirapu Goikoe txekak, kritika eta umorea uztartuz. Otsailaren 15etik martxoaren 15era Torreara joaten direnek *Erresistentzia feminista* erakusketa ikusteko aukera ere izanen dute.



UTZITAKOIA

Herri osoa dantzan jarri dute

ETB1eko *Dantzatzen den herria* saioa grabatu zuten urtarrilaren 19an. Herria dantza baten inguruan biltzea da Itziar Alduntzinek aurkezten duen programaren helburua eta halaxe egin zuten Leitzaan ere. Otsail erdialdean emanen dute saioa telebistan.

Arrakastatsua izan da urteko lehenbiziko ipuin-kontakteta saioa

TTIPI-TTAPA

Begiak eta belarriak zabal-zabalik zituztela, Leitza eta Are-soko hainbat haur eta guraso bildu ziren urtarrilaren 16an egindako ipuin-kontakteta saioan. *Zure bihotzean* ipuina kontatu zuen Maite Blancok. Leitza liburuzainak herri-

tarrei egindako gonbidapenetik sortu zen saioa: «ipuin-kontakteta saio txikiak antolatu nahi ditugu, prestaketa berezirik gabekoak. Lagunarteko giro goxoan ipuinak irakurtzeko ohitura sustatuz. Hainbat guraso animatu dira eta ea gehiago izaten diren!».



UDALA

Sorospen ikastaro arrakastatsuek

Leitzako Udalak eta Anikotek lehen sorospen ikastaroa antolatu zuten urtarrilaren 16rako. Jendearen jakin-mina ikusita, azkenean, bi saio egin zituzten. 150 herritarrek desfibrilagailua nola erabili eta bihotz biriketako bizkortzea nola egin ikasteko aukera izan zuten.



UTZITAKOIA

Zinema atariko lanak bukatzean

Udaberrian irekiko ditu ateak Leitzako Herri Aretoak. Aspaldian hasi zituzten eraikina berritzeko lanak eta kanpoko aldean, irisgarritasuna hobetzeko hainbat neurri ere hartu dituzte: espaloiak egokitu, zebra bidea margotu... guztiz aldatu da inguru horren itxura.



Maite Blanco ipuina kontatzen. UTZITAKOIA



Herri inguruan osatu ohi dute urte bukaerako itzulia. Irudian 2019koa. I. PERURENA

Mendiz mendi ibiltzeko aukera Mendibil taldekoekin

Hurrengo hitzordua otsailaren 29an dute eta Altzegi, Urepel eta Mandoeigiko kaskoetara igoko dira

TTIPI-TTAPA

Mendibil Mendi taldekoak hasi dira berriz ere martxan. Otsailaren 1ean Erakurrira egitekoa zuten urteko lehenbiziko irteera. Hurrengo hitzordua otsailaren 29an egingen dute. Leitzako hiru milak osatzeko proposamena egin dute, alegia, Altzegi, Urepel eta Mandoeigiko kaskoetara igotzea.

Herritar zein mendizale guztiei egin nahi diete irteeretan parte hartzeko deia eta normalean, irteera larunbatean bada, aste horretako asteazkenean izaten da izena emateko azken eguna. Interesa dutenek, Astiz edo Maimur liburudendetan edo mendibilaurrera@gmail.com helbidera idatzi beharko dute.

Urte osoko irteerak zehaztuta

Urte osoko irteeren berri ere eman dute. Hala, martxoaren 1ean Belagoara joanen dira iraupen eskia egitera eta martxoaren 28an kostatik hurbil ibiliko dira, Zumaia eta Deba arteko Flyscharen ibilbidea egitekoa baitute.

Apirilaren 25ean Urbasara joanen dira eta maiatzaren

30ean Andoin, Surbe eta Baio izanen dituzte helmuga.

Ekainaren 27an, Sorogain eta Adira igoko dira eta uztailaren 25ean Albitik Txindokiko tontorreraino. Irailaren 27an, Otsagabia aldean ibiliko dira, Abodi eta Orhiko gainetara igoz.

Herri inguruan ere paraje zoragarriak daudenez, urteko azken hiru irteerak Leitzako mugetan barna egiteko asmoa dute. Urriaren 31n, mikologialdiarekin bat egin eta Kortekoborda eta Plazaola arteko bidea egingen dute. Azaroaren 28an Plazaolatik abiatu eta Goizuetara joanen dira, irteera hango feria egunarekin lotuz. Urtea bukatzeko, abenduaren 26an, Goizuetatik Leitzarako bidea egingen dute. Eta jakina, irteera bakoitzaren ondotik, ongi irabazitako bazkaria izanen dute.

**IZENA IRTEERA
AURREKO ASTEAZ-
KENA BAINO LEHEN
EMAN BEHAR DA**



E. IRAOLA ETA P. FEO

Sei egunez kolorea eta umorea nagusi

Umeen dantzak, igandeko antzerkiak, atsaureen jantziak eta eske ondorengo balantzak. Lotsak etxean utzi eta inauteri giroan sartuta ibili dira herritarrak. Ilbeltzaren 24tik 29ra izan dute gozatzeko aukera. Irudi sorta honetan ikus daitekeenez etxeak inor gutxi harrapatuko zuen azpian.

Apirilaren 4an izanen da Herri Krosaren berrogeita bigarren edizioa

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 4an, larunbatean, egitekoa dute Aurrera Kirol Elkarteak antolatzen duen krosa. 42. edizioa izanen da aurtengoa. Iaz, ekitaldia azken unera arte kolokan egon zen lasterkari gutxi eman zutelako proba baino lehenago izena. Dena den, azkenean, 400 bat lasterkarik parte hartu zuten.

Orain arte bezala, hiru kategoriatan banatuko dituzte lasterkariak: benjaminak, gaztetxoak eta maila absolutua. Azken hauek 4.5 kilometro



lazo irteera. N.MAZKIJARAN

edo 9 kilometroko lasterketa izanen dituzte aukeran. Izena ematea aldeaz aurretik egin dateike www.kronoak.com webgunean edo egunean be-
rean.

Herriko burdinolei buruz gehiago ikasteko aukera

Joxe Jabier Etxeberriak eta Antton Mari Mitxelenak hitzaldia eskainiko dute otsailaren 15ean

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 15ean, larunbatean, hitzaldia eskainiko dute Joxe Jabier Etxeberriak eta Antton Mari Mitxelenak. Udaletxeko ganbaran 18:30ean egin dute hitzordua. *Goizueta inguruko burdinolak* izenburupean aipamen gaiari buruzko infor-

mazio interesgarria azalduko dute. Aipamen historikoak eginen dituzte eta osatzeko krokisak, planoak... erabiliko dituzte. Goizueta eta inguruko zortzi kilometroko esparruan, 26 burdinolen berri ematen duten dokumentuak jasoak dituzte.



UTZITAKOIA

Motor gainean fin dabil Jon Makazaga

Motor gainean, enduro modalitatean, Euskal Herriko Txapelketan bigarren postua eskuratu zuen joan den urtean Jon Makazaga Otxandorena goizuetarrak. Aurten Nafarroako txapelketako lasterketa batzuk egiteko asmoa duela jakinarazi dio TTIPI-TTAPAri.

PAC dirulaguntza kanpainarako ziurtagiriak Udaletxean eskura daitezke

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 18ra arteko epea dute Udaletxean eskaerak egiteko. Eskaera egiterakoan Errolda Agiria (3 urteko antzitasunarekin), herrian gutxienez bederatzita hilabetez bizi denaren zinpeko aitortpena, Udalarekin zorrik ez duenaren

ziurtagiria, bakoitzak jabetzan edo alokairuan dituen lurren zinpeko aitortpena, azia kopuruaren ziurtagiria eta txosten sanitarioa eta naguski abeltzantzian edo nekazaritzan aritzen denaren ziurtagiria aurkeztu beharko dituzte.



UTZITAKOIA

Laugarren txapelketa ere borobila

Urtarrilaren 18an, larunbatean, jokatu zituzten IV. Umore Ona pilota txapelketako finalak. Umeen kategorian Legarreta eta Alsua; kimuetan Sanzberro eta Zelaiaran; haurretan Olaiz eta Leonet eta 22 urtez azpikoetan Zabala eta Apezetxea izan ziren garaile.



UTZITAKOIA

Zaintzarekin lotutako formazioa

Leitza, Areso, Arano eta Goizuetako Gizarte Zerbitzuek antolatuta *Dependentzia duten pertsonen zaintza etxeetan* ikastaroa osatu dute hamar emakumek herrian. Argazkian diploma eskuratu ondorengo momentua ikus dezakegu, urtarrilaren 24an.

Liburutegi ibiltaria- ren aurkezpena otsailaren 7an

Arano, Areso eta Goizuetan martxan jartzekoa duten liburutegi ibiltariari buruzko azalpenak emango ditu Harkaitz Delgado Leitzaldeko liburu-zainak. Goxalin 19:00etan egin dute hitzordua. Herritar guztiei egin diete bertaratzeko deia.

Lilatoirako entrena- tzeko aukera asteazkenetan

Martxoaren 1ean, Lilatoia ospatuko da Donostian. Herriko neska taldetxo bat animatu da parte hartzera eta otsailen entrenamendu saioak egiteko asmoa dute. Asteazkenetan 18:30etik 19:00etara izanen dira entrenamendua, eskola-tik hasita. Animatu!



Urtarrilaren 22an egin zuten zerbitzuaren aurkezpena.

Hilabetean behin liburutegi ibiltaria etorriko da herrira

Otsailaren 28an jarriko dute martxan zerbitzua eta hilabeteko azken ostegunetan, 14:15etik 15:00etara eskainiko dute

TTIPI-TTAPA

Liburutegi fisikorik ez duten herrietan zerbitzua eskaintzeko, liburutegi ibiltaria jarri du martxan Harkaitz Delgado Leitzaldeko liburuzainak. Urtarrilaren 22an aurkeztu zuen zerbitzua Udaletxean eta harrera beroa izan du.

Funtzionamendua

Hilabeteko azkeneko ostegunetan 14:15etik 15:00etara etorriko da Harkaitz herrira. Hala, Leitzako liburutegira joan beharrik gabe, dokumentuak jasotzeko aukera izanen dute herritarrek. Banaketa eguna baino lehen egin behariko dute eskaera whatsapp, email edo telefonoz, «dokumentua maileguan hartzeko moduan dagoen kontsultatuko dut eta bi edo hiru eguneko denbora tartean eskatzen bada Nafarroako edozein liburutegitik ekartzeko aukera ere izanen dugu». Erabiltzaileek interneten kontsultatu dezaketen katalogo zabala dute eskura: «liburuak gure bildumaren zati bat bakarrik dira: aldizkariak, egunkariak, CD eta DVDak... milaka dokumen-

tu dituzte herritarrek eskuragarri». Eta mailegutik haratago, «irakurzaletasuna bultzatzeko» sortu daitezkeen ekinzentzako baliabideak, sostengua eta aholkularitza ere eskaini nahi du, «irakurle talde bat sortu, ipuin kontaketa saio bat antolatu... herritarrek inplikatzera nahiko nuke».

Zerbitzua dohainik izanen da, baina liburutegi zerbitzuaz baliatzeko Leitzako liburutegiko erabiltzaile izatea ezinbestekoa izango da: «norberaren datuekin txartel bat bete behariko dute». Gainera, liburutegi ibiltariko erabiltzaileek hainbat abantaila izango dituzte: «dokumentuak maileguan izateko ohiko erabiltzaileek baino denbora tarte luzeago izango dute baita dokumentu gehiago ateratzeko aukera ere. Hamabi dokumentu sei astez hartzeko aukera izango dute».

Hilabeteko azkeneko ostegunetan egingo dute dokumentu trukea, «eta egiten dizkidan eskaerez gain, beste kutxa bat ere ekarriko dut, irakurleen gustuak kontuan hartuta hainbat proposamenekin».



Txapela, sagardotegian otordua eta ardo botila bana irabazi zituzten.

Gorka Arraiago eta Imanol Baraibar musean txapeldun

TTIPI-TTAPA

Hordago eta *mus*. Atzo eguerdian Sastinea tabernan gehien errepikatu ziren bi hitzak izan ziren. Euskal Herriko Mus txapelketako partidak jokatu zituzten Pake Toki Elkarteko bi irabazleek Larreako Elkartekoen kontra. Pake Toki Elkarteko Gorka Arraiagok eta

Imanol Baraibarrek lortu zuten garaipena eta Larreako Mikel Eraso eta Bautiste Eraso, osaba-ilobak, izan ziren bigarren. Bi bikoteek otsailaren 29an Iruñean jokatu duten Nafarroako kanporaketarako txartela lortu zuten. Hamahiru bikotek parte hartu zuten txapelketan.

Eguzkialdetik baserrietara bidean, adi kotxearekin

Udalak jakitera eman duenez, baso bat ustiatzen ari dira eta Eguzkialde etxetik goiko baserrietara doan bidea tarteka itxita egongo da. Herritarrei bidea libre uzteko eskatu die edo behintzat kamioiari maniobra egiteko adinako tokia uztea.

TTIPI-TTAPA aldizkaria dohainik jaso daiteke etxean

Udalak ematen duen dirulaguntza tarteko, TTIPI-TTAPA dohainik eskura daiteke etxean. Interesa duenak Udaletxean egin dezake eskaera. Abantaila gehiago izan nahi duenak Ttipi Txartela ere egin dezake; 948 63 54 58ra deituta eskura dezake informazio gehiago.

Hip hopa dantzatzu mundu mailako txapelketara

Analdeko Bordako Oihana Conde Lopera bikain dabil hip hopa dantzatzu. Espainiako World Dance txapelketan parte hartu du eta bigarren postuan gelditu berri da. Los Angelesen uztailaren 24 eta 25ean izango den mundu mailako kanporaketarako txartela lortu du.



Oihana bi taldekiderekin

Sagardotegira irteera antolatu dute

Otsailaren 29a baino lehen eman behar da izena Mendi ostatuan dagoen zerrendan

TTIPI-TTAPA

Elizondotik Hernanira joateko eta sagardotegiren batean bazkaltzeko irteera antolatu dute baztandar batzuek martxoaren 14rako. Eguerdian, 12:00etan, Mendi ostatatik abiatu eta 02:30 aldera bueltatzea (Hernaniko gasolindegitik) aurreikusi dute eta parte hatzeko deia egin dute.



Joan-etorria autobusez egingen dute.

Izen-ematea

Izen-ematea zabalik da dagoeneko. Joan nahi dutenek Mendi ostatuan dagoen zerrendan eman beharko dute

izena, otsailaren 29a, hondarreko larunbata, baino lehen. Izena emateko momentuan bertan 13 euro ordaindu beharko dituzte.

Hile-topaketa interesgarria Erratzun

Talde Feministak urtarrilaren 17an Erratzuko elkartearen Hile-topaketa antolatu zuen. 25 bat emakume elkartu ziren Enara I. Dominguezek gidatutako solasaldian. Esperientziak partekatu eta elkarrengandik ikasteko baliatu zuten.



25 lagun bildu ziren topaketan.



Amaiurko karririk kantuz girotu zituzten urtarrilaren 19an. UTZITAKOIA

Amaiurtik Elizondora pasatu dute Baztan Kantuzen lekukoa

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 19an abiatu zuten Baztan Kantuz egitasmoa. Lehendabiziko geldialdia Amaiurren izan zen eta, herriko eta inguruko musikazaleak bilduta, kantuz girotu zuten herria. 12:00etan abiatuta, ordubetez arituz ziren karririk karrika kantari.

Lehendabiziko saioa arrakastatsua izan zen. Jende dezentete bertaratu zen.

Hurrengoa Elizondon

Hurrengo geldialdia otsailaren 16an, hirugarren igandean, izanen da. Elizondoko plazan bilduko dira, eguerdian, 12:00etan.

Bailableak otsailaren 9an Elizondoko plazan

Baztango Dantzariak eta Elizondoko Gaiteroak antolatuta, heldu den igandean, otsailaren 9an, larrain-dantzak, muxikoak eta jotak dantzatzeko aukera izanen dute Elizondoko plazan (euria ari badu frontoian). 12:30ean hasiko dira gaita doinuak eta dantzak.

'Bizi dantza' emanaldia igandean Baztan pilotalekuan

Ikastolako guraso elkarteak, Udalaren laguntzaz, antolatuta, Pirritx, Porrotx eta Marimototsek haurrentako *Bizi dantza* ikuskizuna eskainiko dute larunbatean pilotalekuan. 11:00etan hasiko den saiorako sarrerak leihatilan erosi ahal izanen dira.

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
TALDEKO CANERIA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatu

Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO



Berriki 'Hegaldaka' lana kaleratu dute bi musikari gazteek. UTZITAKOA

Kontzertua Pauline eta Julietteren eskutik igandean

Arizkunenea Kultur Etxean dute hitzordua 19:00etan eta sarrerarik ez da ordaindu beharko

TTIPI-TTAPA

Udaleko Kultura Batzordearen eskutik, Kanboko Pauline Junquetek eta Itsasuko Juliettek kontzertua eskainiko dute otsailaren 9an, heldu den igandean, Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Bi gazte kantariaren emanaldia 19:00etan hasiko da eta entzuleek, ema-

naldiaz gozatzeko, ez dute sarrerarik ordaindu beharko.

'Hegaldaka' lana ardatz

Bikoteak berriki *Hegaldaka* lana argitaratu du Agorila diskoetxearekin. Hamaika folk kantuk (gehienak euskaldunak eta batzuk kanpoko ereslari batzuenak) osatzen dute lana.



VALLEDEBAZTAN.COM

San Anton egun borobila Elizondon

Urtarrilaren 17an San Anton Eguna ospatu zuten Elizondon. Goizean Baztan-zopak banatu zituzten, eguerdian bertsolarien emanaldia aditu eta zozketak egin zituzten. Aratxea 5.214 zenbakiari, zerria 3.702ari, bildotsak 5.561ari eta urdaiazpikoa 7.343ari egokitu zaio.



Joan den urteko emanaldiak ikusmira eragin zuen. FREDDY ALFREDO

Iruritako dantzarien eskutik 'Izarrak' emanaldia otsailaren 29an

TTIPI-TTAPA

Iruritako dantzariak, Baztango Udalaren laguntzaz, *Izarrak* emanaldi ikusgarria antolatu dute otsail bukaerarako. Hondarreko larunbatean, otsailaren 29an, zehaztu dute hitzordua. Herriko 48 dantzariak, abesbatzako lagunekin eta musikariekin batera, eskaini-

ko dute saioa 20:00etan hasiko da. Pilotalekuan zehaztu dute hitzordua eta, dantzariak adierazi dutenez, emanaldi horretan ikusleek «betiko dantza moldeetatik aldentzen diren piezez eta sorkuntza berriez» gozatzeko aukera izanen dute. Sarrerarik ez da ordaindu behar izanen.

Berroetako Mendi Maratoi Erdia maiatzaren 10ean

Berroetako Mendi Elkartek antolatuta, IV. Berroeta-Saioa-Berroeta Mendi Maratoi Erdia izanen dute maiatzean herrian. Hilaren 10ean zehaztu dute hitzordua. Laster informazio gehiago emanen dute berroetasaioa.wordpress.com atariaren bidez.

Arizkun Rock jaialdia laguntzeko materiala salgai

Arizkun Rock jaialdia antolatzeko lanean ari dira herritarrrak. Dirua lortzeko materiala paratu dute salgai: jertseak, poltsak, metxeroak, pegatinak eta eskumuturrekoak... Eskae-rak email bidez egin daitezke info@arizkunrock.eus helbidera idatziz.

JON TAXIA
BAZTAN

T. 619 568 444



6 plaza
24 orduko zerbitzua
Erosoa eta segurua

Medikuarengana joateko, sagardotegira, egun pasak...



Herritarrei pintaden berri emateko dei egin die Geroa Baik.

Eraikin publikoetako pintadak ezabatu nahi ditu Geroa Baik

Alderdiak aurrea hartu du, gaia udal batzarrean landu eta «alkateak pintada horien berri ez zuela ziurtatu» ondotik

TTIPI-TTAPA

Azken asteetan Baztango eraikin publikoetan eta «bereziki Elizondon» egin diren pintaden zerrenda bat eginen du Baztango Geroa Bairen udal taldeak, «Udalak horiek garbitu ditzan».

«Kaltetutako» elementuen zerrenda egin nahi dute

Adierazi dutenez, «urtarrilaren 8 eta 9an pintada ugari agertu ziren Arizkunenea Kultura Etxeko eraikinaren gibleko aldean, hurrengo egunean kendu zirelarik». Hala ere, pintada «andana» daude orain-

dik udal eraikinetan, Geroa Baik adierazi duenez.

Gai hau pasa den otsailaren 23ko osoko bilkuran azaldu ondotik «eta alkateak horren jakinaren gainean ez zegoela adierazita», Baztango Geroa Baik «aurrea hartzea» erabaki du, kaltetutako elementuen zerrenda bat egin eta «garbitzeko» helburuz.

Horregatik guztiagatik, «pintadak antzematen dituzten herritarrak horien berri ematera» animatu ditu Geroa Baik, «Balleko Etxeak horiek garbitzeari lehenbailehen ekin diezaion».



MAIALEN IANTZI

Aniz eta Berroetan inauteriak

Urteroko ohitura segituz, inauteriak ospatu zituzten berroetar eta aniztarrek. Ilbeltzaren 18ko asteburuan Anizen etxez etxe ibili ziren; hurrengo asteburuan, berriz, Berroetan izan zuten hitzordua. Ortziralean baserrietan ibili eta gero, larunbata herriko etxeak bisitatzeko baliatu zuten gazteek.



MAITANE MARITORENA

Euskal Nobela Beltza gozamen iturri

Bertze urte batez, literaturak belztutako astea izan zuten ilbeltzan Baztanen. Bai idazleek eskainitako solasaldietan, baita hondarreko eguneko itzuli beltzean zein poesia errezitaldian jendetza bildu zen. Gozatu bitartean, literatura beltzaz zuten jakin-mina ase dute.

BRIKO LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO GARBIKETAK:

- etxeak
- landetxeak
- lokalak
- komertzioak
- enpresak

...
konfidantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

GILTXAURDI
UDAL KIROL INSTALAZIOA

Baztango Udala

lagun KANPAINA
OTSAILAREN 1etik 15era

Zatoz lagun batekin eta...

- HILABETE BATEKO KUOTA DOAN
- ZURE LAGUNAK MATRIKULA DOAN

INFORMAZIOA GILTXAURDI UDAL KIROL INSTALAZIOAN:
Pedro Axular, 14 ELIZONDO | Tel.: 948 45 23 01 | giltxaurdi@baztan.eus

Landa eremuko dinamizazioaz gogoetaldia Arizkunen

'Heterotopiak: landa eremuko eta nekazal eremuko kultura alteritate gisa' lantegiaren barne antolatu dute gogoetaldia

TTIPI-TTAPA

Kultura eta landa eremuari buruz gogoeta egiteko saio irekia egingen dute otsailaren 12an, 19:00etan, Arizkungo Gamiozarrean.

Lantegi horretan gaur egungo landa-ingurunean diharduten gizarte eta lurraldeetako dinamiken inguruan kultura-ekoizpenak egiten duen paperari buruzko azterketa kritikoa egin nahi dute. Azken hamarkadetan, hiritartze prozesuak goitik beheiti aldatu du nekazaritzaren eta landa-eremuen egoera eta baldintza. Hori ulertzea ezinbertzekoa da nekazaritza eta landa-eremuetako kultura- menderakuntza historikoa iraultzeko eta horretarako estrategiak izateko. Era berean, lurraldean transformazio-tresna gisa ulertutako edozein kultura-

-proiekturen aukerak eta mugak aztertze beharrezkoa da. Pentsamendutik eta idazkeratik abiatuta, lantegian landa eremuko kultura-eskutari buruzko gogoeta bat egingen dute. Horretarako, hainbat tresna erabiliko dituzte: irakurketa partekatuak, hausnarketa kolektiboko ariketak, proiektuen azterketa, landa-irteerak, etab.

Parte-hartzaileak

Hainbat aditu bertaratuko dira: Antton Luku (antzerkigilea), Katixa Dolhare (idazlea), Mikel Ozkoidi (Nafarroako Gobernu kultura departamentua), Nerea de Diego (Huarteko arte garaikideko zentroa), Xabier Erkizia (musikagilea), Marc Badal (dinamizatzaile agrokologiko eta kulturala) eta Jo ala Jo elkarteko kide bat.



Amaiurko karririk kantuz girotu zituzten urtarrilaren 19an. UTZITAKOA

Arraiozko ur agorraldiak saihesteko 50.484 euro inbertituko ditu Udalak

TTIPI-TTAPA

Uda idorretan Arraiozko Urrutia auzoak ur homidura arazoak eduki izan ditu, buruila eta urriko hilabeteetan eta noizbait abuztuan ere bai.

paratu ditu baita matxura kasuetarako pasako giltza gehiago ere. Lana Javier Altzugaraik egin du LKS ingieneritzaren zuzendaritzapean eta 50.484,24 euroko kostua izan du.

Ur-bideratze berria egin eta pasako giltzak paratu dituzte

Arazo horiek konpontzeko helburuz, Udalak Iruritatik Lekarozerat doan ur-horniduraren azpiegitura baliatu du, Arraiozko ur-biltegiraino ur-bideratze berria egiteko. Horretarako, Oharrizen balbula eta pasako giltzak eta Arraiozerainoko tutu berria

2018an Irurritako ur-biltegiaren gainera hoditeria aldatu zuten

Aipagarria da 2018an Irurritako ur-biltegiaren gainera aldeko ur-hoditeria aldatu zela; 90mm-ko tutuzaharra 125mm-koarengatik, denera 2.130m. Lan horrek 174.000 euroko kostua izan zuen eta, helburua ur-biltegi horren ur-nahikotasuna bermatzea izan zen.

Sotok eta Sarriegik girotutako afaria larunbatean

Ilbeltzaren 17an, Jakoba Errekondoren eskutik, Lekarozko Larraldea sagardotegian abiatu zuten Nafarroako sagardotegietako txotx denboraldia. Irekiera ekitaldian sagardantza eskaini zuten Jo ala jo taldekoek eta Nafarroako kirol eta kultur munduko hainbat ezagun izan ziren. Hasi bazuten hasi, ez dute giroa itzaltzen utzi. Dagoeneko hurrengo hitzordua prest dute. Otsailaren 8an, larunbatean, Julio Sotok eta Aitor Sarriegik girotutako afaria izanen dute. 21:00etan bilduko dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bertso afaria Erratzuko elkartean

Urtarrilaren 18an, larunbatean, bertso afaria egin zuten Erratzuko Etxelebert elkartean. Sustrai Colinaren, Julio Sotoren eta Maialen Lujanbioren doinuek eta errimek goxatuko zuten giroa.



Hondakinen kudeaketaz arduratuko den teknikaria behar dute. ARTXIBOKOA

Hondakin teknikaria kontratatzeke deialdia egin dute

Deialdian parte hartzeko eskaerak otsailaren 24a arte aurkez daitezke

TTIPI-TTAPA

Udalak Baztango hondakin solidoak kudeatzeko teknikari bat kontratatzeke deialdia egin du, oposizio-lehiaketa bidez eta behin-betiko kontratuarekin. Izengaiek, eska-bideak aurkezteko epea bukatzen denean, Espainiako nazionalitatea izan eta hama-

sei urteak beteak behar dituzte. Era berean, diplomatura edo gradua eduki eta B1 gida-baimena, euskara ezagutza C1 maila eta gaitasun fisiko eta psikikoa beharko dute.

Deialdian parte hartzeko eskabideak Baztango udal erregistroan aurkeztu behar dira, otsailaren 23a baino

lehen. Epea akituta, izengai onartu eta baztertuen zerrenda onetsi eta iragarki-taulan eta www.baztan.eus atarian argitaratuko dute. Erreklamazioak eta zuzenketak egiteko bortz eguneko epea izanen dute.

Onartu eta baztertuen behin-betiko zerrenda argitaratzea-ekin batera probaren egun, ordu eta tokia zehaztuko dituzte. Oposizioaldiak bi ariketa izanen ditu: test motako galderak (40 puntu) eta ariketa praktikoak (30 puntu).

Oinarriak

Urteko lansari gordina administrazio publikoen zerbitzuko langileen B mailari dagokiona izanen da eta lanaldi osoko postua eskaini dute. Ordutegia zerbitzuko beharretara egokitua izanen da.

Eginkizunak

Teknikariaren egitekoak ingurumen-inpaktuak identifikatzea, kostuen analisia egitea (hondakinen sailkapen eta karakterizazioa eginez), hondakinak berreskuratzeko errekursoak bilatzea eta balioztatzea, hiri hondakin motak ezagutzea, birziklatzeko aukerak bilatzea... izanen dira.

Piriniotar behi arrazako IV. argazki lehiaketa zabalik

TTIPI-TTAPA

Piriniotar behi arraza eta bere ingurua gaiarekin argazki lehiaketa antolatu dute lau-garren urtez Udalak eta Aspina eta Conaspi erakundeek. Lehiaketaren xedea, irailaren 19an eta 20an ospatuko den Piriniotako Behi-Aziendaren XXXIII. Lehiaketa-Enkante Nazionala iragarriko duen kartel eta eskuorrirako argazkia aukeratzea da.

Ilbeltzaren 24an Balleko Etxean egin zuten lehiaketaren aurkezpenean Juan Kruz Iriarte udal zinegotzia, Fermin Barazabal abeltzaina, Cederna-Garalurreko Marian Zestau eta Patxi Aranguren, Aspinako idazkaria, izan ziren.

Argazkiak aurkezteko epea ekainaren 19an (ortziralea) 14:00etan akituko da. Eskura aurkeztu daiteke Udalaren bulegoetan (CD, DVD edo pen-drive batean) edo posta elektronikoz baztan@baztan.eus helbidera igorrita (2 MB gehienez). Parte-hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkezten ahal ditu gehienez ere, berak egindakoak, argitaratu gabeak, behi piriniotarraren eremu naturalean ateratakoak eta formatu bertikalean. Aspina elkarteko ordekarri batek, bi abeltzainek, argazkigintzan aditu batek eta Baztango udal zinegotzi batek osatuko duten epaimahaiak hiru argazki onenak sarituko ditu 400, 200 eta 100 euroko sariekin. Horretaz gain, lehen saria lortzen duen argazkia kartelean eta liburuxkaren azalean agertuko da. Bertezak, aipatutako liburuxka horretan eta behi-azienda lehiaketaren publizitaterako baliabideetan erabiliak izan daitezke. Sari-banaketa Piriniotar behi-azienda lehiaketaren egunean egingen dute.



M. MARITORENA

Aniztar eta berroetarrak inaute aroan

Ilbeltzaren 17an eta 18an Anizen eta ondoko astean, ilbeltzaren 25ean, Berroetan inauteriak ospatu dituzte. Mozorroak paratu eta etxez etxe eskean, janean eta edanean, ibili ziren. Gauek luze jo zuten...

Amaiurko gaztelua interes sozialekotzat jotzeko eskatu dute

Lurrak desjabetzeko beharrezko tramitea da eta ahobatez onartu du Balleko Etxeak

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, aho batez, erabaki du Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiari eskatzea Amaiurko Gazteluaren aurrien monumentua dauden lurren eta bertara doan bidearen interes sozialeko deklarazioa, nahitaez desjabetzeko helburuarekin.

Kokaleku horiek Amaiur herriaren inguruan daude eta 13.066,06 metro koadroko azalera hartzen dute. Lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako zazpi finka daude, osorik edo zati batean. Horietatik bortz jabetza pribatukoak dira eta gainerakoak Baztango Udalaren herrilurrekoak dira. Finketako bat titular ezezagunarena da.

Turismo iraunkorrari eta kulturalari bulkada

Balleko Etxeak aipatu lurrak erosi nahi ditu, Amaiur Baztango turismo kultural eta iraunkorraren motorretako bat bihurtzeko.

Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen arabera,



Amaiurko gaztelua. ARTXIBOKOA

nahitaezko desjabetzea egiteko, derrigorrezkoa izanen da alde aurretik onura publiko edo interes sozialeko deklarazioa egitea desjabetutako objektuari eragin behar zaion helbururako. Udalak dio Amaiurko monumentua eta Amaiurko Gazteluaren aurriak Nafarroako Gobernuaren Ondare Arkitektonikoaren inbentarioan katalogatuta daudela, eta horregatik direla interes sozialekoak eta zaintzea mezezi dutenak.

Horregatik guztiatik, Udalaren arabera, bidezkoa litzateke Nafarroako Gobernuak desjabetze ahalmena erabiltzea, Baztanen eskariz eta haren onurarako.



TESTUA ETA ARGAZKIA: MARIFA ETA KORO

Bi zuhaitz erori dira Ainarako bidean

Kalte haundiak egin dituzte aitzineko asteetako haize ufada handi horiek. Horietako batzuk, bideetan izan dute ondorioa, gainera erori eta etsi baitituzte. Hala gertatu da Ainarako bidean, kanpamentutako pare-parean bi arbol erori dira, eta hoietako batek bide guztia hartzen du.



TESTUA ETA ARGAZKIA: MARIFA ETA KORO

Traktore eta erremolkeen errebisioa

Herri ttikiotan zerbitzu guti ailegatzan zaizkigu, baina horietako bat traktore eta lanetako ibilgailuen errebisioa da. Urtero etortzen dira, eta aurten urtarrilaren 12an egin zuten, Azketako aparkalekuan. Denetara 25 traktore eta bertze gisako 20 erremolke eta halakoek pasatu zuten errebisioa.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Xilaba bertsolari txapelketaren balorazioa egin dute

Bertsolarien Lagunak elkarteko Xumai Muruak lehiako goiti-beheitiak adierazi ditu

PIERRE BASTRES

Xilaba Iparraldeko bertsolarien arteko zeingehiagoa da, urte guziz iragaiten dena, 2008az geroztik. 2018an, taldeka egitea deliberatua zuten lehen aldikoz. 2019an bigarren aldian Bertsolarien Lagunak antolatzen zuela, eta sekulako arrakasta kausitu du lehia horrek.

Hazilaren 16an burutu zen, Isturitzen hain zuzen, Ez Otoi Pentsa taldekoen garaipenarekin finalean. Maddi Ane Txoperena (Lesaka-Hendaia), Josu Txoperena (Lesaka-Hendaia), Miren Artetxe eta Gorka Artetxek osatu zuten talde irabazlea, Elixabet Etxandik, Lur Renteriak, Maddi Sarasuak, Hodei Renteriak eta Leire Laskaraik osatutako Hasta la 2to-ria taldeari gailenduta.

34 bertsolari

Jadanik balorazio orokorra eginga zuten antolatzaileek, baina horren zehaztu nahian, bertze elkarretaratzea egiteko

zuten ilbeltzaren 25ean Larrekon. Azken orduan ezabatu izanagatik ere, Xumai Murua Berrak (Urruña), elkarteko lehendakariak, gogo onez lehiaren gora-beherak zehaztu ditu.

Lehenik, argi eta garbi zeukaten bertze bat antolatu behar zela 2019an, 2018koaren ondotik, «mereziz zian segida bat emaita». Xumaiek dioten bezala, «aurtengo saioetan, 34 bertsolari beren gogoetak eta hitzak partekatu zitizteian, bederatzi taldetan banatuak. Banaz bertzean, 80 entzule bildu ditiagu saio bakoitzean, 300etaraino finalerako».

Noski, zenbakiak ez dute den-dena erakusten, eta «aitzinerako urrats politak egin ditiagu huntakoan, egiazki giro onean iragan zaiguk lehiaketa. Saio batean epaileen erabakia zalantzan ezarria baldin bada ere, arras ontzat zaukaguk aurtengo Taldekako Xilaba. Maila eta esperientzia ezberdinetako bertsolari fran-



Ez Otoi Pentsa taldekoak txapelarekin, Xilabako finalean. ARTXIBOKO ARGAZKIA

gok oholen gainerat upatu ahal izan ditek, bertzeek gerizatuak. Elkartasun eta goxotasun ainitz ekartzen dik horrek. Eta leku izigarri berezietan errezebitu gaituzte gainerat» gehitu du urruñarrak.

Epaileak aipatuz geroz, elkarteak azpi-talde zombait badituela bere baitan zehaztu

behar da: gai-emaileena, eta epaileena beraz.

Honenbertzez, trebatzeko aukera gehiago izan dituzte azpi-taldeetako kide guziek, eta pikoan ezartzeko ondoko erronka nagusiari begira: aurtengo Banakako Xilaba. Taldearen babesarik gabe, buruz buru ari beharko dute orain.

Udal hauteskundeetarako hiru zerrenda izanen direla iragarri dute

TTIPI-TTAPA

Martxoan egingen diren udal hauteskundeetan hiru zerrenda izanen dira Senperen, baina ez dira osoki osatuak, iduriz. Halere, zerrendaburuak duela hiru urteko berberak izanen dira. Oraingo auzapezak, Pierre-Marie Nousbaum,

bere zerrenda aurkeztuko du. Dominique Idiartek ere berea aurkeztuko du, eta azkenik Jean-François Bederède izanen da abertzaleen zerrenda burua. 2014an, lehen itzulian Idiartek lortu zuen boz gehien, baina bigarren itzulian Nousbaum nagusitu zitzaion.

Herri Urratsen aldeko bertso saioa antolatu dute otsailaren 9an Larrekon

TTIPI-TTAPA

Herri Urratsen aldeko aurtengo Bertso saioa otsailaren 9an iraganen da. Aurtun ez da posible izan Baionako Antzokian egitea aitzineko aldietan bezala. Senpereko Larreko gelan iraganen da, larunbatean arratsaldeko lauetatik goiti. Tokiak mugatuak direnez, sarrerak lehenbailehen erosita galdegiten dute, ikastole-

tan erosiz, edo internet bidez Herri Urratsen webgunetik, edo Baionako Elkar dendan.

Euskal Herriko Bertsolaritza Txapelketa Nagusiko zortzi finalistak izanen dituzte bertan kantari; hala nola Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Aitor Mendiluze, Igor Elortza, Aitor Sarriegi, Beñat Gaztelumendi eta Unai Agirre.



Azken final nagusian kantatu zuten zortzi bertsolariak ariko dira. UTZITAKOIA

Martxoko bozei begira gutienez bi hautagai izanen dira

Battitte Laborde hirugarrenez aurkeztuko da bozetara eta Ellande Alfaro izanen da Har Hitza taldeko zerrendaburua

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 15ean eta 22an iraganen bozei begira, mugimendua sumatzen hasia da herrian. Oraingoan, bi hautagaik jakinarazi dute bozetara aurkeztuko direla. Alde batetik, Battitte Laborde egungo auzapeza hirugarrenez aurkeztuko da eta bertzetik, Ellande Alfaro izanen da Har Hitza taldeko zerrendaburua.

2008az geroztik auzapeza da Laborde eta aurkeztu denetan emaitza onak lortu izan ditu. Duela sei urteko bozetan, botoen %75,63a eskuratu zituen Sara Zain bere taldeak. Hala, ez zen ez zen bigarren itzuliaren beharrik izan. Herriko kontseilurako jokoan zeuden 23 hautetsietatik 21 eskuratu zituen.

Bertze bi hautetsiak Har Hitza taldearentzat izan ziren.



Battitte Laborde eta Ellande Alfaro.

Hain zuzen, Har Hitza talde abertzaleko zerrendaburua Ellande Alfaro izanen da, azken bozetan alkategaia izan zen Mixel Gerendiaini lekukoa hartuz.



TTIPI-TTAPA

50 hektarea erre dira Larhun magalean

Aste berean bi egunez sutea izan zen Larhun inguruan, urtarriaren 14an Bera aldean eta 16an Saran. Herriko kasuan, 50 hektarea erre ziren. Sua toki txarrean izaki, suhiltzaileek ezin izan zuten ibilgailuetan hurbildu baina zaintza lanak egin zituzten itzali arte. Biharamunean botatako euriak lagundu zuen horretan.

Altsasukoen aldeko gaualdia otsailaren 14an

Atxuri Urdin herriko realzaleen taldeak Altsasuko gazteei sustengua adierazteko gaualdia antolatu du otsailaren 14rako, «hiru urteren ondotik, injustizia hura salatzen segitu nahi dugulako». 19:00etan elkarretaratzea egingen dute eta ondotik, Ellande Alfaro eta Amets Arzallusekin ostaturaz ostatu bertso poteoa egingen dute. 21:00etatik goiti kontzertuak hasiko dira. Aho Zakil Konexion eskualdeko punk taldearekin hasiko da musika emanaldia. Segidan, lehen aldikoz, Lapurdin Bergarako Kaleko urdangak punk-oi talde famatua ariko da. Gaualdian Binilo balak eta Kevin Jager disko jartzaileek dantzarako musika jarriko dute eta jatekoa eta edatekoa ere izanen da. Kontzertuetara sartzeko bortz euro ordaindu beharko dira.

Udako langileak hartzeko deia egin du Herriko Etxeak

Aurten ere udan langileak hartuko ditu Herriko Kontseiluak, igerilekuan eta aisialdi zentroan aritzeko edo zerbitzu teknikoak eskaintzeko. Herrian bizi diren 17 urteko ikasleentzat erreserbatuko dituzte postuak. Interesatuak otsailaren 29a aitzin eman behar dute izena.

Tripotx jatea otsailaren 15ean egingen dute

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, Beti Gazte elkarteak tripotx jatea antolatu du otsailaren 15erako, larunbata. 12:00etan bilduko dira Lur Berri gelan eta joan nahi duenak Beti Gazte elkartearen ordezkariak jakinarazi beharko die.



Jende andana bildu zen agiantzen aurkezpenean. GANEX

Agiantzak aurkeztu ditu Herriko Kontseiluak

GANEX

Elkarteetako ordezkariak, herriko enplegatuak, ikastetxeetako ordezkariak, zahar etxeko eta Omordiko arduradunak, suhiltzaileak, Xaretako auzapezak eta bertze hainbat herritar bildu ziren urtarriaren 18an Lur Berri gelan agiantzen aurkezpenaren kariatara.

Bildutakoei ongietorria egingenez eta elkarteei eskerrak emanez hasi zuen ekitaldia Battitte Laborde auzapezak, «herriari bizia ematen baitiete». Auzapezaren eta bere kontseilukideen solasaldiaren ondotik, pintxo eta zintzur bustitzearekin eman zioten akabaila ekitaldiari.



Beti Gazteko mutilek eta neskek 640 eta 540 kiloko Euskal Herriko txapelak jantzi zituzten Idiazabalen. UTZITAKO ARGAZKIA

Euskal Herriko ordezkari izanen da Beti Gazte Irlandan

Mutilen taldeak Euskal Herriko 680 eta 640 kiloko txapelak irabazi dituzte dagoeneko eta nesken taldeak 540 kiloko

TTIPI-TTAPA LESAKA

Euskal Herriko zortzinakako sokatira txapelketan, gizonezkoen 640 kiloko eta emakumeen 540 kiloko hirugarren eta hondarreko jardunaldiak jokatu zituzten ilbeltzaren 25ean Idiazabalen (Gipuzkoa).

Espero bezala, Lesakako Beti Gazte irabazi zituen txapelak, emakumeen kasuan, Euskal Herriko zortzikokoan historian lortu duten lehenbizikoa.

Neskek 540 kiloko ligaxka moduan jokatu dutenez, bi puntuko aldea zuten Badaio-

tzekin eta hortaz, aski zuten bigarren izatearekin Idiazabalen. Eta horixe izan zen, hain zuzen, gertatu zena. Bigarren izan zen Beti Gazte, Badaiotzen ondotik, baina sailkapen orokorrean lehenbizikoak eta txapeldunak. Sailkapen orokorrean bigarren izan zen Badaioz, hirugarren Gaztedi, laugarren Txantrea eta bosgarren Ibarra. Aitziber Goienetxe, Amaia Leiza, Karmele Pikabea, Irantzu Goienetxe, Ane Gurrutxaga, Udane Arbelaitz, Oihana Mindegia eta Ainhua Ubiria aritu ziren zortzikotean, Iñigo Alzugarai erakusle zutela eta Arritxu Muxika laguntzaile.

Gizonezkoak 640 kilokoan finala nagusitasunez irabazi zuen Beti Gazte, Ibarra, Murruta, Zuraide A, Zuraide B eta Txantrearen aitzinetik. Agortxeberriko Karmelo eta Joxe Angel Mitxelena anaiak, Mikel Apeztegiak, Oskar Telletxeak, Beñat Ordokik, Unai Gurrutxagak, Eneko Saldiasak eta Gerardo Telletxeak osatu zuten zortzikoa, Paskual Taberna erakusle zutela eta Beñardo Iantzi laguntzaile.

Euskal Herriko azkenak eta munduko txapelketa

Otsailaren 8an Ibarra (Gipuzkoa), gizonezkoen 600 kiloko hirugarren eta azken jardunaldia eta emakumeen 500 kiloko bigarrena jokatu dituzte. Otsailaren 15ean, Berriozarren, gizonezkoen 560 kiloko txapelketa eta emakumeen 500 kiloko hirugarren eta azken jardunaldia izanen dituzte. Euskal Herriko txapelketa bukatzeko, otsailaren 16an Ezkabarten txapelketa mistoa jokatu dute..

Euskal Herrikoaren ondotik, otsailaren 20tik 23ra Irlandako Letterkenny hirian jokatu da Munduko Sokatira Txapelketa eta Beti Gazteko tirariak ere bertan izanen dira.



MAIALEN ANDRES

Master txapelketako finala larunbatean

UTS Master Txapelketa azken txanpan sartua da. Otsailaren 8an jokatu dute Galarretan. Hilaren 1ean jokatzeak zituzten finalurrekoak Barrenetxea IV.ak Ansa II.aren kontra eta Endika Urrutia saldiastarrak (lehen partida irabazi zion Goikoetxeari) Urrizaren kontra.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kenpo kai gerriko beltzak banatu dituzte

Sekula baino eskualdeko gazte gehiagok kenpo kaiko gerriko beltza lortu dutela eta, banaketa-ekitaldia egin zuten ilbeltzaren 18an Berako Toki Ona kiroldegian. Juan Mari Vidal eta Pili Martinez maisuekin batera, Berako irakasleek eta Aitor Elexpuru alkateak eman zituzten gerrikoak.



Purito Rodriguez Ibardinen garaile 2012an. ARTXIBOKOA

Euskal Herriko Itzulia Ibardinera itzultzekotan da

Apirilaren 8ko etapak Berako kaskoan izanen luke helmuga eta 9koa herrigunetik abiatuko litzateke

TTIPI-TTAPA BERA

Garai batean, hamalau urtez urtero-urtero Ibardinen bukatu zen Euskal Herriko Itzuliko etapa bat. Geldialdi luze baten ondotik, berriz ere 2012an ekarri zuten Itzuliko etapa bukaera, ordura arte

helmuga izaten zen lekutik 300 metro goitiago, Elizalde Bentaparean. Orduan Joaquim Purito Rodriguezek irabazi zuen eta Patxi Vila beratarrak txirrindulari profesional izateari utzi zion, baina geroztik Itzuliko etaparik ez zen inoiz

bukatu Berako kaskoan. Aurtentzen, berriz ere Ibardinera helmuga ekartzeko asmoz lanean ari dira Berako Udala eta Itzuliko antolatzaileak. Horren arabera, Ibardinen izanen luke helmuga Araban abiatuko den apirilaren 8ko etapak eta apirilaren 9koa Berako herrigunetik abiatuko litzateke eta Lesaka, Agiña, Aritxulegi, San Markos eta Erlaitzen barna pasatu ondotik, Errenterian izanen luke helmuga.

Irabazle entzutetsuak

Aipatzekoa da Ibardingo helmugan Gorospe, Laguia edo Chiappucci bezalako txirrindulari handiek irabazi izan dutela, bertzenbaiten artean. 2012an, ohiko helmuga baino 300 metro goitiago paratu zuten bukaera eta %28 bitarteko maldak igo behar izan zituzten txirrindulariek. Joaquim Purito Rodriguez kataluniarra izan zen azken irabazlea. Aurtengoan ere leku berean jarriko dute helmuga. Itzulian txirrindulari handiek parte hartuko dute, bertzeak bertze iazko Frantziako Tourra irabazi zuen Egan Bernal (Ineos), iazko Itzulia irabazi zuen Ion Izagirre (Astana) eta Mikel Landak (Bahrain).

Lesakako II. Mendi lasterketarako izena internet bidez bakarrik

TTIPI-TTAPA LESAKA

Martxoaren 8an egingen dute Beti Gazte elkarteak antolatutako Lesakako II. Mendi Lasterketa. Igandean 10:00etan abiatuko da 14 kilometro luze eta 900 metroko desnibela duen lasterketa nagusia Plaza Zaharretik eta, hamar minutu beranduago, 13 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako lasterketa, zazpi kilometro luze eta 300 metroko desnibela duena. Ibilbide luzeak Frain (455 metro) eta Unanue (650 metro) igo beharko dituzte plazan helmugaratu baino lehen eta gazteak, Frainera igo eta jautsiko dira zuzenean herrira.

Izen-ematea martxoaren 3ra bitarte egin daiteke, bakar-bakarrik www.herrikrosa.eus webgunearen bidez (egunean berean ez dute izen-ematerik onartuko). Ibilbide luzerako 16 euro ordaindu beharko da (13 euro Beti Gazteko bazkideek. Ibilbide laburrerako 7 euro ordaindu beharko dute.



JUAN MARI ONDIKOL

Giltxaurdi berritua inauguratu dute

Zenbait astez bertan partidak jokatuak bazituzten ere, ilbeltzaren 18an egin zuten Elizondon Giltxaurdi futbol-zelai berrituaren inaugurazioa. Horrek ez zion garaipenerako bidea ireki, ordea, Baztan futbol talde nagusiari, galdu egin baitzuen ondotik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ariztegi txapeldunorde ingudearekin

2020an jokatu arren, ilbeltzaren 19an Mungian (Bizkaia) emakumeen eta gizasemeen 2019ko Euskal Herriko ingudejasotze txapelketak egin ziren. Iturengo Maika Ariztegi txapeldunorde izan zen. 94 jasoaldi eman zizkion hamar kiloko ingudeari, Iruñeko Virginia Finolek baino bi guttiago.

AGENDA

OTSAILAK 6 - 20

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIAK

DONEZTEBE

Expopiribusa aurkezteko hitzaldia

Otsailaren 6an, 19:00etan.
Xehetasunak: 47. orrialdean.

ARIZKUN

'Emakumeak eta inauteak'

Gamioxarrean, otsailaren 7an.

Landa eremuko

dinamizazioaz gogoetaldia

Gamioxarrean, otsailaren 12an,
19:00etan.

LESAKA

Zakuzaharren bilera

Arranon, otsailaren 8an,
11:00etan.

BERA

Bizipoza egitasmoaren aurkezpena

Kultur etxean, ortziralean,
18:00etan.

LEITZA

Emakume taldearen bilera

Udaletxean, otsailaren 11n,
17:00etan.

IKUSKIZUNAK

ELIZONDO

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Baztan pilotalekuan, otsailaren 9an, 11:00etan. Sarrerak egunean bertan salgai: 7 euro (3 urtetik beheitikoek bi euro).

Bailableak

Plazan, otsailaren 9an, 12:30ean hasita.

IRURITA

'Ama-alu-lur' antzerkia

Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean, otsailaren 16an,
19:00etan.



ARTXIBOKOA

BERA Bizipoza egitasmoa

Domumentala eta dokuweba aurkeztuko dituzte.
Kultur etxean, otsailaren 7an, ortziralean, 18:00etan.

LESAKA

'Ozzy' filma

Harriondoan, otsailaren 16an,
16:30ean.

LEITZA

'Manifestu bat' antzezlan

Torrean, otsailaren 16an.

TAILERRAK

ETXALAR

Kantu-saioak

Kultur etxean, hamabortzero ortzegunetan (20:15) eta larunbatetan (18:00).

LEITZA

Haur masaje tailerra

Udaletxean, otsailaren 18an,
11:00etan.

Garagardo tailerra eta dastaketa

Torrean, otsailaren 15ean.

ELIZONDO

Menopausia tailerra

Otsailaren 12an.

Hika ikastaroa

Euskaltegian, martxoaren 25era arte, asteazkenetan, 18:00etatik 20:30era.

LESAKA

Suhiltzaile boluntario

Apiriletik ekainera, hilabetero, hirugarren larunbatean.

BERTSOAK

ELGORRIAGA

Bardoak

Bertsonautak eta Larraun da Araitz. Bi dozena. Herriko ostatuan, otsailaren 7an,
19:00etan.

LEKAROZ

Bertso afaria

Laraldean, otsailaren 8an,
21:00etan.

LESAKA

Bardoak

Arranopola eta Bertsoipiztiak. Arrano elkartearen ostatuan, otsailaren 14an, 19:00etan.

LEITZA

Bardoak

Atekabeltz gaztetxean, otsailaren 14an, 20:30ean.

KONTZERTUAK

LEITZA

Los Zopilotes Txirriaos

Torrean, otsailaren 8an.

ETXALAR

Gitarra eta biolontxelo

Elizan, hilaren 9an, 18:00etan.

ELIZONDO

Pauline eta Juliette

Arizkunenean, otsailaren 9an,
19:00etan.

Baztan Kantuz

Otsailaren 16an, 12:00etan.

SARA

Altsasukoen aldeko gaualdia

Elkarretaratzea, bertso-poteoa eta kontzertua. Otsailaren 14an,
19:00etan hasita.

BERA

Hatxe taldea

Kataku ostatuan, otsailaren 16an.

Lukiek taldea

Kataku ostatuan, otsailaren 29an.

DANTZAK

ELIZONDO

Bailableak

Plazan, otsailaren 9an,
12:30ean.

IRURITA

'Izarrak'

Pilotalekuan, otsailaren 29an,
20:00etan.

ERAKUSKETAK



ARTXIBOKOA

IRURITA 'Izarrak' dantza emanaldia

Herriko dantzariak, musikariak eta Abesbatza Ttikiko kideak. Otsailaren 29an, pilotalekuan, 20:00etan.

LEITZA

'Erresistentzia feminista' erakusketa

Otsailaren 15etik martxoaren 15era.

AZOKAK

BERA

Bertako produktuen azoka

Beralandetan, bigarren larunbatetan, 10:30etik 13:30era.

INAUTERIAK

ARANTZA

Inauteriak

Otsailaren 6tik 8ra (xehetasunak 750. zenbakian).

URROZ

Inauteriak

Otsailaren 7an eta 8an.

ARIZKUN-ERRATZU

Inauteriak

Otsailaren 8an.

DONAMARIA

Inauteriak

Otsailaren 8an (xehetasunak 28. orrialdean).

BEINTZA-LABAIEN

Inauteriak

Otsailaren 14an eta 15ean (xehetasunak 26. orrialdean).

IGANTZI

Inauteriak

Otsailaren 14an eta 15ean (xehetasunak gehigarrian).

OIZ

Inauteriak

Otsailaren 15ean (Xehetasunak 750. zenbakian).

LEHIAKETA

BAZTAN

Piriniotar behi arrazako IV. argazki lehiaketa

Lanak udal bulegoetan edo baztan@baztan.eus helbidean aurkez daitezke, ekainaren 19a arte.

Nire aukera

«Lanean sartuak bizi gara eta ez gara inguruan dugun nukleoaz ohartzen»

TXOMIN MINDEGIA MENDAUR IKASTETXEKO ATEZAIN IZANA

1986an hasi eta joan den urte bukaerara arte Mendaur institutuko eta San Migel eskolako atezain izan da Txomin Mindegia Iriarte (Doneztebe, 1954). 34 urteotan «arlo guztietako» lanak egitea egokitu zaio: «jendeak atea ireki eta itxi, korroa jaso eta mandatuak egitea lotzen ditu gure eginbeharrarekin baina hori baino anitzez gehiago egiten dugu». Heine batean bederen, «sortzen diren arazo guztiak konpontzeaz edo soluzioa bideratzeaz» arduratu izan da. Ez da erantzukizun makala izan «600 lagun inguru» biltzen diren espazioa izaki «egunero» izaten zuen zerbait eta. Urteotako hamaika oroitzen gordetzen ditu, irakaspenean



bilduta: «bizi dudan guztiarekin, aniztasuna aberatsa dela eta elkarren osagarria izan gaitzkeela ikasi dut. Hagitz maitatua sentitu naiz». Sentimendu hori izan zen abendu hondarrean egindako agurrean gain hartu ziona: «hasteko ikasleek jantokira eraman eta musika-tresnekin Errekaren kanta jo zidaten. Erreka nire bizitza erdia da eta kantaren letra nik

sortua da... Ikasleak hori jotzen ikusteak hunkitu egin ninduen». Gehiago ere egin zuten: «joareak jo zizkidaten eta eskolako kide guztiak bueltan-bueltan hartu ninduten». Momentu horretan «elkarren arteko loturaz» ohartu zen: «urtez urte lanak ongi egiten saiatzen gara, lanean sartuta bizi gara eta ez gara inguruan sortzen dugun nukleoaz ohartzen. Hori sentitzea handia da». Handia eta harrigarria egin zitzaion. Izan ere, «aste bat lehenago irakasle, irakasle ohi, administrari... bilduta bazkari polit bat egin genuen eta guztia hori zela pentsatu nuen». Momentuko hutsuneari aitzin hartzeko lanik gabe, «aisa» aldatu du egunerokoa atezainak. Ateak itxi eta irekitzen trebatua delako edo kanpoan barruan bertze maite dutelako, «momentuz» ez du lanaren faltarik sumatu. Aldaketarekin «hagitz gustura» dago. Erretiroa hartzearekin bat, «urteetan hartutako ardurez eta egindako lanaz» ohartu da eta orain «arduretatik aske» bizi nahi du: «jaiki eta neure burua moldatu ez dut bertze egitekorik. Harrituta nago, ez naiz behin ere horren ongi bizi izan. Susmoa nuen jubilazioa ona zela baina ez nuen horren ona zenik uste».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Etxea salgai edo errentan emateko. 3.500 m²ko partzelarekin. ☎616 24 35 30.

BERA. 80 m²ko pisua salgai. Lehenbiziko solairuan, erdigunean kokatua, Altxate karrikatik hurbil. Guztiz berritua dago, sukaldea estreinatu gabe. Berogailua eta isolamendu ona ditu. Komunitateko gastu gutti ditu, atezainarekin. ☎608 77 79 26.

LESKA. 92m²ko pisua salgai, 1. solairuan. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Dena kanpoaldera begira. Ganbara. Berogailua eta ur beroa, gas naturala. Mobleztatua. ☎636 19 37 09 / 639 90 85 64.



LESKA. Elizagibela 3n, Mairuerre-geneea etxea salgai. 3 solairu, 110 m² bakoitzeko. Banaketa horizontala. 3 aparkaleku aitzinean eta gibellean 700 m²ko partzela. 345.000 euro. Eskaintzak onartuko dituzte. ☎652 43 90 30.

ERRENTAN EMATEKO

LESKA. Lagun batentzat logela errentan emateko. ☎678 85 50 56.

DONEZTEBE. Etxebizitza errentan emateko, naturaren erdian. Berogailua. Parkinga. Terraza. 100 m². 50 euroko fidantza eta 500 euroko hilabeteko kuota. ☎698 51 15 25.

EROSI

Baserría, etxea, borda, errota... erosi nahi dute. Berdin dio zein den egoera eta zein tokia. Eskura ordainduko dute. ☎698 51 15 25..

ERRENTAN HARTZEKO

MALERREKA. Pisu bat errentan hartu nahi dute. ☎600 64 34 60.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Iparralde karrikako 1. zenbakian 40 m²ko lokal komertziala errentan emateko. Komuna dutxa eta guzti. ☎608 77 79 26.

LURRAK/ORUBEAK

EROSI

Nafarroako edozein tokitan, **30.000 m²ko lur eremua** erosi nahi dute, berdin du maldan baldin bada ere.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

1.000 m²ko nabea eraikitzeke; 5.000 oilo librean ibiltzeko. Saltzailearentzat lanpostu bat ziurtatua. Eskura ordainduko dute. ☎698 51 15 25.

LANA

ESKAINTZAK

DANTXARINEA. Maspormenosen lanerako jendea behar dute egun osoz aritzeko. Kirol artikulu eta arropa teknikoak saltzen dituzte: goi-mendiakoak, lasterketetakoak, kanpoko jardueretarako... Bidali curriculuma: info@maspormenos.net. Frantsesa jakitea kontuan hartuko dute.

DONEZTEBE. Titi ostatuan sukaldaria behar dute. ☎948 45 02 71.

BERA. Zalain jatetxean esperientzia pixka bat duen zerbitzaria behar dute. ☎617 72 34 75.

ZUGARRAMURDI. Ostatu batean sukaldari laguntzailea eta zerbitzaria behar dituzte. ☎948 59 90 82 (goizez).

BERA. Laguntzailea-harreragilea behar dute. 25-40 urte ingurukoa, arduratsua, atsegina, dinamikoa eta jende aitzinean eta taldean lan egitea gustuko duena. Bidali curriculuma (gaztelaniaz): bera.quirrovital@gmail.com. Berehala hasteko; lanaldi erdian: astearte eta ortziraletan egun osoan eta ortzegunetan arratsalde.

ESKARIAK

Adinekoak zaintzen esperientziaduna lan bila. Adinekoak eta haurrak zaintzeko prest. ☎634 65 82 81.

Bortzirietako emakume euskalduna Bortzirietan adinekoak edo

haurrak zaintzeko prest. ☎650 40 79 78.

Emakumezko bat lan bila. Adinekoak eta haurrak zaintzen esperientzia duena. Interna moduan, orduka... aritzeko prest. ☎634 91 44 78.

Adinekoak zaintzen ibilia dena, edozein lanpostutan aritzeko prest: zaintzan, garbiketan...interna edo externa moduan. ☎632 43 18 98.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

LEITZA. Collie arrazako bi txakurkume oparitzeko, 3 hilabete ingurukoak. Oso politak. ☎948 61 06 89 / 636 02 23 11.



Hiru txakurkume oparitzeko. ☎661 90 50 09.

SALGAI

GOIZUETA. 20 ardi eta aharia salgai. ☎690 05 09 03.

Urte bateko txakurra salgai. Mes-tizoa, Border Collie eta artzai txakur-rrarena. Txertoak emanak ditu eta txiparekin. ☎616 16 48 47.

DENETARIK

Artzain txakurkumea edo uretako txakurkumea jaso nahi du etxean, neurri ertainekoa eta arra. Mendian eta itsasoan lagun izateko. Arraza nahasia bada primeran. ☎661 56 59 61.

MOTORRAK

SALGAI



Mercedes 200 autoa salgai. 400.000 km. Gasolina. 1.100 euro. ☎629 56 19 01.

DENETARIK

SALEROSKETAK

Transportes Otxangoko plaza salgai. ☎608 82 60 08 / 628 87 42 91.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,14
- 1.koa 4,01
- 2.koa 3,87

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,25
- 1.koa 4,11
- 2.koa 3,97

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 140,00
- Idixkoak 180,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,15/7,75
- 8-10 kilokoak: 5,85/6,45

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 74 €
Zerri gizona 1,408 €
Zerramak 0,800€/kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (urtarrilaren 17tik 24ra bitarteko prezioak)

ETXALAR. Belar fardo tikiak salgai. ☎618 96 27 74.



Bi ate beiradun salgai (725 mm x 2025 mm x 35 mm). Binilozko zuri lakatua. Estreinatua gabeak eta burdindegirik gabe. Banaka ere eros daitezke. ☎688 62 65 72 / 639 47 43 53.



Binilozko lurzorua salgai, zokaloa eta isolatzailea barne. Guztira 10 kaxa eta kaxa bakoitzeko zortzi lama (1,66m² kaxako). Ikatz kolorekoak. Neurriak: 17,1 cm x 121,2 cm. Lo-

diera: 5 mm-07mm. ☎688 62 65 72 / 639 47 43 53.

GALDU-AURKITUAK

BERA. Kotxeko giltzak galdu dituzte, urtarrilean. ☎655 09 90 20.



BERA. Toki Ona institutuko aparkalekuan kartera bat aurkitu dute. ☎948 62 50 00.

SUNBILLA. Inauterietan giltzatak bat galdu dute. 4-5 giltza ditu zilar koloreko txapa batetik zintzilika. Txapak odol-taldearen datuak ditu. ☎670 30 54 41.



744 484 361

ttipi-ttapa

MENDIKO JATETXEA

Sagardotegia

Ibardin-BERA | T. 00 34 948 63 03 02
www.mendikoibardin.com

Karta ere badugu!

KATEA BIKE 2. eskuko bizikletak

900€

1.000€

1.500€

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak

MITSUBISHI MONTERO

SUZUKI VITARA KM 0

4x4

www.mendaurmotor.es

HERIOTZAK

- **Marie Louise Guibert**, Sarakoa, urtarrilaren 6an, 101 urte zituela.
- **Catherine Robin**, Sarakoa, urtarrilaren 7an, 58 urte zituela.
- **Lucile Bougros**, Sarakoa, urtarrilaren 12an, 93 urte zituela.
- **Jose Mari Perurena Santesteban**, Urrozkoa, urtarrilaren 19an, 78 urte zituela.
- **Jose Altzu Fagoaga**, Iturengoa, urtarrilaren 20an, 95 urte zituela.
- **M^a Luisa Etxebertz Igoa**, Erratzukoa, urtarrilaren 20an, 91 urte zituela.
- **Juan Franzesena Arrizubieta**, Gartzaingoa, urtarrilaren 22an, 93 urte zituela.
- **Josefina Maillo Lamas**, Elizondokoa, urtarrilaren 22an, 96 urte zituela.
- **Miguel M^a Martiarena Iaben**, Oronoz-Mugairikoa, urtarrilaren 23an, 59 urte zituela.
- **Teodoro Irigoien Irigoien**, Igantzikoa, urtarrilaren 23an, 86 urte zituela.
- **Francisca Calvo Cabrera**, Elizondokoa, urtarrilaren 23an, 79 urte zituela.
- **Mari Jose Zestau Zestau**, Leitzakoa, urtarrilaren 24an, 76 urte zituela.
- **Bañardo Goienetxe Violet**, Berakoa, urtarrilaren 25ean, 89 urte zituela.
- **Fermin Ultzugarai Portu**, Lesakakoa, urtarrilaren 26an.
- **Lorenzo Urtxegi Agirre**, Berakoa, urtarrilaren 26an, 85 urte zituela.

SORTZEAK

- **Eneko Irazoki Irigoien**, Zugarramurdikoa, urtarrilaren 22an.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu,
948 635458 telefonora deitu edo
info@ttipi.eus helbidera idatzi beharko du.

AVIA www.doneztebe.com

E.S. SANTESTEBAN
Leitzako errepidea, 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679

KOTXE GARBITEGIA ShineTecs®

FURGONETA GARBITEGIA

“KONPONTZE EFEKTUA” duen pintura babeslearekin

> “Acrylonic” formula patentatua. Argizaria baino hobea.
> Kapa babeslea indartzen du garbiketa bakoitzean
> Distirak denbora gehiago irauten duela bermatzen du

2,60m bitarteko furgoneta edo kotxea garbitu gurean!

OROIGARRIA

**Martin
OSPITAL APEZETXE**

Iruñean hil zen 2020ko urtarrilaren 4an, 81 urte zituela.

Une gogor hauetan
gurekin egon zareten guztiei
eta min handia ttikitzen
lagundu gaituzuen horiei
bihotzez eskerrak eman nahi dizkizuegu.

Betirako egonen zara gure bihotzetan, Martintxo.



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Xabi
TABERNA TELLETXEA**

Igantzin, 2020ko urtarrilaren 11n

Xabi maitea,
Zaila da zu bezalako norbait bilatzea,
erraza maitatzea eta
oraindik zailagoa ahaztea.

Muxuak, agudo arte!



ATTA, AMA, JOSU, ANDONI, NEREA, MAIALEN, AROA

URTEURRENA

**Gregorio
MINDEGIA LOPEZ**

Donezteben, 2018ko otsailaren 18an
II. urteurrena

Bi urte pasatu diren arren,
ez da egunik
zutaz oroitzen ez garenik.



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Xabi
TABERNA TELLETXEA**

Igantzin, 2020ko urtarrilaren 11n

Zure begien dizdira eta
ezpainetako irria
beti nirekin egonen dira
Xabi maitagarria.

Muxu handi bat!



AMATXI ISABEL

OROIGARRIA

**Mikel
MANZANO ALTUNA
Bordaxuri**

2020ko urtarrilaren 11n

Umorez eta alaitsu
egoten ginen elkarrekin,
eta oroitzapen ahaztezin horiek
beti geldituko dira gurekin.



ARANTZAKO ZURE KUADRIILA ETA
ZURE GURASOEN ARANTZAKO LAGUNAK

OROIGARRIA

**Xabi
TABERNA TELLETXEA**

Igantzin, 2020ko urtarrilaren 11n

Udazkeneko usoen antzera joan zara
eta gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko,
baina bizi garen artean
ez zaitugu atzenduko.



ETXALARKO FAMILIA



BAZTAN
BIDASOA

Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE
tanatorioak
Betidanik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70


URTEURRENA

**Juanito
ZOZAIA GOÑI**

Urrozen, 2017ko otsailaren 10ean,
78 urte zituela

III. urteurrena

Beti gure bihotzetan.



ZURE FAMILIA



OROIGARRIA

Joxe Angel Zubiria Leiza

Lesakan, 2019ko abenduaren 25ean


Esku bat bota ez ezik
zenekin esku ematen
asmatu zenun bizitza
umoretik eramaten
zerk haserrera zintun
etzen erre antzematen
lagun gisa zenbat hitz on,
zenbat lan, zenbat ekarpen!

Zubiria zu zinena
ez da edonor izaten
nahiz unerik gogorrenak
eurengan preso gauzkaten
segi nahi dugu iragan
gozoenetik edaten
oroitzapenek zugana
noiznahi eraman gaitzaten.

Zure betiko kuadrilla




Beñat Ibarra Bereau etxeko pilotariak 6 urte bete ditu urtarilaren 16an. Zorionak familiaren partetik.



Arantzako Kattalin Ordoki Hualde eta Eneko Ordoki Agesta osaba-ilobek urteak bete dituzte otsailaren 1ean eta 5ean. Zorionak familia guziaren partetik eta prestatu bazkari eder bat.



Iturengo Aritz eta Garazi Iñigo Lujanbiok urtarilaren 29an 9 urte bete dituzte. Zorionak Iturengo eta Goizuetako familien partetik.



Aresoko Maddi Barandarin Iraolak bi urte beteko ditu otsailaren 1ean. Zorionak eta bi muxu goxo! Pastela lehenbizi eta mozzorra gero... Ederki ospatuko dugu inaurerietan!

URTEURRENA

Maritxu URROZ ARIZTEGI


2019ko urtarilaren 28an

I. urteurrena

Urak dakarrena urak daroa
eta zuk irakatsitakoa gurekin gelditzen da.
Zuhaitza bezala lurrian, hostoak bezala haizean
muinak bezala erroetan, ura bezala itsasoan.
Ekaitzak bota-arazten, ipar eta hegoaldetik
pertsonek izateko hasi behar da
pertsonek izaten hemen.



OIARZABAL-URROZ SENDIA



Lesakako Aizpea Terreros Alzugaraik 4 urte beteko ditu otsailaren 4an. Zorionak eta muxu handi bat atxikiren partetik.



Elizondoko Alaia Arteta Mikelperizenak otsailaren 8an 3 urte beteko ditu. Zorionak familia guziaren partetik. Muxu



Aunitz urtez! Naroa Mutuberría Pagola gure etxeko tikiak 8 urte! Ongi-ongi pasa zure egunean. Muxu handi bat familia guziaren partetik.



Arriaizko Urko Arraztoa Agerreberek otsailaren 7an urte bat beteko du. Aunitz urtez familia guziaren partetik, eta bereziki Aiora eta Oinatzen partetik. Muxu handi bat!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu zure ingurukoak!

Internetez

<http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu. Egun berean edo hurrengo lanegunean argitaratuko da webgunean, baita hurrengo aldizkarian ere.

Bulegoan eta postaz

Etor zaituzte TTIPI-TTAPATEN bulegora edo bidali argazkia eta testua: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.



BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan

IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUI, A TU LADO


Hurbiltasuna eta begirunea

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com


ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

FALTSUA, BIKOIZTUA

Irakurle batek arras ongi erran zigun behin:
Elur malutak izotz-prismez osatuta daude, eta ezberdinak
diren arren, ezaugarri bat eta bera dute, hexagonoak dira,
sei adar dituzte beti.
Aurki itzazu izotz-prisma faltsua (zazpi adar dituenena)
eta izotz-prisma bikoiztua.



HARA!



ETA
NIK NOLA
JAKINGO DUT
HORI!!



Bai bitxia gure hizkuntza. Hiru elementu hauek
izen bera dute, aizu! Zer dira? Ipini hemen. ↴

Lauki bakoitzeko hizki bana idatzi behar duzu.

Hemen, pista batzuk, lagungarri:

1. Azkena, bat baino gehiago direla adierazteko da.
2. Lehen hizkia ez dugu normalki ahoskatzen.
3. Bigarrena eta seigarrena bokalak dira eta berdinak dira.
4. Laugarrena bokala da, baina ez da bigarren eta seigarren laukikoa bezalakoa, ezta O, edo E ere.
5. Bosgarrena sudurkaria da. Ez da Ñ, baina ia-ia.
6. Hirugarrena, "gu" hitzan aurkituko duzu.

Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

750

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

BKZ Abentura - 2 sarrera

Maria Jose Larraioz Ariztegi | OIZ

Zugarramurdiko Lezeak - 2 sarrera

Bego Sustatxa Bengoa | ASTITZ

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

Mertxe Erregerena Mortalena | ERRATZU

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Karmele Garmendia Urtizberera | ELIZONDO

Buatxabal - Kamiseta bat

Mikel Estanga Otermin | LEITZA

Lesakako kiroldegia - 2 sarrera

Arantxa Vicente Arburua | ETXALAR

Elkar- Liburu bat

Daniel Belarra Mariñelarena | DONEZTEBE

Elkar- Liburu bat

Berta Ripalda Ayarra | BERA

Elkar- Liburu bat

Jose Ignacio Murua Elizondo | PASAI SAN PEDRO

Lote bat



ARKUPE

www.arkupegozotegia.com

Eguzkilore bat



OKILLE TAILERRA

okilletailerra.blogspot.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

www.eurekamuseoa.eus



2 sarrera helduentzat

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

MARTIKO

www.martiko.com



Lote bat

LIBURUAK



- Janztera!
- Baserriko soinuak
- Grizzly Birusa

ibaizabal
www.ibaizabal.com

LA GUNTZAI LEAK



www.erein.eus



www.rhune.com